

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2015 urteko jardueren memoria



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
www.egk.org



AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA	
1.1 ETXEBIZITZA	
1.1.1 Emantzipa... Zer?	5
1.2 ENPLEGUA	
1.2.1 Gazteak eta Enplegua Lan Taldea	6
1.2.2 Prekariatatearen aurkako prebentzioa	9
1.2.3 SOSgazteak II. Itzultze programak eta eskubideen galera	11
1.3 OROKORRA	
1.3.1 Posizionamendu publikoak: lan istripuak eta gaztetxeak	13
1.3.2 Gazte-Label: gazteria politika publikoen kalitate zigilua	14
1.3.3 Eguneroko lana	16
2. HEZKUNTZA	
2.1. HEZKUNTZA EZ FORMALA	
2.1.1 Astialdi Foroen koordinazioa	19
2.1.2 Astialdi ikastaroen kanpaina	21
2.1.3 Udako kanpaina	23
2.1.4 Astialdi Foroko webgunea	24
2.1.5 Astialdiko eskolen etorkizuna	25
2.1.6 Boluntariora argazki lehiaketa	26
2.2. HEZKUNTZA FORMALA	
2.2.1 Hezkuntza Foroa	28
2.2.2 Nahi dugun unibertsitatea proiektua	29
2.2.3 Euskadiko Eskola Kontseilua	31
2.3 EGUNEROKOTASUNA	32
3. PARTE HARTZEA	
3.1 EUSKAL GAZTEEN BEHATOKIAREKIN ELKARLANA	
3.1.1 Ikerketa kuantitatiboa	33
3.1.2 Prestakuntza tailerrak	34
3.2 GAZTEAK ETA PARTE-HARTZEA KIROLEAN	
3.2.1 Gazteolinpiadak	35
3.3 GAZTEOK ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA	
3.3.1 Gazte Eztabaida	37
3.3.2 "Gazteen lan mugikortasuna eta itzulera" topaketak	39
3.4 GAZTEEKIN ETA GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENEO HARREMANA	
3.4.1 Material eta gelen lagapena	40
3.4.2 Gazte eta eragileei aholkularitza eta zuzeneko harremana	42
3.5 ERAKUNDE PUBLIKO EKIKO HARREMANA	44
4. KOMUNIKAZIOA	
4.1 RECACCIONA BIDEO LEHIAKETA	47
4.2 PIZTU! HAMABOSTEROKO BULETIN ELEKTRONIKOA	49
4.3 EGKREN WEBGUNEA	50



4.4 SARE SOZIALEN KUDEAKETA	53
4.5 BERRIZ BERRI HILEROKO POSTER-AGENDA	54
4.6 KOMUNIKAZIO KANPAINAK	55
4.7 BARNE KOMUNIKAZIO KUDEAKETA ETA BESTE BATZUK	60
5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA	
5.1 BAKE&ARTE TAILERRAK	61
5.2 GAZTE BAKEGINTZAREN DOKUMENTALA I	63
5.3 ERREFERENTZIA FUNTSA / MEMORIAREN PLAZA	64
5.4 BAKEHIZKETAK	66
5.5 NAZIOARTEKO EGUNAK	70
5.6 BAKEA UNIBERTSITATEETAN	72
5.7 GAZTE-BAKE MANIFESTUA	74
5.8 GALDETEGIA	75
5.9 BAKE EKIMENAK UDALERRIETAN	76
5.10 BAKEAREKIN LOTUTAKO BESTE EKIMENAK	78
6. BERDINTASUNA	
6.1 BERDINTASUN TXOSTENA	79
6.2 EMAKUNDEREKIN LANKIDETZA	80
7. PRESIDENTZIA	
7.1. BATZORDE IRAUNKORRA	84
7.2. LANTALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA	85
7.3. BATZORDE EKONOMIKOA	87
7.4. EGK BATZAR OROKORRA	88
7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA	
7.5.1. Eusko Jaurlaritza	90
7.5.2. Aldundiak	92
7.5.3. Eusko Legebiltzarra	93
7.5.4. Batzar Nagusiak	94
7.5.5. Udalak	95
7.5.6. Beste Erakundeak	96
7.5.7. Komunikabideak eta Irudi Publikoa	98
8. EGKko KUDEAKETA EKONOMIKOA	
8.1. BATZARREAN ONARTUTAKO 2015 URTERAKO AURREKONTUA	101
8.2. KONTROL EKONOMIKORAKO BATZORDEA	102
8.3. 2015EKO BALANTZE EKONOMIKOAREN IRUZKIZUNAK	104
8.4. 2015EKO BALANTZE EKONOMIKOA	106



SARRERA

Dokumentu honetan, EGKk (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) 2015ean zehar egin duen lana jasotzen da. Atalez atal, proiektu guztiak azaldu eta baloratu dira.

Oro har, proiektu guztien gauzatzea arrakastatsua eta kalitatezkoa izan da. Aurreikusitako ekintza guztiak burutu dira eta denetatik ondorioak eta mamia atera da. Horiengatik ez balitz, Kontseiluak ez luke diskurtsoa osatzerik, ez eta erakundeei aholku ematerik. Gazteengandik lortutako parte-hartzea ezberdina izan da kasuan kasu; hori dela eta, parte-hartze hori handitzeko estrategiak bilatu behar dira hurrengo urterako.

Etxebizitza eta Enplegu arloak izan du presentzia handiena 2015ean; hala ere, gainontzeko arlo guztietan ekintza eta egitasmo ugari burutu dira: Bake eta Bizikidetzako tailer, elkarbizitza eta lantaldea; Astialdiko kanpainak; Hezkuntzako eragileen Foroa; Twitter lehiaketak; gazteen parte-hartzearen gaineko ikerketa kuantitatiboa eta GazteOlinpiadak; berdintasun diagnostikoa...

Gazteriaren Kontseiluak lehen aldiz Euskal Gazteen Behatokia, Emakunde eta Arateko erakundeekin harremana egin du. Horri esker, lankidetzeta eta elkarri aholkularitza emateko bideak garatu dira. Harreman hauek, gazteen onerako ez ezik, gizartearentzat ere onuragarriak izango dira, elkarrekin neurri aproposagoak diseinatuko direlako. Horrez gain, aurretik egindako harremanak mantendu eta elkarte berriak ezagutu dira.

2013z geroztik, talde teknikoa pixkanaka-pixkanaka zabaltzen joan da. 2013ko Batzarraren ondoren 4 langile geratu ziren eta honezkero, 7ko taldea osatu da, laster 8koa. Talde Teknikoaren kalitatea eta konpromisoa azpimarratzekoak dira. Ezaugarri eta gaitasun ezberdinak batzen dituzte denen artean, horrek EGK izugarri aberastuz.

Barne mailan, lan egiteko eredu sendo bat garatzen joan da azken bi urteetan zehar. Batez ere koordinazioa eta komunikazioa indartu dira; hartara, kohesioaz eta koherentziaz lan egiteko denen artean.

EGKko langile eta kideek, zein administrazioetako arduradunek, oso positiboki baloratu dute 2015eko jarduna. Inoiz baino oihartzun handiagoa lortu da eta Kontseiluak egindako lana erakundeetako neurrietan islatu dela iritzi da.



1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA

1.1 ETXEBIZITZA

1.1.1 Emantzipa...ZER?

Justifikazioa

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzeak edo galtzeak suposatzen duen arazoa orokortu da, gazteriaz gain beste kolektibo askotara hedatuz. Hala ere, gazteriaren egoera nabarmenki txarra da orokortasunen aurrean. Alde batetik, %20ko inguruko emantzipazio tasa urriak aurkezten dituelako, eta bestetik, pairatzen dituen lan baldintzak kontutan harturik, egoerak ez duelako hobetzeko itxurarik. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza lan talde bat berreskuratzea eta, enplegu lan taldearekin egin izan den bezala, administrazioarekiko lan zuzena egitea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helaraziz.

Helburuak

Helburu orokorra:

Etxebizitza eskubide subjektiboa defendatu, herri-hiritar denontzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten dugun gazteontzako.

Helburu zehatzak:

- Gazteak eta gazte elkarteak etxebizitza arloaren inguruan batuko dituen eztabaida gune bat sortu eta egonkortu.
- Administrazio/instituzio ezberdinek martxan jarritako etxebizitza politika publikoak hausnartu eta erakundeen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Eztabaida gunean sortutako ekimenei jarraipena eman eta honen funtzionamendua kudeatu eta bultzatu.

Ekintzen jarraipena

1. POLITIKA PUBLIKOEN JARRAIPENA:

Urtean zehar, gazteei zuzenduriko hainbat ekimen pilotu jarri dituzte martxan Administrazio ezberdinek, besteak beste, etxebizitza partekatuen programa edo Etxebizitza Euskal Legea. Hauen informazioa jaso eta batu egin da, jarraipena eginez.

2. GALDETEGIA:

Jasotako informazioa zabaldu eta gazteei zuzenduriko programen gainean gazteek duten iritzia jasotzeko helburuarekin, online galdetegi bat egin da. Galdetegi hau EGKko elkartearen artean eta sare sozialetan zabaldu da.

Jaso diren 21 erantzunak batu eta ondorioen zirriborro bat egin da, 2016an lan taldea deitzeko oinarri giza hartzeko, izan ere, aurten izan den lan kargagatik ezin izan da nahi zen bezala lantaldea martxan jarri. Ordez, informazio eta iritzi jasotzea lehenestu da.



Ebaluaketa orokorra

- EGKren lan arlo honek enplegu atalean izandako lan karga handia dela eta, ezin izan da etxebizitza atalean lan taldea modu egokian martxan jartzeko denbora izan, beraz, ildo hori hurrengo urterako geratzen da.
- Jasotako informazioari dagokionez, gazteriari zuzenduriko neurrien azterketa egin da eta egindako galdetegian informazio hau plazaratu da, jasotako erantzunetan hau azpimarratu delarik: informazio hori gazteei ez zaiela normalean heltzen.
- Galdetegiarri 21 gaztek erantzun diote, hemendik aurrera lan egiteko materiala sortuz.

1.2 ENPLEGUA

1.2.1 Gazteak eta Enplegua Lan Taldea

Justifikazioa

Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo du gazteria eta bideratzen ari diren hainbat erreformek ez dute prekarietatea denboran eta sakontasunean indartzen baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da gazteek, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun bat emateko lan talde sendo bat izatea. Horregatik, garrantzitsua da gaztez osaturiko lan talde bat izatea eta, administrazioarekiko lan zuzena egitea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helaraziz.

Helburuak

Helburu orokorra:

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren politika publikoak hausnartu, administrazioari helarazi eta, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gazteen egoera aztertu eta eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

Helburu zehatzak:

- EGK barruko enplegu lan taldea mantendu eta gazte gehiagori zabaldu.
- Gazteria eta enplegu politiken inguruko hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteen prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz.
- Gazteriaren lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatuz.
- Administrazio gazteriaren artean enplegu arloan zubi lana egin.

Ekintzen jarraipena

1. LAN TALDEAREN BILERAK:

Lan taldea gutxi gorabehera hilabeteetan behin batu da. Aurreko urteetan egindako lanarekin alderatuta, aurtien bilerak txandaka hiru hiriburuetan egin dira. Dena den, ez da aurreko



urteetan parte hartzen zuen jendea baino pertsona gehiago erakartzea lortu eta, hortaz, bileretara etorri ezin zitezkeen elkarte eta gazteekin banakako bilerak egitea erabaki da. Horrela ba, hainbat bilera egin izan dira, kontsultatutako elkarte eta gazteen ekarpenak lan taldearen ekimenean barneratuz.

Bilera hauen bitartez, lan taldearen baitan landutako proiektuak gauzatu dira eta gazteen enpleguaren politika publikoen inguruko informazioa jaso, trukatu eta hausnartu da.

- **Lan taldeko kide egonkorak:** CCOO gazteak, FUJE, EKO-ACG, EGAZ, ESK, gazte bat bere izen propioan.
- **Ohiko bilerak:** urtarrilak 22 Bilbon; otsailak 19 Gasteizen; Martxoak 12 Bilbon; Apirilak 14 Gasteizen; Maiatzak 19 Donostian; Ekainak 2 Bilbon; Ekainak 30 Donostian; Irailak 22 Bilbon; Urriak 27 Bilbon; Azaroak 17an Bilbon eta Abenduak 16 Bilbon.
- **Ez ohiko bilerak:** Ernai, Hezkide Eskola, AJEBASK, LSB-USO.

2. LAN OSASUNAREN MANIFESTUA:

2012tik galdutako ekimen hau aurten berreskuratzea erabaki zuen Batzar Orokorrak, plangintza osatzerako momentuan elkarte batek egindako proposamenari jarraituz. Hortaz, apirilaren 28a, Nazioarteko Lan Osasunaren egunaren harira, manifestu bat landu, atxikimenduak batu eta publiko egin izan da.

- **Manifestua:** lan taldeko elkarte baten proposamez, Mutuen Legean jarri zen arreta, honek gazteen lan osasunean izango dituen ondorioak salatuz.

Euskarazkoa hemen:

<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/572/Gazteek%20lan%20prekarietatearekin%20amaitzea%20eskatzen%20dute%20euren%20osasuna%20babesteko.html>

Gaztelerazkoa hemen:

<http://www.egk.org/es/%C3%9Altimas%20noticias/ver/572/Las%20personas%20j%C3%B3venes%20piden%20terminar%20con%20la%20precariedad%20laboral%20para%20proteger%20su%20salud.html>

- **Atxikimenduak:** aurreko urteetan bezala, manifestuan lan taldean landu eta gero beste elkarte, sindikatu eta gizarte mugimendu batzako atxikimendu epea ireki zen. Guztira, 16 atxikimendu jaso ziren (manifestuan ikusgai).

3. PROPOSAMENAK:

Aurreko urtean hasitako lanarekin jarraituz, aurten ere gazteek enpleguaren arloan dituzten proposamenak jaso eta adosten jarraitu da. Lehen abiapuntu indartsu bat lortuta, hau argitaratu eta lana puntu hortatik aurrea jarraitzea erabaki zen. Hortaz, "gazteentzako enplegu planak sukaldatzeko GAZTEON ERREZETAK" dokumentua adostu eta editatu zen.





Horretarako, lan taldearen lanaz gain, EGK barneko elkarte guztiei eskaini zitzaizen dokumentuaren kontrastea egiteko aukera, hainbat elkarterekin egin izan ziren bilerak eta iraunkorrak dokumentua kontrastatu zuen baita.

Euskarazkoa hemen: <http://www.egk.org/adjuntos/PRENTSA/RECETAS-EUSK.pdf>

Gaztelarazkoa hemen: <http://www.egk.org/adjuntos/PRENTSA/RECETAS-CAST.pdf>

- **Aurkezpen publikoa:** ekainak 15ean, EGKren Gasteizko bulegoan, prentsa aurreko bat antolatu zen. Ikusi hemen:

<http://www.egk.org/es/%C3%9Altimas%20noticias/ver/588/EI%20Consejo%20de%20la%20Juventud%20de%20Euskadi%20%28EGK%29%20presenta%2017%20propuestas%20para%20impulsar%20el%20empleo%20de%20calidad%20entre%20las%20personas%20j%C3%B3venes.html>

- **Aurkezpen bilerak:** Behin dokumentua publiko eginda, hainbat entitateekin bilerak egin izan dira, dokumentua aurkeztu, neurriak azaldu, kontrastea eta ideia berriak jaso eta administrazio zein entitateen zereginetan proposamenak txertatu ahal izateko aukerak aztertzeko. Guztira, 30 bilera baino gehiago egin dira, besteak beste:

- **Legebiltzarrean agerraldiak:** azaroak 16 egin zen, Enplegu Batzordean, eta abenduak 14ean enplegu lan taldea Gazteria Batzordean izan zuen agerraldia.
- **Erakundeak:** Eusko Jaurlaritzako Gazteria zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Enplegua eta Gizarte Politiketako saila; Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia; Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteria eta Berdintasun Sustapena saila; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendaritza eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegua eta Gazteria zuzendaritzak.
- **Erakundeetako talde politikoak:** Eusko Legebiltzarreko Eusko Abertzaleak, EH Bildu, Sozialistak eta UPyD; Bizkaiko Batzar Nagusietako EAJ-PNV, Podemos-Ahal Dugu eta PP; Gipuzkoako Batzar Nagusietako EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Podemos-Ahal Dugu eta Arabako Batzar Nagusietan EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta Irabazi.
- **Sindikatuak:** CCOO, ELA, LAB, ESK, USO eta UGT.
- **Beste eragile ekonomiko eta sozialak:** CONFEBASK, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Fundación ADSIS, CES-EGAB, Novia Salcedo eta IRSE (Instituto para Inclusión Social).

4. ENPLEGU POLITIKETAN INTERPELAZIOA:

Gazteei zuzenduriko enplegu politiken jarraipena egiteko helburuarekin eta politika hauetan gazteen nahiak eta beharrak islatzeko xedez, politika publiko hauen hausnarketa egin eta haien arduradun diren kargu politiko eta teknikoekin bilerak egin izan dira urte osoan zehar.

- **Bizkaiko Foru Aldundia:** Sustapen Ekonomikoa eta Gazteria sailekin bilera egin zen (urtarrilak 21). Bi urtetan zehar eskatu eta izan gabeko bilera izan zen hau, aurreko urteetako gazteen enplegu planen inguruan lan taldeak egindako



hausnarketak azaldu eta hortik aurrerako politikak landu ziren. Diputatu aldaketa egon zenean, bigarren bilerak bat egin zen proposamenak aurkezteko.

- **Eusko Jaurlaritzak:** Enplegu eta Gizarte Politiketako saila, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza eta Lanbiderekin bilerak egin izan dira, denetan arduradun politikoak egon direlarik. Hauetaz gain, Nazioarteratzeko Zuzendaritzarekin ere egin izan dira bilerak (ekainak 12). Guztira, bosti bilerak egin izan dira aurten.
- **Gasteizko Udala** (gazteia+enplegurako formazioa), lehen lan esperientziari buruz hitz egiteko (maiatzak 28).
- **Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Aldundiak, Batzar Nagusiak eta Udalak.** Proposamenak aurkezterakoan hauetako talde askorekin egin ziren bilerak (ikusi 3. puntua).

Ebaluaketa orokorra

- Lan taldeak lan egonkorra egin du eta ekimenak modu parte hartzailean gauzatu ditu. Dena den, elkarteen parte hartzea jaitsi dela somatu da eta hurrengo urterako parte hartzea hobetzeko estrategiak gauzatu beharko lirateke.
- Politikari eta administrazioek proposamenei harrera ona egin diete eta datorren urtera begira hauen txertatzearen jarraipena egingo da.
- Gazteei zuzenduriko enplegu politikan aldaketa xume bat somatu da. Hau ezin zaio guztiz EGKren lanari egotzi baina prekaritatea eta gazteen lan duintasuna mahaigaineratzen lagundu duela ezin da ukatu.

1.2.2 Prekaritatearen aurkako prebentzioa

Justifikazioa

Azken hamarkadetan, eta bereziki azken urteotan gazteen enplegua sustatzeko aitzakiarean martxan jarri diren neurri eta lege erreformek gazteriaren lan prekaritatea sustatu dute hein handi batean. Alabaina, administrazioa ez da askotan jabetzen haien ekimenekin bultzatzen duten egoeraz eta beste askotan lanaren kantitatea kalitatearen aurretik ipintzen dute, prekaritatea bigarren mailako arazo bat bezala ikusiz. Horregatik, administrazioari eta gazteriarri zuzendutako ekintza hau bideratu da. Azken finean, arduradunek gazteen prekaritatearen inguruan duten ezagutza eta sentzibilizazioa hobetzekotan, honek haien eguneroko jardueran eragina izango luke, ondorioz, gazteen prekarizazioa murrizten lagunduko lukeena.

Helburuak

Helburu orokorra:

Gazteen lan prekaritatearen inguruan gizartea eta eskumenak dituzten politikari eta teknikariak sentzibilizatzea eta prekaritate hau sustatzen duten ekintzak ekiditzen lagundu.

Helburu zehatzak:

- Lanbideko orientatzaileei zuzenduriko ikastaroak prestatu eta eskaini (gazteriaren enplegua eta prekaritatearen ingurukoak).
- 2014an garatutako kanpaina gauzatu eta zabaldu (www.prekarioka.org)



Ekintzen jarraipena

1. PREKARIOKA.ORG:

Aurreko urteko azken hiruhilabetean gauzatutako proiektua 2015eko lehen hilean aurkeztu izan da: www.prekarioka.org webgunea. Prekarioka proiektuak gazteen prekarietatearen errealitatea ezagutaraztea du helburu eta bertan prekarietate honen hainbat eta hainbat aurpegi islatu dira. Hauetaz gain, gazteek faltan somatu dituzten egoerak barneratzeko aukera ireki da, iruzkinen bitartez.



- **Aurkezpen publikoa:** urtarrilaren 27an aurkezpen publiko bat egin zen Donostiako EHUaren kanpusean. Ohiko prentsa aurreko bat egin ordez, prekarioka joko erraldoi bat egin eta unibertsitateko gazteekin jolasteko erabili zen, prentsa gonbidatua zegoelarik. Aurkezpenean zehar, hainbat txosten banatu ziren eta gazteekin prekariokak batzen dituen kontzeptuak landu ziren. Ikusi prentsa jarraipena 7. atalean.



Webgunezaz gain, honen ondorioak inprimitutako txosten batzuetan jaso ziren, webgunetik jaitsi daitezkeenak.

Euskaraz: <https://s3-eu-west-1.amazonaws.com/prekarioka/files/prekarioka-eu.pdf>

Gaztelaraz: <https://s3-eu-west-1.amazonaws.com/prekarioka/files/prekarioka-es.pdf>

Ikusi berria hemen:

<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/549/prekarioka.org,%20gazteriaren%20lan%20baldintza%20prekarioen%20oka%20jolasa%20aurkeztu%20da.html>

2. IKASTARO ETA TAILERRAK:

Ikastaro hauen helburua teknikari, politikari eta gazteen enpleguaren politika publikoen arduradun diren beste agente batzuei, gazteak barne, gazteen prekarietatearen eta honen



ondorioen inguruko informazioa eta formazioa matea da. Horretarako, toki eta formatu ezberdinak erabili izan dira, aukerak sortu diren heinean:

- **Lanbideko orientatzaileei ikastaroa:** ikastaro honen proposamena 2014ko azken hilabeteetan mahaigaineratu zuen Eusko Jaurlaritzako Enplegu Zuzendaritzak. EGKk formazio proposamen bat egin zuen eta Lanbideko zuzendariari helarazi zitzaion. Instituzio hau lanpostuen birmoldaketa batean banaturik zegoela, berrantolaketa bukatzerakoan proposamena berreskuratzea erabaki zuen.
- **IKD, gazteentzako lan eskubide tailerra:** EHUtik EGKrekin jarri ziren kontaktuan, IKD ikastaroaren baitan ikasleei erronka bat ezartzeko (ikus Hezkuntza atala). Erronka honen baitan, gazteek EGKri lan eskubideen inguruko tailer bat egitea eskatu zioten.
- **Arartekoa eta EHUaren Udako Ikastaroa:** “*Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua eraikitzeaarekin lotutakoak*” udako ikastaroan antolatutako mahainguru batean parte hartzera gonbidatu zuen Arartekok EGK. Bertan, gazteek lan munduan pairatzen dituzten eskubide urraketak azaldu ziren.
- **Open Academy (Agirre Lehendakari Center):** “Berdintasuna. Kultura da bidea” jardunaldian parte hartu zen, Emakunde eta Helduen Hitza elkartearekin batera. Bertan, gazteei zuzentzen zaizkien eta haien eskubideak urratzen dituzten enplegu formula bereziak azaleratu ziren, gazteek aukera eta baldintza berdintasuna sustatzeko neurriak aipatuz.

Ebaluaketa orokorra

- Prekariokak ohiartzun handia izan du komunikabideetan eta orrialdearen bisita kopuruan. Formatua aproposa izan da eta ematen den informazioa ulerterraza eta erabilgarria da.
- Hainbat jardunalditan parte hartu izan da, EGKren ahotsa entzunaraziz. Nabarmentzekoa da gero eta gonbidapen gehiago jasotzea enpleguari dagokionean hitz egiteko.
- Tamalez, Lanbiderekin egin beharreko elkarlana (orientatzaileei formazioa) ezin izan da gauzatu. 2016. urterako lan ildo hau martxan jarri ahal izatea espero da.

1.2.3 SOSgazteak II. Itzultze programak eta eskubideen galera

Justifikazioa

2013.urtean eta 2014.urteko lehen hiruhilekoan zehar SOSgazteak proiektua gauzatu zen, lanagatik atzerrira joandako gazteen errealitatea hausnartu zuena. Proiektu honen bukaeran argitaratu zen ondorio txostenean, besteak beste, atzerrira joandako gazteak itzultzea erabakitzen zutenean topatzen zituzten oztopoak agerian utzi ziren. Horrela ba, eta hainbat gaztek horrela eskatuta (ikus 2015erako ideia proposamenak tuitar lehiaketan) gai honekin lotutako bi gaitan hausnarketa sakonago bat garatzea erabaki zen: 1)Itzulera programak eta 2)Itzuleran, eroldarekin loturiko eskubideen galera.

Helburuak

**Helburu orokorra:**

Gazteen lan emigrazioa eskubide sozioekonomikoen alorretik hausnartu eta administrazioarekin lan egin hainbat puntutan egoera hobetu ahal izateko.

Helburu zehatzak:

- **Itzulera programak hausnartu eta proposatu.** Bai atzerrian egin izan direnak eta baita hemengo administrazioek proposatutakoak, azken hauei hobekuntza proposamenak eginez.
- **Itzuleran, eroldarekin loturiko eskubideen galera** hausnartu eta hobekuntza proposamenak egin.

Ekintzen jarraipena**1. SOS GAZTEAK II TXOSTENA:**

SOSgazteak proiektuarekin jarraituz, bertan aztertutako hainbat gairen inguruko hausnarketa bideratu da aurten. Batetik, atzerrira lanera joandako gazteek itzultzerakoan aurkitzen dituzten trabak ikertu dira; eta bestetik, Euskadin zein atzerrian garatu eta proposatutako itzulera programak ezagutu nahi izan dira. Modu gehigarrian, azken urteetan atzerrira joateko garatu diren informazio baliagarria errazten duten dokumentuen bilkura bat egin da, gazteei helarazteko.

Txostena garatzen ari zela, itzultze prozesuarekin harremana duen euskal lege baten ezagutza izan zen. Lege honek duen garrantzia ikusita, eta txostenaren baitan agertzen ziren eskubide galeren gain eragina duela ikusita, txostenaren publikazioa eten egin izan da. Izan ere, lege honek arautzen dituen puntuak Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza eta Kanpo Harremanak Zuzendaritzeko koordinatu eta argitaratzea lehenestu baita.

Dena den, txostenaren baita jaso beharreko informazioa batu da eta zirriborro bat ere egin da, hurrengo urteetan bertan agertzen diren datu eta informazio baliagarriak administrazioak interpelatzeko jarraibide gisa baliatu dadin.

Oharra: Gasteizen egindako Mugikortasun eta Itzulera Hiruburuaren ondorioak ere baliatuko dira datorren urtera begira (ikusitako parte-hartze atala).

2. ADMINISTRAZIOAREKIKO INTERPELAZIOA: ITZULERA PROTOKOLOA:

Lehen zein bigarren SOSgazteak txostenetan hausnarturiko hainbat gako hobetzeko intentzioarekin, gazteen lan emigrazioan zerikusia duten hainbat administrazio arduradun eta entitaterekin harremana izan da.

- **Nazioarterakotze zuzendaritza.** Zuzendaritza honen eskutik euskal gazteak atzerrian lan egiteko programak garatzen dira, besteak beste, Global Training eta internazionalizazio bekak. Hori dela eta, EGKren hausnarketak helarazi eta lehen eskuko informazioa jasotzeko bilera bat egin zen.
- **Aquitania-Euskadi.** Entitate honek muga-arteke langileen inguruko ikerketa bat gauzatzen ari da bere lanaren baitan. Horretarako, hainbat administrazio eta kontseilurekin batu izan da eta, besteak beste, EGK eta gazteen iritzia jaso nahi izan du. Alde batetik, ikerketaren gidoian jaso beharreko datuak eta, bestetik,



Aquitania eta Euskadiren arteko gazteen enplegu programa bat gauzatzeko gakoak izan dira eztabaidagai.

- Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza eta Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza. Kanpo Harremanetarako zuzendaritzarekin izandako bilera batean, *8/1994 legea, maiatzern 27koa, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarakoa* mahaigaineratu zen. Lege honek bere 11.artikuluan dioenez, emigratutako euskaldunek ez dute errolda aintzinakotasuna justifikatu beharko hainbat eskubide bereganatzeko behin Euskadira itzulita. Legeak emigratutako euskaldunei eskaintzen dien babes hau, alabaina, ez da ezaguna eta ez da erraza gauzaten. Horregatik, Gazteria eta Kirol zuzendaritzarekin batera lege honek bermatzen dituen eskubideak bete ahal izateko Itzulera Protokolo bat gauzaten dihardu EGK. Horretarako, itzulitako euskal emigrante ziurtagiri proposamen bat eta administrazioaren atal ezberdinekin itzulitako euskaldunen eskubideak kudeatzeko proposamena egin zaie bi zuzendaritzei. Datorren urterako lan ildo bat izango da hau ere.

Ebaluaketa orokorra

- Txostenean jasotako informazioa asko eta garrantzitsua izan da, arautegi eta legerian oinarrituta, itzulera eta emigrazioan galtzen diren eskubideen hausnarketa sakona egin da, hemendik aurrera lan egiten jarraitzeko erreminta erabilgarri bat sortuz.
- 8/1004 legea ezagutzeak ate garrantzitsu bat ireki du, eta itzulera protokoloa administrazioarekin batera gazteen eskubideen alde lan egiteko aukera ona izan eta zango da.

1.3 OROKORRA

1.3.1 Posizionamendu publikoak: lan istripuak eta gaztetxeak

Justifikazioa

Gazteriak eta gazteriaren proiektuen jasaten dituzten egoera eta baldintzek batzutan ondorio tamalgarriak dituzte. Ondorio hauek puntualak eta berriak ez direnean eta, ordez, tamalez periodikoki gertatzen direnean, EGK-k erantzun protokoloak martxan jartzen ditu, hauen bidez gertaerei erantzun azkarra eman ahal izateko.

Helburuak

Helburu orokorra:

Maiztasunez gertatzen diren eta gazteoi bereziki jotzen diguten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatu.

Helburu zehatzak:

- Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteen autogestioan oinarritutako proiektuek gizartea eraikitzeko duten garrantzia azpimarratu eta berauetan parte hartzeari babesa eman. Protokoloa komunikazio alorrera pasatu.
- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu. Protokoloa eguneratu eta batzarrean onartu.



Ekintzen jarraipena

GAZTETXEEN PROTOKOLOA:

Gaztetxe bat hutsarazi egiten zenean martxan jartzeko protokolo bat zen hau. 2015. urteko lehen hiruhilabetekoan zehar aktibo izan da, behin ere martxan jarri ez bada ere. Dena den, martxoan eginiko Batzar Orokorrek gehiengoz onartu zuen protokoloa bertan behera uztea, eta beraz, hurrengo hilabeteetan ez zaio jarraipenik egin. Gaur egun, EGK-k ez du gaztetxeen uztarazte baten aurrean modu bateratu eta arin batean erantzuteko protokolorik eta, beraz, Batzorde Iraunkorraren esku geratzen da.

LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA:

Laneko istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzarekin aktibatzen den protokoloa da hau. Urteko lehen hiruhilabetekoan protokoloari jarraipena egiteaz gain, hau hobetu eta gaurkotzeko proposamen bat egin izan da arlo teknikoan, enplegu lan taldean eta iraunkorrean kontrastatuz eta, azkenik, Batzar Orokorrean onartua izanik. Protokolo hau azken urteetan garatutako enplegu arloko diskurtsoari egokitu zaio eta martxan jartzen duten egoerak gehitu dira, hala nola, heriotza bat sortzen duten istripuez gain, zauri larriak sortzen dituzten lan istripuak gehituz. Urtean zehar, protokoloari jarraipena egin izan zaio, zorionez, lanpostuari egotzi dakizkiokeen arrazoien ondoriozko gazte langileen heriotzik egon ez delarik.

Ebaluaketa orokorra

- Protokoloak ez dira aktibatu behar izan, alde batetik, lanpostuari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik ez delako eman eta, bestetik, 2015.urtean uztarazi den gaztetxea behin gaztetxeen protokoloa aktibo ez zegoelarik eman zelako.
- Lan istripuen protokolo berriak gazteen lan baldintza berriak aurreikusi eta barneratzea lortu da, eta horrek gazteen egoera berezituari aurre egiteko baliagarria izango da.

1.3.2 Gazte-Label: gazteria politika publikoen kalitate zigilua

Justifikazioa

Gazteen perspektiba batetik, kolektibo honentzat zuzenduta dauden gazteria politika publikoen kontrastea egin eta kalifikatzeko sistema bat garatu nahi izan da, horretarako, gazte zein administrazioen parte-hartzea kontutan hartuz. Azken finean, gazteria politika publikoetan hobekuntzak egitea bilatzen da GazteLabelaren eskutik, eta hortaz, gazteen egoera hobetzeko ekarpenak egitea.

Helburuak

Helburu orokorra:

Gazteen perspektiba batetik, gazteria politika publikoak ebaluatu eta kalifikatzeko sistema bat garatu.

**Helburu zehatzak:**

- Ebaluaketa eta kalifikazio baldintzak era parte hartzaile batetan ezarri.
- Politika publikoak ebaluatuak izateko protokoloa ezarri.
- Gazte-Labelaren erreminta, izena eta diseinu grafikoa egin.

Ekintzen jarraipena**1. EUSKALITE-KIN HARREMANA:**

Proiektu hau diseinatu ahal izateko, lehenik eta behin, dagoeneko existitzen diren beste kalitate zigiluen formatua ezagutzea beharrezkoa izan da. Horretarako, Euskalit entitatearekin lehendabiziko bilera bat egin zen (marxoak 31), kalitatezko Q-a eta Bikain zigiluen funtzionamenduak ezagutzeko. Hortaz gain, Euskaliteko profesionalak GazteLabela garatzeko ideia eta ildoak zehazten lagundu zuten. Behin GazteLabelaren zirriborroa eginda zegoela, Euskalitekin berriro ere kontrastatu nahi izan zen (irailak 28).

2. GAZTELABEL-A:

Hainbat kalitate zigiluren funtzionamendua eta gazteria politikak hausnartzeko erreminta hausnartuta, GazteLabelaren marko pilotua garatu da.

Kontrasterako marko honek 24 azpifaktore barneratzen ditu, 6 faktore nagusitan banatuta: 1) egokitasuna eta egokitzapena, 2) baldintza berdintasuna, 3) gizartea eta iraunkortasuna, 4) emaitzak, 5) ebaluaketa eta hobekuntza eta 6) indarguneak.

Hortaz gain, metodologia eredu bat garatu da, kontraste prozesuan gazteak eta administrazioak batzeko aukera hartuz.

GazteLabelaren informazio guztia hemen:

Euskaraz: http://www.egk.org/adjuntos/PRENTSA/GAZTELABEL-web_Eusk.pdf

Gaztelaniaz: <http://www.egk.org/adjuntos/PRENTSA/GAZTELABEL-web-cast.pdf>

Markoa garatzeko hainbat eta hainbat kontraste bilera garatu izan dira, Euskalite-z gain, gazte elkarteekin eta Administrazio ezberdinetako gazteria sailekin kontrastatu da (Eusko Jaurlaritza, hiru Foru Aldundiak eta hiru kapitaletako Udalak).

Ikusi berria hemen:

<http://www.egk.org/es/%C3%9Altimas%20noticias/ver/618/EGK%20presenta%20a%20otra%20instituciones%20la%20iniciativa%20Gazte%20Label%20para%20la%20mejora%20de%20pol%C3%ADticas%20de%20juventud.html>

3. GAZTELEBELEKO KONTRASTE AGENTEEN FORMAZIOA:



GazteLabel metodologiaren kontraste agenteen izendapena aurrikusten da: alde batetik kontraste agenteak eta, bestetik administrazioetako arduradunak, horrela, elkarlanean beste administrazioen politikak ebaluatu eta hobekuntzak proposamenak egin dezaten.

Hau horrela izan dadin, kontraste agenteak metodologian formatu beharra dago, eta horretarako bi saio prestatu dira, bata gazteen ordutegietara egokitua eta bestea administrazioen ordutegietara egokitua.

Informazioa, hemen eskuragarri:

<http://www.egk.org/eus/Azken%20berriak/ikusi/637/EGK-k%20gazteria%20politika%20publikoen%20kontrastea%20egiteko%20formazio%20saiok%20antolatuko%20ditu%20abenduan.html>

4. GAZTELABEL PROZESU PILOTUA:

Behin GazteLabela garatuta, beharrezkoa da metodologia frogatzeko prozesu pilotu bat aurrera eramatea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak bere gazteentzako enplegu politikak eskaini ditu eta 2016rako prozesu pilotua Lehen Aukera programarekin garatzea espero da.

Ebaluaketa orokorra

- Garatutako GazteLabelaren metodologia kalitatezkoa da eta bai adituekin eta baita gazteekin kontrastaturikoa izan da. Espero da metodologia honek kontraste prozesuak garden eta erraz egitea baina, hortaz gain, beste balio erantzitza bat duela iritzi da: gazteriarentzako enplegu politika publikoen diseinurako gidalerroak ezartzeko balio izatea.
- Goiz da GazteLabelaren erabilgarritasuna baloratzea, izan ere, oraindik ez baita lehen prozesu pilotoa gauzatu. Hala ere, administrazioaren partez onarpen zabala izan du eta horrek, inplantazioaren bidea erraztuko duela espero da.

1.3.3 Eguneroko lana

Justifikazioa

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

Helburu orokorra:

EGKren funtzionamendua bermatu beste lan eremuekin elkarlane egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

Helburu zehatzak:

- Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.
- Gazteriaren Euskal Behatokiarekin antolatutako ikastaroa garatu.
- Langile berriaren lan deialdian lagundu eta erreleboa eman.



Ekintzen jarraipena

1. GASTEIZKO GAZTE PLANAREN JARRAIPENA:

EGK-k Gasteizko udalarekin duen hitzarmenaren baitan administrazio honen GaztePlanaren jarraipena egitea hitzartu da. Hortaz, Gazte Plan orokorraren jarraipena egin izan da teknikari ezberdinen artean Gasteizko parte-hartze teknikaririk ez dagoenetik eta, bereziki, enplegua eta etxebizitza politikei dagokien jarraipena egin zaie. Horretarako, besteak beste, "lehen lan esperientzia" neurriaren bigarren deialdiari ekarpenak egin izan zaizkio (maiatzak 28 izan zen bilera).

2. EUSKAL GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA:

Azken hiru urteetan bezala, aurten ere, Euskal Gazteak Lankidetzan programaren hautaketa epaimahaian parte hartu izan da. Epaimahai honetan proiektuak aurkezten dituzten GGKEetako hainbat kidek parte hartzen dute, eta hauetaz gain, Eusko Jaurlaritzako Gazteria saileko kide batek, Garapenerako Lankidetzako Agentziako kide batek eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko beste kide batek ere.

Hautaketa prozesuak hiru fase izan ditu (bata egun bakarrekoa eta bi asteburu osokoak) eta ebaluazio faseak asteburu bateko fase bakarra.

Informazio gehiago Gazteukera webgunean:

<http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-65250/eu/>

3. TEKNIKARI ALDAKETA ETA ERRELEBOA:

2015. urte bukaeran Enplegu eta Etxebizitza alorrak teknikari aldaketa izan du. Horretarako, teknikari berriaren hautaketa prozesua diseinatu, jarraitu eta, azkenik, langile berriaren erreleboa egin behar izan da. Hau 2016an lanean hasiko den arren, dokumentazioa, programazioa eta informazioa eskuragarri usteko lana hartu da, ahal den heinean teknikari aldaketak lan ildoak ez ditzan kaltetu, eta ordez, bai indartu.

3. BESTE ARLOEKIN LANKIDETZA:

EGKko eguneroko lana aurrera ateratzeko ezinbestekoa da arlo guztietako arduradunen lana, bai bakoitzaren arloan eta baita besteen arloetan gauzatzen diren ekimenetan zeharka edo zuzenean ere. 2015. urteari dagokionez, bereziki berdintasun arloan egin izan da lan, izan ere, lan arlo honek ez baitu teknikaririk izan hainbat hilabetetan zehar, eta zegokion lana beste kideen artean banatu behar izan da, besteak beste, berdintasun txostena zuzendu, kudeatu eta maketatzea eta 2016. urterako Emakunderekin egin nahi den elkarlana kudeatzea (ikus berditasun atala).

Hortaz gain, Gazteriaren Euskal Behatokian eskaini izan den ikastaroan parte hartu da (ikus parte-hartze atala), hainbat eragile ezberdinekin lankidetzaren edo harremana kudeatu da eta, azkenik, aholkularitza eman izan zaie eskatu duten pertsona eta elkarteei (ikus parte-hartze atala)



3. EUROPAKO LEGEBILTZARRA:

Irailaren 30etik urriaren 2ra arte, Bruselaseko Europar Legebiltzarrera antolatutako bidai batean parte hartu zen, Espainiako Gazteriaren Kontseiluak eta Holandako Gazteen Kontseilu moduko batek kudeatutako esperientzia trukaketa batean. Bertan, gazteriari eragiten dioten europar politika publikoak ezagutu eta europako beste lurralde ezberdinetan bizi diren gazteen bizi baldintzak kontrastatu ziren. Hortaz gain, EGK-k euskal eurolegebiltzarkideei Kontseiluak azken garaian enplegu arloan garatutako txostenak helarazi eta Gazte Eztabaidan parte hartzera gonbidatu zituen.

Ebaluaketa osoa

2015.urtean zehar EGK-k lan oparoa egin du eta horretarako zeharkako lan handia egin behar izan da. Barne lan dinamikak egonkortu dira eta barne komunikazio protokoloak bete dira.



2. HEZKUNTZA

2.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1.1 Astialdi Foroen Koordinazioa

Justifikazioa

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da, lurralde bakoitzean talde autonomo batean funtzionatzen duelarik. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio-bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Une honetan astialdiaren esparruan ematen ari diren aldaketak direla medio, garrantzitsua da eragileen arteko sendotasuna eta koordinazioa indartzea instituzioen aurrean iritzi eta posizionamendu bateratua izateko.

Helburuak

Helburu orokorra:

Astialdian lan egiten duten elkarte eta eragileekin batera esparru honen garapenerako aurrera eramaten diren ekimen eta proiektuak babestu, sustatu eta ezagutzera eman administrazioen arteko bitartekaritza bideratuz.

Helburu zehatzak:

- Astialdi Foroko lan taldea sendotu eta eragile gehiagoren parte-hartzea sustatu.
- Eragile eta elkarteen arteko esperientzia eta beharrak trukatu.
- Elkarte eta erakunde publikoen arteko zubi lana bideratu.
- Astialdiaren eta boluntariotzaren zabalpena eta aldarrikapena.

Ekintzen jarraipena

Hiru astialdi foroen arteko koordinazioa burutzeko, hilabetero, koordinazio bilerak burutu egin dira lurralde bakoitzean bertako elkarte eta eragileekin. Foro bakoitzean astialdiko eskolak, federazioak eta taldeak bildu egin dira.

Lurralde bakoitzean eragile kopurua ezberdina da:

- **Araban**, 7 elkartek hartzen dute parte jarraikortasunez: Atsedean eskola, Arduradun eskola, Gazteen gurutze gorriko astialdiko eskola, Atsedean taldeak, Euskalerriko eskautak araba, Arabako eskaut laikoa eta azterlariak. Bilera batzuetan Itaka-eskolapioak eta accion 21 eskolak hartu dute parte.
- **Bizkaian**, 12 elkartek hartzen dute parte jarraikortasunez: Urtxintxa eskola, Itaka escolapios fundazioa, Gaztetxo eskola, Aisiola eskola, Kurkudi, Bizkaiko gaztetxoen koordinakundea, Bosko taldea federazioa, Euskalerriko eskautak Bizkaia, Kiribil sarea, Amarauna sarea, Aisi-hezi fundazioa eta EDE fundazioa. Gazteen gurutze gorriko astialdi eskola aurten bilera bakarrera baino ez da etorri.
- **Gipuzkoan**, 6 elkartek hartzen dute parte jarraikortasunez: Bosko taldea, Larrunarri eskola, Urtxintxa eskola, Hezkide eskola, Mundo Nuevo eta Eziko.



Aurten Gipuzkoako Gazteen gurutze gorriko astialdi eskola urteko azkeneko bilerara etorri da.

Hiru Foroetako elkarren arteko ekimenen artean aurtengo Astialdi Foroko aurkezpen bideoa dago aipagarri. Astialdi Foroa zer den ondo azaltzen duen bideo bat osatu egin da eta euskarri moduan erabili da webgunean lan-taldearen inguruko informazioa errazago zabaltzeko. Honen zabalpena martxoaren 26an burutu egin da.

Bestetik, harreman berriak sortzerakoan, material erabilgarria izango da Foroaren funtzioak zeintzuk diren ezagutzera emateko.

Bideoa ezagutzera emateko albistea: <http://goo.gl/epiyXR>

Bideoa ikusteko esteka: <https://www.youtube.com/watch?v=2lodkwbzuz0>

2015 urtean zehar burutako ekimen nabarmenak lurraldeka zehaztuta hurrengo hauek izan dira:

ARABAKO ASTIALDI FOROA:

2015ean aurrera eramán diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Azaroaren 7an, Gasteizko udalarekin batera **zuhaitz landaketa** bat burutu egin da Lermenda inguruan Astialdi Foroko eragileekin batera. Egun honen koordinazioa EGK-ko hezkuntza teknikariaren eta udaleko gazte planeko teknikariarekin batera burutu da. Koordinazio honetan astialdiko eragileen erantzuna ezinbestekoa izan da. Ekimenean guztira, 400 pertsona baino gehiago bildu ziren bertan haur, gazte eta begirale boluntarioen artean.
- Azaroaren 19an, eragileekin batera el Pilarreko gizarte etxean. Bertan Araban eragina duten **astialdiko elkarten esperientziak elkartrukatu** egin ziren barne-hausnarketa txiki bat eginez: ze ahultasun eta hobetzeko ze atal dauden azpimarratuz eta baita beste eragileetatik ezberdintzen diren ezaugarriak ezagutzera emateko.
- Abenduaren 5ean **nazioarteko boluntarioritza eguna** izanda, zabalpen kanpaina handi bat burutu egin da udalak eskainitako aurrekontu bati esker. Boluntarioek 30 kantinplora erraldoi banatu egin zituzten Gasteiztik jendearen arreta bereganatzeko abenduaren lehenengo astean zehar. Horretaz gain, abenduaren 4an prentsaurreko bat eman zen Iñaki Prusilla Gasteizko udaleko zinegotziarekin batera eta hor boluntarioek egindako bideo bat ezagutzera eman zen: <http://bit.ly/1NkxJMZ> Bideoak 400 bisita baino gehiago izan ditu bizpahiru egunetan.
- Aurten lehenengo aldiz astialdi taldeen **udako kanpaina** www.asialdiforooa.org webgunean jaso egin da. Honekin batera iaz sortutako informazio triptikoa ere zabaldu egin da eta pdf-an jasotako informazioa ere ezagutzera eman da. Aurten 16 taldek antolatutako 16 egonaldi plazaratu dira. (Iaz baino talde bat gutxiago eta egonaldi kopuru berdina).
- **Astialdi Forora elkarte berriak** sartzeko ahaleginekin jarraitu egin da foroan eta aurten Arabako Itaka-eskolapioak Astialdi Foroa ezagutzera hurbiltzea lortu da. Zenbait ekimenean parte-hartzen hasi da irailetik aurrera.



- **Kualifikazioek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre eginez, eskolen arteko elkarlanean jarraitu da foro ko kezka nabarmena bilakatuz. (astialdiko eskolen etorkizuna atalean garatua)

BIZKAIKO ASTIALDI FOROA:

2015ean aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen udako ekintzak www.astialdiforoo.org atarian azaldu izan dira lehenengo aldiz. Informazio hau buletin eta helbide ezberdinetara bidali egin da. Aurtengo Bizkaiko udako kanpainan, 42 elkarte burututako 72 kanpaleku agertu dira. (iaz baino 3 elkar te gehiago eta 9 ekintza gutxiago jaso izan dira)
- Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarritako “Hezkuntza eta Aisialdia” prozesuaren azken topaketa burutu egin da. Bertan, dinamika ezberdinak planteatu izan dira eta amaieran prozesuaren ondorio txostena banatu egin da parte-hartzaile guztien artean. Prozesuaren jarraikortasunean jarri da indarra. Honekin lotuta Bizkaiko astialdi foro ko elkarteek astialdiko garapenerako 29 proposamen jasotzen dituen dokumentua adostu eta BFA-ko gazteria zuzendaria aurkeztu egin da.
- Eskolei eragiten dieten gaiak lantzeko Bizkaiko Astialdi Foroko bilera bukatzean bildu izan dira eskoletako ordezkariak. Kualifikazioen sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da.

GIPUZKOAKO ASTIALDI FOROA:

2015ean aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen udako ekintzen zabalpena Arabakoa eta Bizkaikoa bezala, aurtengo astialdi foro ko atarian izan da. Aurtengo Gipuzkoako datuak hauek izan dira: Gidan, 22 elkarte burututako 35 kanpaleku agertu dira (iaz baino 2 elkar te eta 10 ekintza gutxiago)
- Gipuzkoako Astialdi Foroan elkar te gehiagoren parte-hartzea lortu da. Alde batetik Bosko taldea federazioa berriro ere ordezkartza izatea eta Gazteen Gurutze gorria azkeneko bilerara hurbiltzea. Elkar te hauek Foroan jarraikortasuna izateko bideak bilatuko dira.
- Kualifikazio berriek sortuko duten eszenatoki berriari aurre egiteko eskolen arteko elkarlana aurrera eraman da. Foro ko ordezkartza gehiena eskolena izanda gai hau hiler o landu egin da. Koordinazio bilerez gain, EJ eta Lanbiderekin bilerak pare bat burutu dira urtean zehar informazio askorik gabe.

2.1.2 Astialdiko ikastaroen kanpaina

Justifikazioa

Astialdiko begirale, zuzendari edota gizarte animatzaile izateko ikastaroen eskaintza zabaltzen dute EAE-ko astialdiko eskolek. EGK informazio horren jasoketa eta difusioa burutu egin du. Aurtengo berezitasun moduan, informazioa irailean soilik zabaltzea behar izan da, uztailaren deialdiaren aurrerapenaren albiste txiki bat sortu du. Horrekin gazteei irailera arte ikastaroetan izena emateko epea zabalik zegoela gogorarazi nahi izan da.



Helburuak

Helburu orokorra:

Astialdiko eskolen kalitatezko hezkuntza aldarrikatzea bere metodologia eredia ezagutzera emanez eta eskaintzen informazioa zabalduz.

Helburu zehatzak:

- Gazteen artean ikastaroen informazioa eta formakuntza lana ezagutzera ematea
- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Ekintzen jarraipena

1. ASTIALDIKO IKASTAROEN ESKAINTZA JASO:

Astialdi Foroan Euskadi mailako astialdi eskolek haien ikastaroak www.astialdiforooa.org webgunean argitaratu dituzte bigarren aldiz, gida interaktibo baten bitartez. Ikastaroen informazio zehatza eskaini da: ordutegia, epeak, hizkuntza... eta interaktiboa izanda, eskolen webguneak eta helbide elektronikoak klik baten bitartez eskuragarri zeuden. Astialdi Foroko webgunean argitaratzeaz gain, EGK-ko webgunean eta sare sozialetan ere zabaldu da. Eskaintza honetan 17 eskolek eskainitako 50 ikastaro ezberdin jasotzen dira astialdiko begirale, zuzendari eta gizarte-animatzaile izateko aukera eskainiz.

2. ASTIALDIKO IKASTAROEN ZABALPENA:

Eskolen eskaintza zabaldu, eta ikastaroen gida sortzeaz gain, aurreko deialdien zabalpenerako sortutako bideoak berriro ere gizarteratu dira. Oraindik ere, aste batean begirale ikastaroa kanpora egitera joaten diren gazteak daude. "Express ikastaro" hauen arrakastaren argiak eta itzalak ezagutzera eman nahi dira gure Astialdi Foroko eskolen astialdia ulertzeko moduarekin bat ez datorrela aldarrikatuz. Horretarako, [Youtubeko lau bideoak](#): "Behar duzun denbora hartu astialdiko hezitzaile izateko" lelopean hedatu dira berriz ere.. Modu horretan, Euskal gazteriari hemengo eskoletan hezteko dei egin nahi izan zaie.

3. ASTIALDIKO IKASTAROEI LOTUTAKO AHOLKULARITZA KUDEATU:

Astialdiko formakuntza eskaintzaren zabalpenarekin batera, gai honi lotutako zalantzen kudeaketa proiektu honen beste atal bat da. Astialdiko webgunearen bitartez, gazteek haien zalantzak plazaratzeko aukera izan dute bertan azaltzen den "buzoia"-ren bitartez.

Ebaluaketa orokorra

Eskolen eskaintza modu interaktiboan gizarteratzeak harrera ona izan du, eta horren froga dira webgunean, irailean zehar jasotako 1157 bisitak. Udako kanpainaren ondoren jasotako bisita kopururik altuena izanda. Webgunekeo mezuen zerbitzua gazte askok erabili izan dute eta horrekin batera informazio pertsonalizatua luzatu ahal izan dugu gazteen artean. Hurrengo urtera begira webgunekeo aplikazioa hobetzeko proposamenak jaso egin dira: eskola bakoitzeko miniatura bat sortzea ikastaro bakoitzeko baino (miniaturetan eskolen logoa azaltzen denez, erratzeko aukera emango luke informazio berdina dela ulertzea emanez).



2.1.3 Udako kanpaina

Justifikazioa



Kontseiluak urtero bezala, astialdi taldeek antolatzen dituzten udako ekintzen zabalpena burutzen du Astialdi Foroko eragileekin batera. Kanpaina honekin batera astialdiko elkarte boluntarioek antolatzen dituzten ekintzen zerrenda bat osatzen da instituzioek antolatzen dituzten ekintzez gain bestelako udalekuak daudela ezagutzera emateko. Aurten lehenengo aldiz, www.astialdiforooa.org atarian zabaldu egin da informazioa aplikazio berezi baten bitartez eta lurraldeko bilatzaile batekin.

Helburuak

Helburu orokorra:

Astialdiko elkarte boluntarioek antolatzen dituzten udako ekintzak gizarteratzea eta ezagutzera ematea, urte osoan zehar egiten duten lana ahaztu gabe eta honen aitortzea bilatuz.

Helburu zehatzak:

- Astialdi taldeetako udako ekintzen zabalpena egitea
- Lurraldeko astialdi taldeak ezagutzera ematea
- Boluntario gazteen lana aintzat hartzea

Ekintzen jarraipena

2015eko aurtengo zabalpenean 80 elkartek antolatutako 123 ekintza ezberdinen zabalpena egin da.

1. UDAKO EKINTZEN ZERRENDA SORTU ETA WEBGUNEAN JASO:

Iaz udako ekintzen esku-orria digitalizatzea erabaki zen baina aurten izan da lehenengo aldia informazio hau www.astialdiforooa.org atarian argitaratu dena. Jasotako ekintzak banan-banan argitaratu egin dira. Aurten Hosting-ari eragin dion birus baten ondorioz igotako informazioa galdu egin da eta ezin izan da hori berreskuratu. Honetaz gain, informazio guztia biltzen dituzten pdf-ak ere eskegi dira toki berdinean, nahi izanez gero dokumentuak deskargatzeko aukera zegoen lurralde bakoitzeko elkarteek antolatutako ekintzak ezagutzeko. Aipatutako euskarriez gain, iaz sortutako informazio triptikoak jendearen eskura egon dira hiru bulegoetan zehar baita banatutako administrazio eta espazioetan.

2. ZABALPENEA:

Difusiorako bide berdinak erabili izan dira nahiz eta aurten astialdi foroaren webguneari protagonismo gehiago eman. EGK-k dituen zabalpenerako medioak erabili dira komunikazio teknikariarekin koordinatuz. Webgune eta buletinetan informazioa zabaldu egin da: gipuzkoangazte, gizalde, bolunta, bat egin... Hau guztiaz gain, kontsulta espezifikoa jaso egin dira eta behin informazioa argitaratuta jakinarazi egin zaie email bitartez. Beste



urte batzuetan baino telefono dei izan dira eta webgunearen bitartez mezu asko jaso dira informazio eske. Hori dena hezkuntza teknikariaren bitartez bideratu egin da.

Ebaluaketa orokorra

Aurten udako ekintzen eskaintzaren argitalpena beranduago zabaldu izan da, maiatzaren 5ean hain zuzen ere. Aste Santuko opor tarte aurreratu izanak, ez du elkarten koordinazioan lagundu, hori dela eta prozesua mantsotu egin da. Horretaz gain, aplikazio berrian informazio guztia txertatu behar izateak lan handiagoa suposatu egin du teknikariarentzat eta nahiz eta lana aurreratu lan-ordu asko suposatu ditu. Hurrengo urtera begira elkarteekin informazioa denborarekin kudeatu eta transmititzeko estrategiak bilatu nahi dira baita teknikariari hainbesterako lana ez suposatzeke ere.

2.1.4 Astialdi Foroko webgunea

Justifikazioa

Astialdi Foroko webgunea, astialdiko eragile, boluntario eta gazteen artean astialdiko gaien bilgunea eta tresna da. 2014ko irailetik martxan dago eta denbora tarte honetan zehar webgunearen kudeaketa eta hobekuntza lanak burutu izan dira ahalik eta informazio eguneratua ezagutzera emateko asmoz.

Helburuak

Helburu orokorra:

Astialdiaren arloko informazio eta proiektuen inguruko zabalpena indartzea eta gune erreferentea bilakatzea arloko gazte eta elkarten artean.

Helburu zehatzak:

- Astialdi elkarteak ezagutzera ematea
- Astialdi Foroko eragileen lana jendarteratzea
- Atari dinamiko eta erabilgarria izatea

Ekintzen jarraipena

1. WEBGUNEAN JASOTAKO ALBISTEAK:

2015 urte honetan zehar hauek izan dira astialdiko webgunean jaso izan diren albistek:

- Elkarten aurkezpenak: Astialdi Foroa osatzen duten elkarteak ezagutzera emateko 2014 urtean zehar hasitako zabalpenaren jarraipena eman da. 3 elkarten aurkezpena burutu izan da 2015ean zehar.
- Astialdi Foroko bideoa: Bideoaren aurrerapena: <http://bit.ly/1IE78vk> eta bideoaren zabalpena: <http://bit.ly/1NUHaWU>
- Udako ekintzen zabalpena: <http://bit.ly/1jNEZq1>
- Ikastaroen eskaintza: Aurrerapena: <http://bit.ly/1NhPB8X> eta kanpainaren zabalpena: <http://bit.ly/1Ohs1cm>
- Boluntariora kanpaina: <http://bit.ly/1NFHFC8>
- Haurren Nazioarteko eguna: <http://bit.ly/1YY0wvS>



2. ATAL BERRIAK SORTU (BALIABIDEAK):

Eragileon beharrei erantzunez, aurten atal berri bat sortu egin da webgunean “baliabideak”. Bertan eragile ezberdinek astialdiko elkarteei mesederako dituzten material eta gelen lagapen zerbitzuak ezagutzera eman dira, baita material didaktiko ezberdinak ere edota webgune interesgarriak. Atal hau etengabeko eguneraketa prozesuan dabil.

3. WEBGUNEKO BISITA MUGIMENDUAK:

Aurten Google Analytics tresnaren bitartez Astialdi Foroko webgunearen erabiltzaile eta bisita kopurua neurtu egin da egunero. Horri esker atariaren jarraipen erreala egiteko aukera izan dugu.

Urteko datuen laburpena taula honetan jasota dago:

HILABETEA	BISITAK	ERABILTZAILEAK
Urtarrila	579	378
Otsaila	411	348
Martxoa	753	658
Apirila	842	749
Maiatza	1423	1320
Ekaina	1094	990
Uztaila	1446	1344
Abuztua	1115	976
Iraila	1157	1055
Urria	554	496
Azaroa	780	669
Abendua	-	-
GUZTIRA (abenduko datuak izan ezik)	10154	8983

Ebaluaketa orokorra

Aurreko urtearekin alderatuta, markak hautsi egin dira guztiz, 4 hilabeteetan zehar jasotako bisita kopurua aurten hilabete bakar batean jaso. Hurrengo urtera begira webgunean edukiz betetzea izan da hausnarketarik sakonena. Datuek argi utzi dute webgunean mugimendua dagoen bitartean jendeak bertako informazioa kontsultatzen duela. Horren harira, hilabeteen behin egun bereziei arreta jartzea erabaki da eta azarotik aurrera filosofia hori ezarri egin dugu: azaroan haurren nazioarteko egunean eta abenduaren 5ean boluntariotzaren nazioarteko egunean. Hurrengo urterako bisita kopuruak gaintitzea izango da erronketako bat webgunean ahalik eta informazio gehien eguneratzearekin batera.

2.1.5 Astialdiko eskolen etorkizuna

Justifikazioa

EAE-ko astialdi eskolek Lanbideko formakuntza zentro izateko eskaera eta formakuntza dekretuen aldaketaren tematikak lantzeko aholkularitza eta koordinazio lanak administrazioarekin batera aurrera eramateko lanak egin dira.



Helburuak

Helburu orokorra:

Astialdiko eskolen aldaketa prozesuaren inguruko informazio eguneratu izan eskolei beharrezko aholkularitza emateko haien eskubideak defendatuz.

Helburu zehatzak:

- Astialdiko eskolen legediaren inguruko informazioa jaso
- Eskolak Lanbideko formakuntza zentro bilakatzea

Ekintzen jarraipena

Bai Eusko Jaurlaritza, Lanbide eta Aldundiekin bilera ezberdinak burutu egin dira 2015ean zehar eskolen etorkizuna argitzeko helburuarekin. Hauek hemen zehazten dira:

- **Urtarrilak 20 - Lanbiderekin bilera.** Astialdi Foroko 2 eskola eta EGK-ko hezkuntza teknikaria. Lanbideko formakuntza zentro izateko jarraibideak zeintzuk ziren argitzeko eta formulario berrien informazioa jasotzeko.
- **Maiatzak 21 - EAE-ko eskolen bilera Lakuan** (Eusko Jaurlaritza eta Lanbiderekin batera). Bertan dekretuen zirriborroa entregatu egiten zaie eragileei.
- **Ekainak 10 - eskolen bilera Lauaxetan** eskolen dekretuaren inguruko ekarpenak jaso eta iritzi bateratu bat adosteko.

Ebaluaketa orokorra

Eskolen etorkizunaren inguruan aurrerapausoak emateko indarra egin da EGK-tik eta baita Astialdi Forotik ere. Eusko Jaurlaritza eta Lanbideren atzetik ibili izanak ez du lagundu prozesuaren koordinazioan. Ebaluatzerako orduan egia da pauso txikiak eman direla baina administrazio eta eskolen arteko harremana ez da hoberena izan. Hurrengo urtera begira prozesuak daukan garrantzia azpimarratzeaz gain, prozesuan murgilduta dauden eragile guztien arteko benetako lan-saio partekatuak burutzea izango da helburua elkarlanerako bideak eraikiz.

2.1.6 Boluntariotza argazki lehiaketa

Justifikazioa

Urte honetan zehar astialdiko udako ekintzekin eta ikastaroekin ez denez inolako ekintzarik aurreikusi, aurten boluntariotzari beharrezko protagonismoa eskaintzea izan da lehiaketa moduan aurkeztutako kanpaina honen ardatza. Honekin batera, abenduaren 5ean nazioarteko boluntariotza eguna ospatzen dela gizarteratu nahi izan da.





Helburuak

Helburu orokorra:

Boluntarioek urtean zehar egiten duten lana gizarteratzea eta hauen lanaren errekonozimendu bat gauzatzea hezkuntza prozesu honetako esperientzian oinarritutako metodologia eta hezkuntza ereduaren adierazle den balio erantsia ahaztu gabe.

Helburu zehatzak:

- Abenduaren 5a nazioarteko boluntariotza eguna gizarteratu.
- Astialdiko eragile zein elkarte boluntarioei protagonismoa eman.
- Irudien eta hitzen bitartez astialdiko ekintzak eta esperientziak ezagutzera eman.

Ekintzen jarraipena

1. LEHIAKETA MARTXAN JARRI:

Astaldi Foroetako eragileek proposatutako ekimena izanda, haiekin batera lehiaketaren nondik norakoak aurredefinitu egin dira eta ondoren komunikazio teknikariarekin batera oinarriak kudeatu eta sortu. Lehiaketaren berri bai EGK-ko zein astialdi foroko webgunearen bitartez ezagutzera eman da. Horietaz gain betiko difusiorako bideak erabili dira baina kasu honetan, udako ekintzen desplegablean parte hartu duten elkarten artean ere informazioa elkarbanatu egin da.

2. ARGAZKIEN JASOKETA:

Azaroaren 13tik abenduaren 4ra bitartean jaso egin dira elkarte eta boluntarioen argazki ezberdinak. Oinarrietan zehaztutako irizpideak kontuan izanda argazkien kudeaketa burutu da.

3. LEHIAKETAREN IRABAZLEA:

Argazkien irabazleen artean 2 elkarten izan dira sarituak: Itaka-Escolapios Fundazioa eta Betti Gottik euskara kultur taldea. Hori dela eta saria bi aukeratuen artean banatu egin da bakoitzak elkartearen erabiltzeko 150€ jasoz. Oinarrietan zehaztu den bezala, sariaren jarraipena egingo da elkarteak oparia zertan erabili duen jakiteko eta erabilera egoki bat bermatzeko. Bestetik, hasieratik jakinarazi egin den bezala, parte-hartzaile guztiek oparitxo bat jasoko dute.

4. ERAKUSKETAK:

Urtarrilean zehar, Bilbon, Gasteizen eta Donostian burutuko dira (tokiak oraindik zehazteke daude). Informazio guzti hau webgunearen bitartez ezagutzera eman da baita parte-hartzaileei zuzenean jakinarazi ere. Hona hemen albistearen esteka: <http://bit.ly/1ZciQSc>

Ebaluaketa orokorra

Urte pare batzuk igaro dira boluntariotzaren inguruan zabalpen ekintza zehatz bat burutzen ez denetik. Abenduaren 5ean nazioarteko boluntariotzaren eguna gizarteratzeaz gain, astialdiko elkarteek burutzen dituzten ekintzen berri emateko eta haien hitzetatik boluntariotza zer den eta ze onurak sortzen dituen jasotzeko aukera izan da lehiaketari esker. Hurrengo urtera begira, zabalpen handiagoa egite aldera, boluntariotza lantzen duten beste plataformekin indarrak batzeko proposamena jaso da.



2.2 HEZKUNTZA FORMALA

2.2.1 Hezkuntza foroa

Justifikazioa

Unibertsitateko taldeak eta ekimenak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arloko eragileekin batera (ikasle kontseilu, elkarte eta ikasleak) Hezkuntza Foroaren jarraikortasuna bermatu egin da 2015eko ikasturte honetan zehar proiektu behar eta erronka desberdinei erantzuna emanez.

Helburuak

Helburu orokorra:

Hezkuntza arloko eragileen arteko eztabaida eta elkarlanerako espazioa sortu gazteon hezkuntza eskubide eta beharrei erantzuna emanez eta arazoak gizarteratuz.

Helburu zehatzak:

- Ikasleen ahalduntzea piztu eta parte hartzea bultzatu.
- Ikasle elkarten arteko eztabaida eta elkarlana bideratu.
- Ikasle ahotsa administrazioei helarazi.

Ekintzen jarraipena

Aurten Hezkuntza Foroko eragileekin hilabetero bilera bat egitea lortu egin da, azterketa garaiak kenduta. Kanpora begira ez da lan asko egin, gehienbat ikasleen arteko eztabaidarako espazioa sortzea eta mantentzean jarri da indarra. Eragileon jarraikortasunarekin batera proiektu hauek dira garatu egin direnak:

- **“3+2” unibertsitate erreformaren aurkako manifestua:** <http://bit.ly/1R9uYC3> Hezkuntza Foroko lan-taldeak landutako eta adostutako manifestua izan da.
- **“Nahi dugun unibertsitatea” ekimena.** Foroak hasiera batean unibertsitateko ahotsa jasotzeko proiektua aurrera eramateko proposamena egin zuen baina aurrerago ezaugarri berdinak zituen ekimena aurrera eramango zela jakitean indarrak batu egin ziren Nahi dugun unibertsitatea ekimenean. (beherago proiektuaren nondik norakoak)
- **RECacciona bideo lehiaketa.** <http://bit.ly/1QeHBvq> Hezkuntza Foroarekin lehiaketaren zabalpena eta epaimahaiaren jarraipena landu egin da. Sari banaketan ere Foroko eragileak hartu zuten parte. Bertan jasotako ideiak foroan jaso eta eztabaidatu egin dira.
- **Garraio proiektua:** 2014ko twitter lehiaketan jasotako ideari erantzuna emanez gazteak ikasteko zer nolako gastuak dituzten aztertu egin da eta lurraldeen arteko desberdintasunak egotekotan zeintzuk diren zehaztu. Proiektu honen emaitza 2016-ko lehenengo hilabeteetan zehar emango da.
- **Heziberri 2020.** Heziberri 2020 marko teorikoa irakurri eta aztertu ondoren, hezkuntza dekretuen analisia egitera pasatuko dira administrazioari ikasleen ahotsa helarazi ahal izateko.



Ebaluaketa orokorra

Aurten Hezkuntza Foroan taldeko eragileen presentzia bermatzea lortu da eta bilera gehiago egin dira jarraikortasuna mantenduz. Heziberri proiektua lantzeak gazteen interesa gutxiagotu egin du askok irakaskuntza ikasketak hori aztertzeke behar direla egotzita. Hori dela eta foroaren interesak zeintzuk diren zehazteko saioa bat egin zen eta gazteen intereserako gaiak zeintzuk diren identifikatu egin dira: garraioa, hizkuntza (euskara), dirulaguntzak... Barne hasunarketa eginez Foroak bere aldarrikapenak gizarteratzeko indarguneak bilatu behar ditu egiten dituen proiektuei

2.2.2 Nahi dugun unibertsitatea proiektua

Justifikazioa

Nahi dugun unibertsitatea! Ikasleen arteko ahalduntzea, parte-hartzea eta elkarrizketa piztea helburu duen proiektua. Ikasleek unibertsitate ereduaren inguruan hausnartzeko eta nahi duten ereduak lortzeko proposamenak jaso, aztertu eta martxan jartzeko aukera luzatu egin du. Proiektu hau EGK eta Ehunberriren artean koordinatu egin izan da. Hasiera batetik Donostia 2016ko proiektuaren barruan kokatutako ekmena izanda Hezkuntza Foroko eragileekin batera sortu eta moldatu egin da ikasle mundura hurbiltzeko asmoz.



Helburuak

Helburu orokorra:

Unibertsitate esparruan gazteen arteko eztabaida-guneak sortu haien proposamenen bitartez unibertsitate ereduak berformulatu eta hobekuntzarako bideak eta ekimenak bideratu.

Helburu zehatzak:

- Ikasleen artean parte-hartzea sustatu
- Ikasleen arteko elkarlana koordinatu
- Jasotako proposamenak administrazioei helarazi.

Ekintzen jarraipena

1. PROIEKTUAREN ANTOLAKETA:

Ekimenari hasiera emateko, Xavi Minguez EHU-ko ikerlaria eta EGK-ko hezkuntza teknikaria 2015-2016 bitartean garatuko den proiektuaren faseak definitu zituzten. Guztira 6 fase bereizten ziren:

- UPV/EHUko campus bakoitzean **talde eragile bat eratzea**. (urriaren 20an, 21ean eta 22an)
- **Open Spaceko elkarrizketa-topaketak** egitea, campus bakoitzean. (azaroaren 17an, 24an eta 25ean).
- Hiru campusetako elkarrizketa-topaketen **emaitzak bilduko dituen dokumentua** egitea eta UPV/EHUko ikasleen artean banatzea.



- Open Spaceko **elkarrizketa-topaketak, bi egunekoak**, egitea UPV/EHUko ikasle guztiekin. (Donostian, 2016ko otsaila/martxoa)
- Elkarrizketa-topaketen **emaitzak bilduko dituen dokumentua** egitea, eta UPV/EHUko ikasleen artean banatzea.
- Unibertsitateko **elkarrizketa-topaketak antolatzea –ikasleak, irakasleak eta zuzendaritza-organoak–**. (2016ko maiatzean)

2. PROIEKTUAREN ZABALPENA:

Proiektuaren zabalpena egiteko ikasle kontseiluak, ikasle elkarteak, ikasleak, unibertsitatea, Hezkuntza Foroko eragileak,...eta EGK-k erabiltzen dituen bide ezberdinak. Asmo handiko proiektua izan da hau eta zabalpenean ez da eskatutako ikasleen parte hartze minimoa lortu. Hori dela eta ez dira aurreikusitako topaketak burutu. Ikasleen aldetik eximen interesgarria eta parte-hartzeko interesa azaldu egin da proiektua martxan jarri baino lehen baina momentuan bertan aitzakia ezberdinak izan dira (proiektuak, lanak, elkarteetako koordinazio falta...).

3. PROIEKTUAREN MOLDAKETA ETA GARAPENA:

Hausnarketa sakon baten ondoren proiektua aurrera ateratzeko egindako lana kontuan hartuta informazio jasoketa beste modu batean burutzeko apostua egin da eta lortu ere. Donostiako psikologia fakultateko irakasle bati proiektua aurkeztu eta bere 3 klaseetan ikasleekin proposatutako dinamiken bitartez informazio jasoketa burutzeko aukera luzatu zuen. Hori dela eta, bi orduko 3 saioa planteatu dira:

- **Lehenengo saioa:** arazoan identifikazioa (azaroaren 27an burutua)
- **Bigarren saioa:** arazoan ebazpena (abenduaren 11n burutzeko)
- **Hirugarren saioa:** proposamen zehatzak (abenduaren 18an burutzeko)

Hiru dinamiken artean oraingoz soilik bakarra burutu da. Saio guztien informazioa jaso ondoren 2016an zehar saioen txostena helaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari eta proiektuaren ibilbidea zein izan daitekeen zehaztuko da. Proposamen hauek hezkuntza foroko taldearekin kontrastatu eta lanerako gai posibleak egotekoan lantzeko aukera proposatu daiteke.

Hauek dira saio horretan identifikatutako arazo nagusienak:

- **Idazkaritzako harrera txarra:** geldoa, burokrazia gehiegi, telefonoz erantzun eskasa, ordutegia ez dago ikasleei egokituia...
- **WEB platarformak:** "GAUR" plataformaren erabilera ez da intuitiboa matrikulak egiterako orduan, EHU-ko webguneko informazioa eskasa da eta oso nahasia.
- **Ordutegiak:** ikasgai askoren artean ordutegia ez dago ondo egokituia, klaseen artean ez dago atseden txiki bat hartzeko aukerarik, matrikulan aukeratutako ordutegiak askotan aldatu egiten dira...
- **Ikasgaien edukia:** ikasgai batzuk materia gehiegi daukate eta ez dago denbora guztia emateko, beste batzuk ordea gutxiago daukate.
- **Komunikazio falta:** atal hau esparru ezberdinean ematen dela identifikatu egin da. Horien artean hauek dira aipagarrienak: irakasleen artean, fakultateen artean, ikasle-irakasleen artean...
- **Taldeak:** ikasle taldeak handiegiak dira. 50 pertsona baino gehiago daude geletan eta horrek ez du ahalbidetzen dinamika parte-hartzaileak egotea.



- **Materialak:** ikasgaietan ematen den material didaktikoa zaharkitua dago, power-point baliabidearen gehiegikeria irakasleengan, liburuak erostea eta gero erabili ez...
- **Espazioak:** unibertsitateko mahaiak ez dira talde-lana bultzatzeko aproposak, ezin dira mahaiak mugitu, ordenagailu gela gutxi, hutsik dauden gelak ez dira ikasleen esku uzten lanak egiteko...
- **Lan mundua:** lan munudarekin harremana duten eduki gutxi, errealitatearekin kontaktu gutxi, praktikak burutzeko laguntza gutxi...
- **Irakaslegoa:** irakasleak soilik power-pointak irakurtzen dituzte (hori baino gauza interesgarriagoak daude interneten gai horren inguruan ikasteko), teknologia berrietan aditua ez den irakasleria, konpromiso eta empatia gutxi ikasleekiko, edukien transmisioan garrantzi gehiago iritzi kritikoa garatzean baino...
- **Jarrerak:** ikasleek ezer ikasten ez dutenaren sentsazioa, irakaslegoaren artean konformismoa, ikasleria haien arazoak kaleratzeko gaitasunik ez...
- **Ebaluazio metodoak:** ez da ebaluazio jarraia ematen ikasleen akatsak hobetzeko, test-ak ez dira eraginkorrak, informazio gutxi ematen da eta gero azterketan gehiago exijitu.
- **Ikasleriaren ordezkariak:** ez daude bide asko ikasleek haien proposamenak helarazteko, ikasle ordezkariak ezin dute eskaera guztiei erantzun, ikasleen errealitateari ez zaio erantzuten, irakasleak ikasleen beharrak zeintzuk diren jakiteko espazioak sortu behar, ikasleen arteko mobilizazio falta haien helburuak lortzeko...
- **Lehiakortasuna:** ikasleen artean lehiakortasuna bultzatzen da elkarren arteko lankidetzara baino.

Ebaluaketa orokorra

Proiektuaren hasierako proposamena ikasleen parte-hartze eskasaren ondorioz egokitu behar izan da. Ikasleen ahotsa jasotzea lortu izan da Psikologiako fakultateetako ikasleei esker, baina ez dira 3 lurraldeetan burutu nahi ziren eztabaida gune handiak sortu. Kontraesanak daude ikasleen arteko diskurtsoan ikus daitekeen bezala: eztabaidarako espazioak ez daudela esaten da alde batetik eta bestetik ikasleen artean inmovilismoa dagoela. Jasotako ekarpen guzti hauek ondo aztertu nahi dira pixkanaka bada ere ikasleengan ahalduntzea landu ahal izateko eta aurrera egiteko aukera badago irakasleen bitartez ikasleen ahotsa jaso ahal izateko gerora Kontseiluaren bitartez administrazio eta unibertsitatei proposamenak helarazi eta ikasleen ahotsa ezagutzera eman ahal izateko. Proiektua Kontseiluaren eta Ehunberriren artean koordinatu behar izateak informazioaren zabalpenean kasu batzuetan informazio bikoitza heltzea ahalbidetu egin du.

2.2.3 Euskadiko Eskola Kontseilua

Justifikazioa

Euskadiko Eskola Kontseilua unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenena da. Bere Funtzioen artean, hauek dira aipagarrienak: EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arauetara buruzko irizpenak egitea, irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorra burutzea eta txostenak egitea.



Helburuak

Helburu orokorra:

Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteon ahotsa; kezkak eta ekarpenak plazaratzea.

Ekintzen jarraipena

- Urtarrilak 21 eta 22 - Eskola kontseiluko 25.urteurreneko jardunaldiak.
- Urtarrilak 27 - Eskola Kontseiluko bilera.
- Martxoak 3 - Eskola Kontseiluko bilera.

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte-hartzeaz gain, mezu elektronikoen bitartez jasotako dokumentuak irakurri eta aztertu egin dira ekarpen zehatzak eginez. Aurten, OPE deialdiari egindako ekarpenak helarazi egin dira Kontseilura. Iradokizun gehienak, merituen atalerako izan dira, irakasleriaren aukeraketa prozesuan kontuan har daitezten.

2.3 EGUNEROKOTASUNA

Justifikazioa

Arlo bakoitzaren lan zehatzetaz gain, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu egunero: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

Helburu orokorra:

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Ekintzen jarraipena

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak modu koordinatu batean garatu.



3. PARTE-HARTZEA

3.1 EUSKAL GAZTEEN BEHATOKIAREKIN ELKARLANA

3.1.1 Ikerketa kuantitatiboa

Justifikazioa

2014an Euskal Gazteen Behatokiaren (GEB) eta EGK-ren artean hasitako lankidetzak hainbat emaitza izan ditu. 2015ean praktikara eraman den “Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin” izena duen ikerketa harreman horren adibide da. Gazteen parte-hartzearen egoera analizatu egiten duen ikerketa hau telefono bidezko galdetegiaren bitartez gauzatu da eta datuak EAEko 1500 gazteren parte-hartzeari esker lortu dira (406k Araban, 602k Bizkaian eta 504k Gipuzkoan). Honez gain, EGK ikerketan jasotakoa azaltzen duen bideo bat egiten ari da, emaitzak gazteen artean zabaltzeko asmoarekin. Bideoa urtarrilean ikusteko aukera egongo da.

Helburuak

Helburu orokorra:

2013ko “Gazteak eta parte-hartzea” ikerketan egindako lanari sakontasuna ematea, diagnostikoari lotutako ikerketa berri baten bitartez. Horrez gain, 2014an GEB-rekin landutako eremu teorikoa eta galdetegia praktikara eramatea. Gazteen parte-hartzearen, balioen eta bizimoldeen gaineko diagnostikoa lortzea.

Helburu zehatzak:

- 2014an landutako metodologia eta galdetegia aplikatzea 1.500eko lagina duen landa-lanean.
- Gazteen Euskal Behatokiari (GEB) datuak ateratzen laguntzea.
- Datuetan oinarritutako ondorioen txostena idaztea GEBrekin batera.
- Datuetan oinarritutako bideo baterako ideiak lantzea eta zeregin honetan Komunikazio arloari laguntza ematea.

Ekintzen jarraipena

1. GAZTEAK ETA PARTE-HARTZE SOZIALA EUSKADIN IKERKETA BURUTZEA:

Urtarrilean hasitako landa-lana, telefono deien bitartez gauzatu da eta gazteei duten parte-hartzeaz galdetu zaie. Ondoren datu guztiak sistematizatu eta txosten bat osatu egin da ekaina eta abuztua bitartean.

- Ikerketaren datu esanguratsuenak urriaren 22an Jon Redondok (Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendariak) eta Itsaso Anduezak (EGKko lehendakariak) Euskal Gazteen Behatokian egindako prentsaurrekoan aurkeztu dituzte. EGBren weborrian ikusgai.
- Komunikabideei aurkeztu zaien informazioaren nondik norakoak Komunikazioko Lan Arloan dago azalduta.
- Abenduaren 15ean txosten osoa argitaratu da. GEB-ren weborrian ikus daiteke.



2. GAZTEAK ETA PARTE-HARTZE SOZIALA EUSKADIN BIDEOA EKOIZTEA:

Ikerketaren emaitzak modu dinamiko eta errez batean sozializatzeko asmoarekin maiatzetik aurrera bideoarako lehenengo ideiak planteatu dira.. Batzorde Iraunkorrak Rekkam enpresaren eskuetan utzi du bideoaren ekoizpena. Testu eta irudien gidoiari dagokionez, komunikazio teknikariaren laguntzarekin egin da. Abenduan, YouTube izango da ikusgai. Ikerketaren behin-betiko txostena argitaratu eta gero zabalduko da

Ebaluaketa orokorra

Oro har, ikerketaren ondorioak kalitatezkoak izan dira. Formatua eta edukiaren aldetik, Gazteen Euskal Behatokiarekin lankidetzari esker EGK-k tresna kuantitatiboa eta adierazgarria lortu du. Erreminta zientifikoa den neurrian, ikerketak EGK-ren jardueran eragin handia izan du eta izango du, gazteen parte-hartzea ulertzeko eta bultzatzeko tresna estrategikoa baita.

Bestalde, ikerketaren aurkezpena erantzun zabala eta ona jaso du, aipatu bezala hainbat komunikabidek ondorioen zabalpena egin dute. Txostenarekin gertatu den bezala, bideoa publikatzearekin batera elkarte eta gazteekin feedback-a sakontzea espero da.

2014an bezala, Gazteen Euskal Behatokiarekin aurrera eraman den lanaren garrantzia azpimarratzekoa da. Alde batetik, Euskadiko gazte esparruan aritzen diren bi erakunde nagusiak elkarlanean jarri direlako eta, bestetik, elkarrekin jarritako bi ikuspuntu ezberdin horiek gazteria ulertzeko kalitatezko etekin bat eman dutelako.

3.1.2 Prestakuntza tailerrak

Justifikazioa

Ikerketa kuantitatiboarekin batera eta GEB-ren plangintzaren baitan, EGK-k prestakuntza-tailerra antolatu du. Maiatzean, Kontseiluak “Gazteen parte-hartzerako tresnak” izena izan duen euskarazko tailerra eman du, bai Bilbon eta bai Donostian. Ikastaroak 10 ordu iraun ditu eta bi saiotan banatu da. Lan hau burutzeko talde tekniko osoaren inplikazioaz baliatu da parte-hartze arloa.

Helburuak

Helburu orokorra:

“Gazteen parte-hartzerako tresnak” ikastaroak gazteek parte-hartzeko eta parte ez hartzeko dituzten arazoak, moduak eta klabeak argitzen laguntzea du helburu.

Helburu zehatzak:

- Gazteen Parte-hartze arloan lan egiten duten profesionalekin aritzea.
- EGK-ren ibilbideaz baliatzea, adibide teoriko-praktikoak ezarriz.
- GEB-rekin elkarlanean aritzea eta harremana sakontzea.
- Gazteen parte-hartzearen inguruko ondorioak ateratzea.
- EGK-ren izaera praktikoa eta eraginkorra sendotzea.



Ekintzen jarraipena

Otsailetik maiatzera GEB-rekin eta talde teknikoarekin ikastaroaren edukia eta formatua prestatu dira. EGK-ko arlo guztiak inplikatu dira zeregin honetan.

- Maiatzaren 25ean eta 26an burutu da ikastaroa Bilboko Gazteen Euskal Behatokiko egoitzan, 21 lagun bildu dira.
- Maiatzaren 27an eta 28an Donostiako ikastaroaren gauzatu da. EGK-ko egoitzan, 20 lagun bildu ziren.



Ebaluaketa orokorra

Egindako lana baloratzeko GEB-eko eta EGK-ko arduradunak ekainaren 2an Bilbon elkartu ziren. Gaia zaila eta abstraktua izan arren, EGK-ren esfortzua eta profesionaltasuna ondo baloratu dira. Azken urteetako GEB-ko prestakuntza planeko ikastaro parte-hartuenetariko bat izan da, guztira 41 ikasle bildu ditu. Ikastaroan landutako gaiak, ikasleen ebaluaketak eta erabilitako materiala laburbiltzen dituen bideoa, lotura honetan eskuragarri dago: <http://www.gazteukera.euskadi.eus/albistea/2015/gazteen-parte-hartzerako-tresna-ikastaroaren-inguruko-elkarrizketa-balorazioa-eta-materiala/r58-7657/eu/#balorazioa>

3.2 GAZTEAK ETA PARTE-HARTZEA KIROLEAN

3.2.1 Gazteolinpiadak

Justifikazioa

Gazteria, parte-hartzea eta kirola betidanik elkarrekin ibili dira. Horregatik txikitatik “garrantzitsuena parte-hartzea” dela entzun izan dugu. Azken urteotan, gainera, kirolarekin zerikusia duen elkartegintza nagusitu da gazte taldeen artean. Orain arte EGK-k kirola eta inplikazio soziala lotu ez baditu ere, Parte-hartze arloko 2014ko azaroko Deialdi Irekian 2015ean gai hau lantzea onartu zen. Aurten EGK-k berezko bultzada eman dio kirolari eta partaidetzari, ekimen barne-hartzaile, berri eta parte-hartzaile baten bitartez.

Helburuak

Helburu orokorra:

GazteOlinpiadetako lehiaketek gazteen parte-hartzerako ondorioak eta gomendioak jasotzea izan dute helburu. Horretarako kirola tresna gisa erabili da. Honez gain, dinamika baten bitartez kirolak dituen balio sozialak eta parte-hartzaileak zein gazteen errealitaterako beste proposamenak lortzen ahalegindu da EGK.

Helburu zehatzak:

- Kirola parte-hartze modu bat bezala erakustea eta garatzea.
- Kirolaren bitartez balio parte-hartzaileak bultzatzea.
- Dinamiken baitan, gazteen iritzia eta proposamenak jasotzea, parte-hartzearen inguruko ondorioak eta gomendioak proposatu ahal izateko.



- Gazte mota guztientzako ekitaldi barne-hartzaileak izatea. Generoa, sexualitatea eta aniztasun funtzionala kontuan hartzea.
- EGK ezagutzera ematea.

Ekintzen jarraipena

Urtearen hasieratik, proiektua definitzeko asmoz, hainbat bilera eta lan saioak egin dira, besteak beste Gasteizen urtarrilaren 15ean Arabako Foru Aldundian. GazteOlinpiadak Gasteizen burutzeko proiektu sakon bat idatzi eta aurreikuspen ekonomikoa garatu eta gero Arabako Foru Aldundiak uko egin zion proiektuari eta urtarrilaren amaieran birplanteatu zen.

GazteOlinpiadak EAEko hiru hiriburuetan gauzatu dira eta horretarako, EGKk Ekhitarrak Kirol Klubarekin jarri da kontaktuan kirol ekintzen antolakuntzan aholkua jasotzeko. Proiektua urtarrilaren 21ean, martxoaren 25ean eta ekainaren 10ean egindako bileretan adostu da.

Apiriletik aurrera espazioak definitzeko hainbat bisita egin dira apirilaren 22an Gasteizko Mendizorrotzan, uztailaren 7an Bilboko Deustuko Kiroldegian eta uztailaren 23an Donostiako Manteo kiroldegian.

Bilboko Deustuko kiroldegian goalball txapelketa bat antolatu da. Irailaren 19ko ekintza honetan 57 gaztek parte hartu dute. Bertan bizitakoa laburbiltzen duen bideoa webgunean ikusgai dago.

Gasteizen saskibaloian jolastu dira Mendizorrotzako espazioan. Lehiaketa hau irailaren 26an izan da eta 70 gazte batu ditu. Egun horretan bizitako sentsazioak gogorarazteko bideoa webgunean ikusgai dago.

Donostian gazteak boleibolean aritu dira Manteo kiroldegian. Urriaren 17an aurrera eramanez ekintza honetan 45 bat gazte bildu dira. Bertan gertatutakoa erakusteko bideoa webgunean ikusgai dago.

Lehiaketak bukatzearekin batera txosten bat argitaratuko da urtarrilean. Kirola eta parte-hartzea sustatzen duten ekintza hauetan bildu diren gazteen iritziak eta balio parte-hartzaileak adierazteaz gain, ondorio eta gomendio batzuk proposatuko dira EGK eta administrazioentzat.



Ebaluaketa orokorra

Parte-hartzea eta kirolaren arteko harreman estua argi geratu da. Bata zein bestea baliabide eta helburu izan daitezke, kasuan kasu. Kirola parte-hartze soziala bultzatzeko erreminta paregabea dela argi geratu da, taldean aritzea ahalbidetzen duelako, taldekideek prozesuan funtzioak banatzen ikasten dutelako, erantzukizunak hartzen dituztelako, zenbait gaitasun garatzen dituztelako...

Bi arlo hauek, parte-hartzea eta kirola, batera jorratzea onuragarria dela bistakoa da eta



gazteek hainbat helburu lantzeko baliagarriak direla aipatu dute, besteak beste, helburu sozialak (jende berria ezagutzera, lagunak egitea, integratzea, ligatzea...) eta osasun fisiko eta emozionalari lotutako helburuak (izerdia botatzeak buruan bueltaka dituzten arazoak baretzeko aukera ematen du, alkoholik gabeko aisialdia posible egiten du...). Gainera, bai kirola eta bai parte-hartzea zenbait balore positiborekin lotzen dituzte, adibide dira elkartasuna, errespetua, laguntasuna, tolerantzia, e.a.

Prozesuan zehar hainbat talderekin harremanetan jarri da EGK, hala nola ONCEko Juventudes de Unidad Progresista, Bera Bera KE, Fortuna KE, La Merced KE, CD Padura eta beste hainbat. Ondorioz, gazte eta kirol elkarteekin dituen harremanak zabaldu eta sakondu ditu.

Gazteei dagokienez, aipatutako ekintzetan 167 gaztek parte hartu dute. Ekimen arrakastatsua izan dela esan daiteke, zenbakiak hala diotelako, hau da, gazte asko hurbildu delako. Baina arrakastatsua izan da baita ere partaideen ebaluaketei begira, gehiengoak errepikatuko zukeen dinamika.

3.3 GAZTEOK ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

3.3.1 Gazte Eztabaidak

Justifikazioa

Gaur egun, Politikarako testuingurua ez da batere ona, gazteen artean bereziki. Horregatik, azken urteotan parte-hartzearen izaera soziala eta *apartidista* azpimarratu izan da hainbat eremuetan, EGK barne. Halere, ezin da ukatu gazteengan eragina dituzten gai ekonomiko, sozial eta publikoak maila politikoan erabakitzen direla. Horregatik, EGK-ren ustez, gazteek politikatik urrundu beharrean politika egin beharko lukete. Alderdien bitartez eginiko politika aukera bat da baina gizarte eragileek edota norbanakoek ere politikan zeresana dute. Modu guztiak bezain zilegiak eta beharrezkoak direla erakusteko, "Gazteok eta parte-hartze politikoa" dinamikak praktikara eraman ditu aurten EGK-k, udal eta foru hauteskundeak eta hauteskunde orokorrak aprobetxatuz.

Helburuak

Helburu orokorra:

2015eko foru hauteskundeak eta hauteskunde orokorrak direla eta, ordezkari politikoak eta gazteak elkarrekin eztabaidatzera gonbidatzea. Modu horretan gazteei ordezkari politikoen eta hautagaien aurrean hitz egiteko aukera ematea. Bere aldetik, eragile politikoei ere testuinguru aproposa eskaintzea gazteen aurrean dituzten proposamenak eta erantzunak eman ditzaten.

Helburu zehatzak:

- Parte-hartze politiko-elektoralak bultzatzea gazteen artean.
- Gazteen eta ordezkari politikoen arteko elkarrizketa sustatzea.
- 2015eko hauteskundeetarako dauden aukera eta ideia ezberdinak zuzenean ezagutzeko aukera izatea.
- Gazteek euren proposamenak, kritikak galderak plazaratzeko aukera ematea.



Ekintzen jarraipena

1. MAIATZEKO UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEETAN PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO #GAZTEZTABAIDA:

Maiatzaren 11ko GaztEztabaidari dagozkion prestaketak otsailean hasi dira alderdiei parte-hartzeko gonbidapena eginez. Unai Rementeria (EAJ/PNV), Miren Larrion (EH Bildu), Carlos Fernández (PSE-EE), Gonzalo Zorrilla (PP), Roberto Uriarte (Podemos), Xabier Jiménez (IU-Irabazi) eta Santiago Sainz (C's) hizlariak bertaratu ziren. UPYDk ez du parte-hartu.



Eztabaida Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean egin da. Horretarako, bertako Ikasle Kontseiluarekin harremanak bideratu dira. Maiatzaren 6an Fakultateko dekanoarekin bilera egin da.

100 gazte baino gehiago aretora hurbiltzeaz gain beste 65k streaming bidez jarraipen egin dira. #GazteEztabaida traola Tending Topic euskaraz bihurtu zen Twitter sare sozialean. Orokorrean 39 galdera jaso ziren modu fisikoan edo WhatsApp-en bidez. Bideoa YouTubeen ikusgai dago eta 200 bat bisita lortu ditu.

Eztabaida amaitu ondoren WhatsApp bitartez jasotako galderak alderdi politikoei helarazi eta alderdiek emandako erantzunak "Gazteok hauteskundearen aurrean: alderdiei galderak" txostenean kontsultatu daitezke.

2. ABENDUKO HAUTESKUNDE OROKORRETAN PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO #GAZTEZTABAIDA:

Abenduaren 1an bigarren #GaztEztabaida bat antolatu da. Oraingoan Gasteizko Letren Fakultateko gradu aretoan. Alderdi politiko guztiei luzatu zaie gonbidapena eta hizlari etorri dira Leticia Comerón (PP), Jon Nogales (PSE-EE), Gotzon Elizburu (EHBILDU), Carlos Tejerizo (UNIDAD POPULAR), Juantxo Lopez de Uralde (PODEMOS-EQUO) eta Rodrigo Zamora (C's). UPYDko hautagaia, Rubén Martín arazo pribatu bat dela eta huts egin zuen etorrera baieztatu ondoren.



Gradu-aretoa 70 bat gazte hurbildu ziren. Egiturari dagokionez, ekitaldiak ordu eta erdi iraun du, gazteen galdera eta ekarpenei leku gehiago izan dute eta baliabide komunikatiboei dagokionez, Whatsapp eta Twitter erabili dira berriro ere, modu honetan 25 bat galdera helarazi dira eta #GaztEztabaida euskarazko traola tendentzia izan da berriro ere. Streaming bitartez emititu zen EHUKo weborrian eta EGKren weborrian lasterbidea topatu zitekeen. Gertatu zenaren bideoa YouTubeen dago ikusgai.

Komunikabideek egin zuten zabalpenaren gaineko informazioa Komunikazio Lan Arloan garatu da. Aurrekoan bezala alderdi politikoei galderak helaraziko zaizkie, hobesten duten moduan erantzun ditzaten.



Ebaluaketa orokorra

GaztEztabaida aurtengo EGK-ko ekintza arrakastatsuen artean kokatzen da. Alde batetik, edukia interesgarria eta kalitatezkoa izan da. Bestetik, gazteen asmo politiko berria jakitera eraman da, oihartzun soziala eta komunikatiboa lortuz. Azkenik, parte-hartzaileen kopuruaren aldetik ere ebaluaketa positiboa egin da, gazteengan iristeko gaitasuna ongi baloratuz: guztira ehunka gaztek eztabaidaren berri izan dute modu fisikoan edota sare sozialen bidez.

Zentzu berdinean, maiatzean EHUko arduradunekin ebaluaketa komuna egitean GaztEztabaidaren ondorio positiboak baloratu eta errepikatzeko aukera ikusita abendukoa antolatu da.

Gasteizen antolatu zen eztabaidari dagokionez, Francisco de Vitoria BHI eta Egibide Molinuevoko gizarte integrazio moduluko ikasleekin landutako harremana positibotzat hartzen da. Izan ere, dinamika aurkeztu zitzaizen eta ikasketa prozesuan interesgarria eta erabilgarria dela adostu dute irakasleek. Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan dinamikaren aurkezpena egin zen ere, Gazteria Politiken gaineko eztabaida espazio urriak direla eta EGKk egindako esfortzua eta dinamikaren originaltasuna txalotuz. Letra Fakultateko Ikasle Kontseiluarekin harremana bideratu bazen ere, lankidetzaz ez zen lortu.

3.3.2 “Gazteen lan mugikortasuna eta itzulera” topaketak

Justifikazioa

Krisiarekin batera egin diren hainbat erreformak gazteen lan-baldintzetan eragin zuzena izan dute. Egoera honen ondorioz, gazte askok atzerriratzeko erabakia hartu dute eta bizi duten egoeraren gaineko informazio gutxi dago. Atzerrian bizi diren gazteek egoera desberdinak dituzte, horietako batzuk itzultzeko nahia izango dute eta itzulera berme guztiekin egin dezaten estrategia bat osatzeko irizpideak beharrezkoak dira. EGKk interes berezia izan du gai honetan eta gazteen egoera ezagutzeko saiakera desberdinak egin ditu. “Gazteen lan mugikortasuna eta itzulera” jardunaldiaren bitartez mugikortasun politikak landu nahi izan dira politikari, teknikari eta gazteekin batera. Izan ere, hiru aktore hauen arteko harremana bilatu egin da, ikuspegi desberdinen arteko eztabaida bultzatzeko eta izan ditzaketen ideia eta proposamenak mahaigaineratzeko.

Helburuak

Helburu orokorra:

Ikuspegi desberdinak dituzten aktoreak elkarrekin eztabaidatzen jartzea. Gazteen kolektiboa heterogeneoa izanik, Euskadin zein atzerrian bizi dituen egoeraren ezagutza handitzea eta partaideek dituzten ideiak ezagutzea.

Helburu zehatzak:

- Parte-hartze politiko bultzatzea gazteen artean.
- Gazteen eta ordezkari politikoaren arteko elkarrizketa sustatzea.
- Gazteek euren proposamenak, kritikak eta galderak plazaratzeko aukera ematea.



Ekintzen jarraipena

Azaroaren 6an EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako gradu-aretoan biltzeko deia egin da eta politikari, teknikari eta gazteak kontuan hartuta, 25 pertsona bildu dira.

Ordu eta erdiko jardunaldiak bi gai nagusi izan ditu protagonista: mugikortasun politikak eta itzulera politikak. Partaide bakoitzaren abiapuntua eta analisia desberdina izanik egoera desberdinen gainean hitz egin da. Atzerrian dauden gazteei buruzko informazio falta handia dela azpimarratu da, Euskadin bizi diren gazteen egoera ordea, oso prekariotzat hartu da eta egoerari buelta emateko estrategia bat beharrezkoa dela adostu ere. Estrategia hori gauzatzeko ideia desberdinak azaleratu dira.



Ebaluaketa orokorra

Gaiaren garrantzia handia dela azpimarratu dute partaideek eta berau lantzen jarraitzeko beharra adierazi dute. Jardunaldira gazte gutxi hurbildu ziren, eta egoeraren argazki oso bat egiteko gabezia ondorioztatzen da.

Jasotako ondorioak partaideei helaraziko zaizkie. Momentuz argitalpenik egongo ez bada ere Enpleguko Lan Taldeak gaia jorrazteko ardura bereganatu du, ekitaldian batutako ideiak hausnartu, bideragarritasuna neurtu eta lehentasunak markatuko ditu, ondoren bide-orri bat gauzatzeko.

3.4 GAZTEEKIN ETA GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENEKO HARREMANA

3.4.1 Material eta gelen lagapena

Justifikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren material eta gelen lagapen zerbitzua eskaintzen zaie gazte talde eta parte-hartzerako ekimen ezberdinei. Zerbitzua hobetzeko prozedura estandarizatua 2014tik aurrera abian jarri da, Parte-hartze arloak koordinatuta.

Helburuak

Helburu orokorrak:

Mailegu zerbitzu honen bitartez gazte eragile ezberdinei parte-hartzerako tresna praktikoak eman nahi zaizkie. Honekin batera, material eta gelen lagapenari esker EGK-ren eta gazte kolektiboen arteko harremana hobetzea eta sakontzea da helburua.

Helburu zehatzak:

- Material eta gelen lagapenerako prozedura, dokumentuak eta beharrezkoa den beste edozer definitzea, estandarizatzea eta berritzea.
- Prozedura aplikatzea.



- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarreko konfidantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

Ekintzen jarraipena

2015EKO LAGAPENAK ARABAN:

- EUSKAL INTERKULTURA: Otsailaren 22an. Gasteizko egoitza eta papelografoa, topaketa bat egiteko.
- IKASLE ABERTZALEAK: Otsailaren 21an. Sorgailuak, ikasleen ospakizuna egiteko.
- TXAGOKO JAI BATZORDEA: Ekainaren 9tik 15era. Proiektorea, dokumental bat proiektatzeko.
- EKHITARRAK KIROL ELKARTEA. Uztailaren 17an. Gasteizko egoitza, bilera bat egiteko.
- HAALY PULAR. Irailaren 9an. Gasteizko egoitza, elikagaien bankuaren ekintza baterako.
- EKO-ACG Bizkaia. Azaroaren 14an. Soinu ekipoa, papelografoa eta mahai tolesgarria Gasteizen duten ekintza baterako.
- ARABAKO ESKAUT LAIKOA. Azaroaren 28an. Gasteizko gela Boluntariotzaren egunaren harirako ekitaldi bat prestatzeko.

2015EKO LAGAPENAK BIZKAIAN:

- PIZTIAK: Urtarrilaren 1ean. Bilboko egoitza eta materialak, asanblada egiteko.
- GAZTEEN GURUTZE GORRIA. Otsailaren 19tik 23ra. Soinu-ekipoa, Santutxuko inauterietan desfileen erabiltzeko.
- EUSKAL INTERKULTURA: Otsailaren 21an, irailaren 26an. Bilboko egoitza eta materialak, prestakuntza-saioa eta topaketa bat egiteko.
- IRATZARRI. Otsailaren 28an. Bilboko gela handia, barne bilera egiteko.
- EUSKAL GORRAK: Martxoaren 21ean. Bilboko egoitza eta materialak, Euskadiko Gazte Gorren Foroa egiteko.
- JÓVENES SAHARAUIS: Martxoaren 29an. Bilboko egoitza, bilera bat egiteko.
- EHU-KO BIZKAIKO IKASLE KONTSEILUA: Apirilaren 21etik 24ra. Proiektorea, EHU-ko foro baterako.
- GAZTEEN GURUTZE GORRIA. Ekainaren 6an. Proiektorea eta pantaila, tailer bat egiteko.
- JÓVENES SAHARAUIS: Ekainaren 10ean. Saharako banderak, EGK-ren donazioa.
- GAZTEEN GURUTZE GORRIA. Ekainaren 14an eta 28an. Bilboko gela handia, prestakuntza tailerrak egiteko.
- HEGOAK – HEGOSPORT- KAMALIONS KE. Uztailaren 17tik 20ra. Soinu ekipoa, homofobiaren aurkako futbol txapelketa egiteko.
- AMEKADI. Urriaren 16an. Argazki kamera reserbatu zuten.
- EUSKAL INTERKULTURA. Abenduaren 12an. Bilboko gela eskatzen du batzar bat deitzeko.
- GAZTEEN GURUTZE GORRIA. Abenduaren 11, 12, eta 13rako soinu ekipoa eskatzen du, asteburuko ekintza baterako.

2015EKO LAGAPENAK GIPUZKOAN:

- GAZTEGEHITU: Maiatzaren 6an, Donostiako gela eta proiektorea, tailer bat egiteko.



- BETTI GOITI EUSKARA KULTUR EKARTEA: Ekainaren 13an. Donostiako egoitza, boluntarioekin bilera bat egiteko.

Ebaluaketa orokorra

2014an bezala, maileguan ematen diren materialak eta gelak jarraipen orri batean apuntatzen dira eta parte-hartze teknikariak guzti honen koordinazioa eramaten du. Prozedura estandarizatu honi esker, zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortu da. Honekin batera, beharrezko aldaketak eta berriketak egin dira. Beraz, hemendik aurrerako helburuak prozedura mantentzea, mailegu zerbitzua ezagutzera ematea eta lagapenak eragile gehiagori eskaintzea dira.

Urte osoan zehar 23 lagapen gauzatu dira 18 elkarte eta ekimen ezbedinei. Prozedurari esker zerbitzu honen kudeaketa ona izan da, bai EGK-rentzat, bai eskatzaileentzat. Zentzu honetan, lagapen guzti-guztietan fidantzak jaso eta itzuli dira, Idazkaritzarekin elkarlanean.

3.4.2 Gazte eta eragileei aholkularitza eta zuzeneko harremana

Justifikazioa

2015 urtean gazte ezberdinei aholkularitza eskaini zaie. Ekimen eraginkorra izateaz gain, gazteei aholkularitza emateko gaitasunak zentzu praktikoa eta ulergarriagoa ematen dio EGK bezalako erakunde bati. Lan hau gauzatzeko teknikari guztiak inplikatu dira. Gainera, Parte-hartze arloak gazte eragileekin zuzeneko harremanari ekin dio.

Helburuak

Helburu orokorra:

Gazteek eta eragileek parte-hartzearen inguruan dituzten beharrak, kezkek, proposamenak eta dudak entzutea eta modu egokian bideratzea. Gazte eta eragile hauekin harremanak sendotzea.

Helburu zehatzak:

- Elkartegintzari eta parte-hartzeari lotutako aholkularitza ematea: nola parte hartu, nola sortu elkarte bat, nola erroldatu, ereduak eta antolatzeke era ezberdinak, sareko lana, beste entitateekiko harremana.
- EGK-ri zuzendutako aholkularitza ematea: sartzeko baldintzak, funtzionamendua, barne prozedurak, ekarpenak, kritikak eta balorazio onak emateko aukera.
- Administrazioari buruzko aholkularitza ematea: erakunde publikoaren harremanak elkartegintzarekin, nola eragin, zein bide jarraitu, elkarten eta administrazioen arteko elkarlana hobetzeko proposamenak...
- Sare ezberdinetan parte-hartzea euren ideiak jasotzeko eta EGK-renak transmititzeko (Sareginez, etab.). Talde eta agentzia ezberdinekin harremanetan egotea.
- Batzorde Iraunkorrari informazioa, aholkularitza, hausnarketak eta diagnostikoak eskaintzea, parte-hartzearen inguruko posizionamenduak landu ditzan.



Ekintzen jarraipena

AHOLKULARITZA:

Urte osoan zehar, hainbat gaztek eta eragilek jaso dute EGK-ko aholkularitza.

ARABA:

- Gazte Beti Alaiak
- Podemos Gazteak
- Cocina Guerrilla kooperatiba
- Plataforma Investigación Digna
- Norbanako gazteak*
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak, etab.)*

BIZKAIA:

- EHU-ko YouthLab
- Jóvenes Saharauis
- Ekintza Katoliko Orokorra
- Gazte Gorrak
- Bilboko Arte Ederretako Museoa
- GazteBizHitza
- Bizkaiko Hitza
- BitZika ikasenpresa
- Alboan
- Norbanako gazteak*
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak, etab.)*

GIPUZKOA:

- Goierriko Hitza
- Irungo Gazte Teknikaria
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
- Sareginez plataformako eragileak:
 - Gizalde
 - Gurutze Gorria
 - Kaebnai
 - DYA Gipuzkoa
 - Caritas Gipuzkoa
 - Nagusilan
- Norbanako gazteak
- Gazteen gaien inguruan interesa duten beste pertsonak (gurasoak, irakasleak, etab.)
- Urola Garaiko gazte bat.

ZUZENEKO HARREMANAK:

- 2014an bezala, aurten EGKk parte hartu du Sareginez Gipuzkoako boluntariotzaren plataforman. Besteak beste, Boluntariotzaren eguna ospatzeko DSS2016 espazioan boluntarioekin batera azaroaren 19an egindako work kafean



egon zen parte-hartze teknikaria.

- Gizalde Gipuzkoako Boluntariotzaren agentziarekin elkarlanean aritu da EGK. Martxoaren 17an egin zen urteko interlokuziorako bilera.
- Bizkaian, Bolunta boluntzariotza eta parte-hartzerako agentziarekin harremanetan egon da EGK. Beste ekintzen artean, ekainaren 11an burutu da urteko interlokuziorako bilera.
- 2015ean ere hurrengo elkarte hauekin harremana sendotzeko bilerak egin dira: ONCE-JUP, Lolek elkarte, Alboan, GazteGehitu, Ekhitarrak KE eta Bera Bera KE, besteak beste.
- Aurten, EGKk Espainiako Gazteriaren Kontseiluarekin (CJE) duen harremana sakondu du. Europako gazteria politiketan eragiteko asmoarekin lankidetzeta hasi du Elkarrizketa Egituratuak deritzon teknikari esker. Urriaren 30, 31 eta azaroaren 1ean izandako formakuntza eta abenduaren 21 eta 22an egindako topaketak dira elkarlan horren eredu.



Ebaluaketa orokorra

Azken urteetan banako aholkularitza mota nagusitu da, 2015 urtean zehar 30 eginez. Guztira, gazteak, gazte eragileak eta gazte gaietan interesa duten pertsonak zenbatu ezker, emaitza 48 aholkularitza dira.

3.5 ERAKUNDE PUBLIKOEKIKO HARREMANA

Justifikazioa

EGK-ri gazteen eta administrazioen artean zubi-lana egitea dagokio. Horregatik, Parte-hartze arloaren zereginetako bat erakunde publikoekin harremanetan egotea da.

Helburuak

Helburu orokorra:

EGK-ko Parte-hartze arloa eta EAEko administrazio ezberdinetako arduradunek elkar ezagutzea. Lan egiteko aproposa den giroa bultzatu eta mantentzea, eraginkortasuna handitzeko helburuarekin.

Helburu zehatzak:

- EGK-ko Parte-hartze arloak eta EAEn, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan dauden erakunde publikoetako gizarte partaidetzarako arduradunak elkarlanean jartzea.
- Lortutako harreman instituzionalak mantentzea eta harreman berriak garatzea, parte-hartzearen berezko ikuspegitik.



- Parte-Hartze arlotik parte-hartzearen inguruan identifikatzen diren gazteen interesak eta beharrak administrazioei eramatea, eta administrazioek dituzten zalantzak edo eskaerak jasotzea.
- Lurralde bakoitzeko Aldundiak egiten dituen eskaerei erantzutea.

Ekintzen jarraipena

EAE:

- 2014an Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurirako ideiak jasotzeko prozesuan inplikatu ostean, 2015eko uztailaren 14an Innobasque-ko arduradunekin bildu ziren Presidentea eta Parte-hartze teknikaria EGK-ko Bilboko egoitzan, interlokuzioa mantentzeko asmoarekin. Bileran EGK-ren eta Innobasque-ren arteko balizko elkarlanerako bideak hausnartu ziren.
- Aurten ere EUDEL-ekin bildu zen EGK, interlokuzioa mantenduz. Uztailaren 23an gauzatu zen bilera, EUDEL-eko Bilboko egoitzan. Erakunde bien proiektuak planteatu ziren, elkarlanerako prestasuna erakutsiz.
- Euskal Boluntariotzaren Kontseiluak laguntza eskatu zion EGK-ri bere gazteen zuzendutako kanpaina dela eta. Ekintza honen bidez harremana sortu zen, eta uztailaren 16an eta irailaren 16an egin ziren bilerak.
- Martxoaren 30ean Eusko Jaurlaritzako GazteAukera-ko GazteBizHitza atariaren aurkezpena joan zen EGK-ko lantalde osoa.
- Apirilaren 30ean Parte-hartze teknikaria Adintxikikoak eta Alkohola Egitarauko Batzorde Gidatzaileko kidea izendatu zuen EGK-k.
- Arartekok antolatutako EHU-ko Uda Ikastaroan parte hartu zuen Parte-hartze teknikariak, beste teknikariekin batera. Bertan Arartekoa den Manuel Lezertuak, Euskal Gazteen Behatokiko Nieves Corcuerak edota EGK-ko Presidentea Itsaso Anduezak hartu zuten hitza.

ARABAN:

- Arabako Foru Aldundiko eta Vitoria-Gasteizko Udaleko arduradunekin bildu ziren Presidentea eta Parte-hartze teknikaria, urtarrilaren 15ean. Besteak beste, 2015eko proiektuak aurkeztu ziren.
- GazteOlinpiadak antolatzeko prozesuaren baitan Mikel Hoyos den Vitoria-Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradun teknikoarekin bildu zen Parte-hartze teknikaria. Apirilaren 22an eta helburu berdinarekin, Mendizorrotxa kiroldegiko arduradunekin elkartu zen teknikaria. Lehiaketa egunean, irailaren 26an, Modesto Amestoy Gasteizko Udaleko gazte teknikaria etorri zen.
- Gasteizko Udalarekin harremana mantentzen da. EGKk parte-hartze teknikariaren bitartez Gazte Planaren Jarraipen Batzordearen partaide da.

BIZKAIAN:

- Urte osoan EGK-ren eta BFAren arteko elkarlana garatu da, adibidez K proiektuaren ondorioak baloratzeko bileran (ekainaren 4an) edota UdalGaztediko ezkeraldeko teknikari eta arduradunekin (maiatzaren 14an)
- GazteOlinpiadak antolatzeko prozesuaren baitan Bilboko Udal Gobernuko zinegotzia den Ohiane Agirregoitiarekin harremanetan ipini zen EGK. Honen ondorioz, Bilbao Kirolak-eko Deustuko Kiroldegiko arduradunekin bildu zen Parte-hartze teknikaria, uztailaren 7an. Lehiaketa egunean, irailaren 19an, Maitane Leizaola BFA-ko Behatokiko zuzendaria, Xabier Otxandiano eta Ohiane



Agirregoitia (Bilboko Udaleko zinegotziak) etorri ziren.

- Bestalde interlokuzio bilerak ere egin dira: martxoaren 10ean Txorrierriko Mankomunitateko teknikariek eta irailaren 15ean Barakaldoko gazteria teknikariek.

GIPUZKOAN:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria zuzendaritzako ordezkari teknikoekin apirilaren 23an, Donostian, bildu zen EGK.
- GazteOlinpiadak antolatzeko prozesuaren baitan Donostia Udaleko Donostia Kirola-ko Manteo Kiroldagiko arduradunekin elkartu zen Parte-hartze teknikaria, uztailaren 23an.

Ebaluaketa orokorra

2015ean EGK-ren eta EAE osoan eragina duten erakunde publikoen arteko harremana sakondu da, emaitza onak lortuz. Hemendik aurrera, lan honi jarraipena emateko eta interlokuzioa mantentzeko eta hobetzeko konpromisoarekin jarraituko da.



4. KOMUNIKAZIOA

4.1 RECACCIONA BIDEO LEHIAKETA

Justifikazioa

RECacciona bideo lehiaketa hirugarren aldiz antolatu da aurten eta helburua hauxe izan da: Hezkuntza eta gazteak gaiaren inguruko eztabaida sustatzea. Lehiaketaren gaia honako hau izan da: “RECaccion. A ze parea, hezkuntza eta gazteak” eta gazteei galdera hauen inguruan pentsatzea gonbidatu zaie:

- Zure ikuspuntutik, egokia al da gaur egun dugun hezkuntza sistema?
- Zure esku egongo balitz, ze hezkuntza sistema eraikiko zenuke? Ze metodologia edo beste herrialdeetako sisteman oinarrituta? Zeintzuk dira zure proposamenak?
- Gazteon hitza hezkuntza sistema diseinatzeko orduan kontutan hartzen dela deritzozu? Zer egin genezake komunikazioa hobetzeko eta gure ekarpenak erabakitze organoetara eramateko?
- Azken garaian ematen ari diren aldaketa eta erreformekin, zer uste duzu, hezkuntza sistema hobera edo okerrera doala?
- Gaur egungo hezkuntza dela eta, nola ikusten dituzu etorkizuneko gazteak?
- Zure ustez, baliabide ekonomiko gutxi duten gazteek ikasteko aukera bermatua dute indarrean dagoen beka sistemarekin?
- Zure ikuspuntutik, hezkuntza sistemak hizkuntza eskubideak bermatzen ditu?
- ... eta honen inguruan bururatzen zaizkizun bestelako ideiak.

Parte hartzaileei dagokionez, aurten 18 eta 30 urte bitarte egin ordez, 16 urtetik aurrera lanak aurkezteko parada izan dute ikasleen parte-hartzea sustatu nahi zelako. Pertsona guztiek hartu ahal izan dute parte, bi pertsona edo gehiagok osatutako taldeetan antolatuta. Bideoek gehienez lau minutuko iraupena izan behar zuten, eta euskarak presentzia izan behar zuen lan guztietan.

Sariak hauexek izan dira:

- **Lehenengo saria:** 1.000 euro, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko*.
- **Bigarren saria (publikoak aukeratutako saria):** 400 euro, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko*.
- **Ikusleentzat saria:** 50 euro bidezko merkataritzako saltoki batean gastatzeko.

*Zertan erabili zitezkeen lehenengo eta bigarren sariak?

- Hezkuntzarekin lotura duen **formazioa edo ikastaro bat egiteko**.
- Hezkuntza mailan dituzun **idea eta planak** aurrera eramateko (enpresa muntatzen hasteko, lan-proiektu baterako materiala erosteko...).
- Hezkuntzarekin zerikusia duen proiekturen bat gauzatzeko (bideo bat grabatu, argazki-erakusketa bat egin, koreografia bat muntatu, argitalpen bat editatu, jardunaldi batzuk antolatu...).
- Hezkuntzarekin lotura duen ekimen bat edo elkartegintza esperientzia bat **ezagutzeko bidaiatzea**.
- Elkarte edo gizarte mugimendu batean **ekintzak** antolatzeko.



- **Brigada** batean parte hartzeko, Hegoaldeko **lankidetz**a proiektu batean parte-hartzeko, bidaia solidario bat ala elkartrukeak egiteko...
- Elkarre bati, gizarte proiektu bati edo Gobernu Kanpoko Erakunderen bati dirua **emateko** edo kolektibo batentzat **materiala** erosteko.
- Bururatu ez zaizkigun ekimenetarako (zure ideia izen emate orrian aipatu).

www.egk.org atarian irakur daitezkeen oinarrietan jasotzen dira bestelako zehaztapen guztiak.

Helburuak

Helburu orokorra:

Hezkuntza eta gazteak gaiaren inguruko eztabaida sustatzeko abiatu du lehiaketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak, baita gazteek gai honen inguruan dituzten ideia eta ikuspuntu ezberdinak jaso eta zabaltzeko ere.

Helburu zehatzak:

- Hezkuntza arloan gazte eta gazte-elkarre ezberdinek dituzten ikuspuntuak eta proposamen berriak jaso.
- Gazteon artean hezkuntza politikari buruzko hausnarketa eragin.
- EGK-k Gazteria eta hezkuntza arloan egiten duen lana ezagutarazi.

Ekintzen jarraipena

- Izen emateak eta bideoen bidalketa: maiatzaren 26ra arte (epea bi aste gehiago luzatu genuen).
- Bozketa eta epaimahaia: ekainaren 15era arte.
- Sari banaketa: ekainaren 18an, EGK-ko Bilboko egoitzan.

Ebaluaketa orokorra

Inoiz baino parte-hartze handiagoa eman zen eta zaila da kopurua zehaztea ikasleen taldetan klaseetako kide guztiek parte hartu zutelako. Guztira 16 talde egon ziren eta lehiaketatik kanpo beste bost bideo jaso ziren oinarri guztiak betetzen ez zituztelako. Aurrekoetan bezala, EAEko taldeek parte-hartu dute, baita Nafarroakoak ere eta bidalitako bideoen maila handia izan da. 554 pertsonak parte hartu dute bideoen bozketan eta ikusleentzat-sariaren zozketan, iazko kopurua lau aldiz bikoituz. Hauen artean egiten den zozketan Gaintzako mutil batek saria jaso zuen. 30 pertsona inguruk parte hartu dute sari banaketa ekitaldian. Banaketa arrakastatsua izan zen Bilbon egin zena, beheko argazkian ikus daitezkeen bezala. Guztira, lehiaketan sartu ziren bideoek 4.800 ikustaldi inguru izan dituzte, iazkoaren bikoitza baino gehiago. Datu bat: irabazlearen bideoak bakarrik iaz zeuden bideo guztiak baino erreproduzio gehiago lortu ditu. Lehiaketa egin arte elkar ezagutzen ez zuten taldeek elkar ezagutu dute. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hezkuntzaren gaineko ideia eta esperientzia berriak jaso du. EGK-k ezagutzen ez zituen talde eta gazteen lana ezagutu eta kontaktua ezarri du. Lehiaketak bideoak hauek guztiak eskuragarri ipini ditu sarean, errealitate hori ikustarazteko beste tresna bat gizararen esku jarritz.



4.2 PIZTU! HAMABOSTEROKO BULETIN ELEKTRONIKOA

Justifikazioa

Gazteek gazteentzat egindako buletin digitala da. Bi-hiru astean behin jasotzen dute hartzaileek, honako edukiekin:

- Euskadiko Gazteriaren kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jardueren berri.
- Bestelako gazte eragileen jardueren berri.
- Komunikabide ezberdinek gazteei buruz eta gazte elkartegintzari buruz argitaratzen dituzten albisteak.

Helburuak

Helburu orokorra:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

Helburu zehatzak:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60-%70euskaraz).

Ekintzen jarraipena

Bi-hiru astean behin osatu eta bidaltzen da Piztu buletina, normalean ostegun edo ostiraletan. Etenaldiak egoten dira opor garaietan (Gabonak, Aste Santua eta udan) baina epea hauetan beti aurreikuspenarekin jokutzen da eta egun libreak hartu baino lehen azken bidalketa bat programatzen da.

2.137 harpidedunei bidaltzen zaie buletin bakoitza (aurten gora egin duen zenbakia):

- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

Ebaluaketa orokorra

17 buletin bidali ditu Komunikazio arloak urtarrila eta abenduaren 3ra arte; kopuru honi, Gabonak baino lehen bidaliko dugun azken buletina ere gehitu behar diogu.

2015-01-22

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=73>

2015-02-05

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=74>



2015-02-18

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=75>

2015-03-05

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=76>

2015-03-26

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=77>

2015-04-30

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=78>

2015-05-15

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=79>

2015-06-05

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=80>

2015-06-25

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=81>

2015-07-23

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=82>

2015-09-04

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=83>

2015-09-24

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=84>

2015-10-09

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=85>

2015-10-23

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=86>

2015-11-05

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=87>

2015-11-20

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=88>

2015-12-03

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=89>

2015-12-21 (bidaltzeko aurreikusten den data)

<http://www.egk.org/newsletter/newsletter/newsletter.php?nl=90>

Webgunearen atalean gehiago zehaztuko dugunez, EGK-k Interneten dituen tresnak aldatzeko prozesu bat abian jarri da, 2015ean hasitako eta 2016rako prest egongo dena. Xehetasun gehiago emango dira hurrengo zatian.

4.3 EGKREN WEBGUNEA

Justifikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kanal nagusiena webgunea da (www.egk.org). Gainera, 2014ko abenduaren 3tik aurrera (Euskararen Nazioarteko Eguna) Euskal Herriko beste webgune batekin batera, EGK-k domeinu berria aktibatu zuen: www.egk.eus.



Helburuak

Helburu orokorra:

www.egk.org atarian EGKren jardueraren informazio gaurkotua argitaratzea, esan bezala, ekintza EGK-k antolatzen duenean edo Gipuzkoako beste eragileekin batera egitean denean.

Helburu zehatzak:

- EGK-ko albisteen berri ematea (jarduerak, argitalpenak, manifestuak, iritzi-artikuluak...).
- EGK-ko elkarten eta EGK-koak ez diren elkarten jardueren berri ematea, horien artean bereziki, Gaztematikakoak.
- Gipuzkoakan gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea.
- Elkarten direktorio gaurkotua eskaintzea.

Ekintzen jarraipena

Helburu hauek bete ahal izateko, hau da egunerokotasunean egiten den lana:

- Webgunea (www.egk.org) edukiz hornitzea: ekintzak, komunikabideen albisteak eta agenda.
- Webgunearen mantentze egokia bermatzea (spam ezabaketa, iruzkinen kudeaketa).

Hartzaileak, urtarrilaren 1etik abenduaren 1era:

- 25.180 bisita
- 75 bisita egunero, bataz bestez.
- Pikoak sortzen dira PIZTU buletina bidaltzen den egunetan, baita lan eskaintzetan ere.
- 17.537 bisitari bakar.
- 66.244 ikusitako orrialde.
- 68,32% bisita berri.
- Adinak: %61a, 18-34 urte bitartekoa.
- Bisiten jatorri demografikoa (kopuruaren arabera):
 - Bilbao
 - Donostia
 - Vitoria-Gasteiz
 - Madril
 - Bartzelona
 - Arrasate
 - Irun
 - Iruña/Pamplona
 - Getxo
 - Eibar
 - Zarautz
 - Leioa
 - Durango
 - Basauri
 - Beasain



- Errenteria
- Tolosa
- Laudio
- Valencia

Ebaluaketa orokorra

Google Analytics bitartez egiten ditu Komunikazio Arloak neurketak. Azken urtean, bisita kopurua pixka bat jaitsi da, baina nahiko berdintsu jarraitu du. Honen harira hausnarketa prozesu bat hasi zuen EGK-k 2015eko hasieran: baliabide gehiagi erabiltzen ziren euskarri tradizionaletan (posterrak, kartelak, triptikoak) eta teknologia berriak eta zabaltzeko bide digitalak nahiko zaharkituak zeuden. Datu bat esateko, EGKren gaur egungo webgunearen oinarria orain dela 7-8 urtekoa da eta hauek oso azkar aldatzen ari dira.

2015eko martxoan Donostian egin zen Batzak Orokorrean, esparru honetan lantzeko pausoak aprobatu ziren eta lan talde txiki bat sortu zen komunikazio arloko teknikaria, lotura eta Batzorde Iraunkorrean dauden informatikariekin. Uda bitartean deialdi ireki bat egiteko dokumentazio prestatu zen eta uztaila bukaeran deialdi ireki zen irailera arte. Honen helburua enpresa, entitate edo elkarte bat topatzea zen, hiru zati izango dituen prozesuan, EGK-k Interneten duen presentzia berritzeko:

PROIEKTUAREN HASIERAKO FASEA (2015eko udazkena, gutxi gorabehera):

- EGKren oraingo webgunearen eta Piztu! buletinaren bisiten estatistika eta indargune eta ahulguneen analisia (Webmaster Tools, Google Analytics eta antzeko tresnen bitartez).
- EGKren hedabide sozialen gaur egungo erabileraren egoeraren analisia: Facebook, Twitter, Instagram eta Youtube.

PROIEKTUAREN GARAPENAREN FASEA (2016ko negua, gutxi gorabehera):

- EGKren webgune berriaren garapena (euskaraz eta gaztelaniaz eta, aurreikusten denez, ingelesa eta frantseseko atal txikiekin) beharrezkoak diren tresnak erabiliz eta internet inguruan dauden araudiak errespetatuz (pribatutasunaren babesa, cookiak...).
- Eduki eta artxiboen kudeaketa egiteko euskarriaren garapena, baita EGKren lan taldeak honen erabilpena egiteko formazioa ere.
- Piztu! albiste buletinaren berritzea.
- EGKren hedabide sozialen hobekuntzen ezarpena eta tresna berrien erabilera.

PROIEKTUAREN AZKEN FASEA (2016ko udaberriaren hasiera, gutxi gorabehera):

- EGKren webgune berriaren abiaraztea .eus domeinuan.
- Bilatzaileetan posizionatzea mantentzea .org-etik .eus-era migrazioa egitean.
- Helbide elektronikoaren migrazioa .eus-era eta beharrezkoak diren moldaketa teknikoak.
- Webgune berria eta hedabide sozialen erabilera berriarekin lotura duten estatistiken jarraipena eta monitorizazioa.



- EGKren hedabide sozialen erabileran lagungarria izango den estilo liburuaren sorreran laguntzea.
- Ebaluazioa eta proiektuaren azken analisia.

10 proposamen bidali ziren eta EGK-k Bizkaiko Peopleing + Irudigital enpresena aukera zuen; dagoeneko bilerak hasi dira eta lanean jarri dira. Luzea izango den prozesua martxan da eta, 2015ean hasi den arren, emaitzak 2016an ikusiko dira. EGKrentzat aurrerapauso handia izango da eta lehen aldiz, azken urteetan, zabaltzeko medio digitalek protagonismo handia izango dute, Gipuzkoan egiten diren ekintzak eta Gaztematikaren jarduerak zabaltzeko mesedegarria ere izango dena.

4.4 SARE SOZIALEN KUDEAKETA

Justifikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak sare sozialetan dituen profilak ia egunero eguneratzen dira, orain asteburuetan ere (jardueran programatuta uzten direlako).

Helburuak

Helburu orokorra:

EGKren atarian EGKren jardueren informazio gaurkotua argitaratzea, Gazteriaren Kontseiluko funtzioekin lotutako edukiak elkarbanatzea eta Euskadi mailan egiten diren jardueren zabalpena.

Helburu zehatzak:

- www.egk.org atariko trafikoa handitzea.
- EGK-ko ekimen zehatzak gauzatzea (adibidez: RECacciona bideo lehiaketa edo Twitter lehiaketa).
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri jasotzea.
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri ematea.
- EGKren jarraitzaileekin harremana sendotzea.
- EGKren marka indartzea.

Ekintzen jarraipena

Ia egunero gaurkotzen ditu Komunikazio Arloak sare sozialetan kudeatzen dituen profilak ([Twitter](#) eta [Facebook](#)). Bestelako sare sozialen kudeaketaren aldizkakotasuna luzeagoa da ([Youtube](#) eta Instagram, bigarren honi bultzada bat emango zaio 2016an). Lehen ere Tuenti sare soziala bazegoen baina gaur egun ez da erabiltzen.

Hartzaileak, 2015eko abenduaren 11ko datuak:

FACEBOOK:

3.635 jarraitzaile (iazko kopuru berdintsua).

YOUTUBE:

2.590 aldiz ikusi dira 2015ean zehar Youtubera igotako 12 bideoak.

**INSTAGRAM:**

79 jarraitzaile (2014an baino 36 gehiago, urte hasieran publikazioak egin ziren baina gero erabaki zen komunikazioa berritzeko prozesura itxoitea tresna honetan sakondu baino lehen).

TWITTER:

2.441 jarraitzaile (2014an baino 433 gehiago).

Urtetik urtera EGK sare sozialak gehiago erabiltzen ari da eta aurten trantsizio urtea izan dela esan daiteke; dena den, esperientzia ona izan diren ekimenak errepikatu dira eta, adibidez, urte amaieran ere *#EGK2016 lehiaketa* abian jarri da hurrengo urteari begira gazteekiko ideiak eskuratzeko. Twitterren bereziki, Gaztematika kontuarekin lotura estua da eta beraiek zabaltzen duten informazioa bertxiokatzeko bereziki; eskertzekoa da lan hau bi aldeetatik egiten dela eta Gaztematikak ere EGKren informazioa zabaltzen duela.

Ebaluaketa orokorra

Eskatzen duen lanagatik, Komunikazio Arloak Facebook eta Twitterren jarraipen-txostenak egiten ditu, ez ordea intentsitate baxuagoarekin erabiltzen dituen gainerako tresnena (Tuenti, Instagram...). Esan bezala, hurrengo urteari begira, honen inguruko lanak eta jarduerak areagotuko ditugu.

4.5 BERRIZ BERRI HILEROKO POSTER-AGENDA**Justifikazioa**

1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda da Berriz Berria. Bertan, hilero-hilero 10-12 albiste argitaratzen zituen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileen deialdiak biltzen zituen posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal erakundeena ere. Gehienetan elkarteei edo gizarte eragileek eurek bidaltzen zituzten bere deialdiak eta albisteak Gazteriaren Kontseiluko Komunikazio Arlori, Berriz Berrian argitaratzeko. Bestela ere, komunikazio teknikariak bestelako albiste batzuk ere aukeratzen zituzten posterrean txertatzeko. Horrez gain, enkarteak ere egiten zituzten EGK-k: hau da, elkarteei beraiek hala eskatuta, eskuorriak, kartelak, bideoak edota txostenak.

Zehazki, EAEko 1.350 postontzi ezberdinetara iristen zen paperean.. Gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udaletxe eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizarte etxeei bidaltzen zituzten Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Horrez gain, Piztu! buletinarekin zabalpenarekin batera beste helbidetara ere iristen zen eta webgunean eta sare sozialetan eskegitzen zen.

Berriz Berri posterra EGKren euskarren hausnarketan sartu zen eta teknikariek eta Batzorde Iraunkorreko loturek formatu zaharkitua zela adostu zuten; gainera, maketazio, prestaketa eta bidalketa antolatzeke egiten zen gastua eta behar zen denbora handia zen. Proposamen bat eraman zen Batzar Orokorrera eta ekainetik aurrera gehiago ez egitea erabaki zen. Horrela, 2015ean, 5 Berriz Berri egon dira (otsaila, martxoa, apirila, maiatza



eta ekaina). Azken Berriz Berria, irudiak ikus daitekeena, berezia izan zen eta, agur esateaz gain, EGKren jarratzaileak beste euskarrietara bideratzea zuen helburu. Orain eta 2016ra begira indar gehiagorekin, webgunean egongo den agendari indar gehiago eman zaio eta aurreikusten da elkarteek euren ekintzak eta jarduerak eguneratzeko aukera izango dutela.

Helburuak

Helburu orokorra:

Gazte elkarten eta gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

Helburu zehatzak:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea*.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-90 euskaraz).

Ekintzen jarraipena

BERRIZ BERRIA LAU PAUSOTAN BANATZEN ZEN:

- Deialdia taldeei, informazioa bidaltzeko.
- Idazketa: komunikazio teknikariak egiten zuen lana
- Maketazioa: kanpoko elkarte batek egiten zuen lana
- Zabalpena: Bilboko bulegotik koordinatzen zen lana.

1350 HARPIDEDUN ZEUDEN EAEN:

- EGK-ko elkarteak.
- Beste elkarte batzuk.
- Gazte bulegoak.
- Liburutei eta gizarte etxeak.

Ebaluaketa orokorra

Ekainera arte bidalketa egin da eta azken Berriz Berriak esteka hauetan ikus daitezke:
<http://www.egk.org/eus/Argitalpenak%20.html#>

4.6 KOMUNIKAZIO KANPAINAK

Justifikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak jarduera ugari egiten ditu urtean zehar eta komunikazio arloaren lana hauei zabalpena ematea da, arlo bakoitzeko teknikariarekin batera (partehartzea, enplegua eta etxebizitza, hezkuntza, bakea eta bizikidetzatza eta presidentzia).



Helburuak

Helburu orokorra:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

Hau guztia kudeatzeko, lan ezberdinak ematen dira:

- Prentsaurrekoak antolatu.
- Prentsa Oharrak idatzi.
- Iritzi-artikuluak txertatu.
- Deialdiak egunkarietako agendan sartzeko kudeatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.

Ekintzen jarraipena

Plangintzarekin lotuta, hauek dira urtean zehar egin diren eta antolatzeko bidean dauden komunikazio kanpaina nagusienak:

1. PREKARIOKA:

Lan prekarietatearen inguruko oka jolasa Donostiko UPV/EHU-n aurkeztu zen. EGK-ko teknikariak oka erraldoi batekin hurbildu ziren campusera eta, aurrez aurre, gazteekin arazoaren inguruan hausnartu zuten. Ekimena oihartzuna izan zuen komunikabideetan eta Gipuzkoako medio nagusietan eta ETB-ko albistegietan agertu zen. Tablero erraldoia izateak jokua eman zuen eta hedabide hauetan gazteekin batera ateratzeko aukera egon zen, baita Teledonostin egindako zuzeneko saio batean.

2. BAKE IBILBIDEEN BIDEOA:

Aurreko urtean bake eta bizikidetzaren lan arloaren barnean egindako Bake Ibilbideak ekimenaren bideoak aurkeztu ziren. Oraingoan, oihartzuna batez ere formatu digitalean eman zen eta sare sozialetan dextente zabaldu zen. Albistea topatu.info bezalako webgunera ere iritsi zen, gazte konkretuengana iristeko oso garrantzitsua. Bideoak ia 1.000 ikustaldi izan ditu eta honekin batera ere esan behar da EGKren bideoarekin batera 'El Diario Vasco'-k ere bideo erreportaje bat egin zuela.

3. BAKE & ARTE TAILERRAK:

Leioa (Bizkaia), Donostia eta Gasteizen egindako dinamika izan ziren. Saio bakoitza hiru ataletan banatu zen: lehenengoan, literatura jorratu zen gatazken aurrean ditugun joerak lantzen zituen ipuin baten inguruan hausnartuz; bigarrenean, argazkilaritza eta Giza Eskubideak lotu ziren, eta hirugarrenean, gazteek mihise txuri batean etorkizuna elkarrekin amestu zuten. Hau guztia kontatzeko eta azken urtean egindako lana azaltzeko, EGK ETB1eko Azpimarra saioan izan zen, urtean zehar azkena izango ez zen agerraldian. Beranduago, uztailean, ekimenaren bideoari ere zabalpena eman zitzaion.

4. AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARREAN:

Urtero EGK-k duen hitzordua da eta joatean komunikazio arloak kontatuko den mezua zabalpena egiten du. Aurten zerrendaburua hauxe izan zen: "Gazteria politikei benetako



garrantzia eman nahi bazaie, instituzioek arreta handiagoa jarri eta baliabide gehiago bideratu behar dituzte", eta mezua oihartzuna izan zuen, batez ere EITB-ko hedabideetan.

5. UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEEN #GAZTEZTABAIDA:

Lehen aldiz EGK-k #GaztEztabaida antolatu zuen Leioako UPV/EHUn, udal eta foru hauteskundeetan gazte politiken inguruko eztabaida garrantzitsuena eta euskal alderdietako hautagai eta lider nagusiekin. 100 gazte baino gehiago hurbildu ziren Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko auditoriora eta ekitaldia streaming bidez zuzenean jarraitu zen interneten bidez, baita sare sozialetan ere #GaztEztabaida traola edo hashtag-ekin (goizean zehar euskaraz idatzitako txioetan trending topic zerrenda sartu zena). Gainera, gero bideoa ere Youtubera igo zen.

Zazpi alderdiek parte hartu zuten: EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, PP, Podemos, IU-Irabazi eta Ciudadanos. Eztabaidak bi zati izan zituen: hasieran lider bakoitzak bere alderdiaren ideiak eta proposamenak zabaltzeko 10-15 minutu izan ditu eta, bigarrenean, bertan zegoen publikoaren eta internet eta whatsapp bidez jaso diren galderak egin dira. Hauteskunde kanpainen egitean medio publikoek ezin izan zuten jarraipena egin, baina 2-3 orrialdeko erreportaje agertu zen 'El Correo' egunkarian eta irratietan ere zabalpena izan zuen.

6. UPV/EHU-KO IKD GAZTE PROIEKTUA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) UPV/EHU-ko Donostiako campuseko ikasleek egindako IKD GAZtE ekimenean parte hartu zuen. Proiektu honen helburu nagusia, curriculuma garatzeko IKD (Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa) ereduaren esparruan UPV/EHUn modu aktiboan ikasteko metodologiak ezartzeko prozesuan ikasleak ahalduz sustatzea zen, ekimen sena bultzatuz. Hau dela eta, EGK-k eta beste zazpi eragile sozialek erronkak proposatu zizkieten ikasleei eta hauek, taldeetan banatuta, hauei erantzuna bilatzeko proiektuak garatu behar izan zituzten. IKD Gazte ekimenak oihartzuna izan zuen hedabideetan.

7. URKULLU LEHENDAKARIAREN BISITA EGK-RA:

Maiatzaren 13an Iñigo Urkullu lehendakariak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Bilbon duen egoitza bisitatu zuen eta plataformaren arduradunekin ordubeteko bilera izan zuen zuzen-zuzenean gazteen kezkek, interesak, beharrak, arazoak eta proposamenak entzuteko. Lehendakariarekin Cristina Uriarte (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua) eta Jon Redondo (Gazteria eta Kirol zuzendaria) ere izan ziren. EGK-ko presidentea den Itsaso Anduezak harrera egin zien eta berarekin batera Gazteriaren Kontseiluko lan talde osoak eta Batzorde Iraunkorreko hainbat kidek. Bisita telebista eta egunkarietan agertu zen.

8. ENPLEGU ERREZETEN AURKEZPENA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) "gazteontzako enplegu planak egiteko GAZTEON ERREZETAK" dokumentua aurkeztu zuen. Itsaso Anduezak azaldu zuenez "gazteen lan prekarietateari aurre egiteko 17 proposamenez osaturiko dokumentua, kalitatezko enplegua eta gazteon lan eskubideak bultzatu nahi dituena". Hau osatzeko, EGK-ko 'gazteria eta enplegua' lan taldeak urtebete baino gehiago behar izan zuen eta dinamika hauetan parte hartu duten gazte batzuk ere agerraldian izan dira, besteak beste, Comisiones Obreras Gazteak, Junior Enpresen Euskal Federazioa eta Ekintza Katoliko Orokorreko ordezkariak, gazte ez elkartuekin batera. 2015ean zehar EGK-k egindako



zabalpen arrakastatsuena izan zen eta prentsaurrekoaren egunetan eta astean zehar EGK ia 20 komunikabidetan agertu zen: egunkariak, irriatiak, telebistan eta Interneteko medioak.

9. JUVENTUD NECESARIA AURKEZPENA:

Consejo de la Juventud de España-rekin (CJE) batera egindako agerraldia #JuventudNecesaria ikerketaren datuak aurkezteko. Estatu mailan egindako ikerketa izan zen, CJEk lortutako datuekin gira bat egin zuten erkidego guztietan, lurralde bakoitzeko datu zehatzak aurkezteko. EGKren lana hauen inguruko ikuspuntua ematea izan zen. Mezua argia izan zen: gazteon egoera aldatzen ez bada, 10 urte barru gazteon emigrazioaren gastua 4.410 milioi eurokoa izango da (2015ean Euskadik osasunean gastatuko duen aurrekontua baino handiagoa). EGK-k urtean zehar egindako bigarren prentsaurreko arrakastatsuena. Argazkian ikusten den bezala, medio asko gerturatu ziren; aipatzeko, El Mundo-k Euskadin duen zuzendaria hurbildu zela eta ETB-ko programa batekin zuzeneko konexioa egin zela.

10. GAZTE OLINPIADAK:

Hiru jardunaldi egin ziren kirolaren ingurukoak eta hiru jardunaldien artean 100 gazte baino gehiago hurbildu ziren eta emaitza oso positibo bezala baloratu zen. Egun bakoitzeko prentsa oharra bidali zen eta batez ere lehenengo egunean arrakasta sortu zen ONCE-ko gazteekin batera antolatutako ekintzan. Egun bakoitzeko ere bideo bat egin zen gertatutakoaren erakusle izateko.

11. ADEGIKO PELLO GUIBELALDEREN HITZEN AURREAN:

Egoera 2an sortu zen Adegiren (Gipuzkoako Enpresarioen Elkartearen) prentsaurreko batean, Pello Guibelalde presidentek adierazpen hauek egin zituen: "Gaur egungo gazteak oso eroso bizi dira eta ez dute goserik (...) Arazo nagusia etxeetan dugu. Alemanian egotea ez da etxetik kanpo egotea; Europan egotea da. Hegazkin bat hartu eta ordu eta erdian hemen zaude...". Hainbat hedabide EGKrekin harremanetan jarri ziren hitz hauen inguruko iritzia emateko eta honen harira EGK-k ere bere proiektuak azaltzeko parada izan zuen.

12. EUSKAL GAZTEEN BEHATOKIAREN BATERA EGINDAKO IKERKETA:

"Gazteak eta parte-hartze soziala Euskadin". Hau da Gazteen Euskal Behatokiak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak udazkenean aurkeztu zuten ikerketaren izenaren aurrerapena. Itsaso Andueza eta Jon Redondo, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol zuzendaria, aurkezpenean aritu ziren eta arrakasta handia izan zen. Medio askotan Behatokiaren protagonismoa ateratu zen bakarrik baina, dena den, ikerketa lau haizeetara zabaldu zen. Urte bukaeran ikerketa osoa zabaldu da.

13. HAUTESKUNDE OROKORREN #GAZTEZTABAIDA:

Formatu berdintsuko bigarren eztabaida, oraingoan abenduaren 20ko Hauteskunde Orokorren harira eta Gasteizko UPV/EHUko campuseko Letra Fakultateko Gradu Aretoan eta euskal alderdien zazpi hautagaekin (PP, PSE-EE, EAJ-PNV, EH BILDU, PODEMOS-EQUO, IU-UP eta CIUDADANOS). ETB-ko 'En Jake' programa zuzenezko 2-3 konexio egin zituen campusarekin, streaming-en bidez 40 lagun baino gehiagok ikusi zuten eta #GaztEztabaida hashtag edo traola euskal tendentzia bihurtu da goizaren bukaeran.

14. KOMUNIKAZIO ARLOAREN BESTE EKINTZAK:

Gainera, ezin dira ahaztu, hedabideetan presentzia izan duten beste hainbat ekimen:



- 2014ko udazkenean Gasteizen egindako Hiruburu ekimenen ondorioen aurkezpena Gasteizko Udaleko bi batzordetan: gazteria eta enplegua.
- EGKren Batzorde Iraunkorra, urtean behin burutzen den bilera nagusia, Donostiako CRAJ-en egin zena.
- Gipuzkoako Gaztematika jardunaldia, Irunen egindako jardunaldietan Itsaso Andueza presidentek hizlari bezala parte hartu zuen.
- 3+2 Unibertsitate dekretuaren kontrako manifestua.
- Lan Osasunaren inguruko ateratako manifestuaren elkarrizketak.
- UPV/EHU-ko udako ikastaro batean parte-hartzea, Arartekoren eskutik euskal gazteek eskubideak baliatzeko dituzten zailtasunen ingurukoa.
- Astialdi Foroan dauden elkarteek eta beste entitateek antolatzen dituzten udako ekintzen zabalpena, baita kurtso hasieran abian jartzen diren ikastaroena ere (begiralea, zuzendaria eta animatzaile soziokulturala).
- RECacciona bideo lehiaketa, sari banaketa eta parte-hartzaile batzuk izandako oihartzuna, besteak beste, 'El Tretas' irabazlea.
- EGKren parte-hartzea udan Berria egunkariak gazteen gaineko egindako erreportaje sortan.
- Gazte batek Bilbon jasandako eraso faxistaren aurreko komunikatua.
- Gazte Label ekimenaren aurkezpena.
- Gazteen lan mugikortasuna eta itzulera-ren gaineko Hiruburu eztabaidadina, Izaskun Bilbao europarlamentaria eta Araba eta Gasteizko beste politikariek batera.
- Gazteen proiektu autogestionatuen errealitatearekin elkarrizketa eskaria, Donostiako Kortxoenez gaztetxearen utzaraztea dela eta.
- Memoriaren Egunaren harira, terrorismoa eta biolentzia politikoa jasandako 12 euskal gazteen istorioen zabalpena.
- Ernai gazte antolakundeak Gasteizen egindako erasoak gaitzesteko idatzia.
- Boluntariora argazki lehiaketaren zabalpena.
- 'Nola beteko zenuke zure kantinplora?' astialdiaren inguruko kanpainaren zabalpena Gasteizen.
- #EGK2016 Twitter lehiaketa.

Ebaluaketa orokorra

EGK-k komunikabideetan dituen agerpen guztien jarraipena egiten du. 2015ean zehar komunikabideetan izan egindako agerpen guztiak ikusi nahi izanez gero, esteka honetan bilduta daude:

https://docs.google.com/spreadsheets/d/1Eh_EiXtOcFOWYnFcQksj4l6U5l_xZ6ZSosiT2oL_Jkd0/edit?usp=sharing

Bukatzeko, esan behar da aurten medioetan inoiz baino gehiago atera da EGK, iazko martxa hautsiz: kazetariak EGKren ekintza zehatzen berri ematen dute eta, noizbehinka, EGK-ko presidentea, teknikari edo elkartei egiten dizkiete elkarrizketak gazteen egoera orokorraren inguruan. Besteak beste, EGK-k bere mezua zabaldu du Gipuzkoako lurraldean irakurri, entzun eta ikus daitekeen medio hauetan: ETB, Televisión Española, Hamaika Telebista, Cadena Ser, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Nacional de España, Info 7, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Antxeta Irratia, El Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Gara, Berria, El País, El Mundo, Gipuzkoako Hitza, Gaztezulo...



Azpimarragarria da ere, hainbat mediotan lortu den maiztasuna: kurtso hasieran hilabetean behin ostegunetan Euskadi Irratian, hilabetero Gaztezulo aldizkarian EGK-ko elkarte batean iritzi artikulua eta irailetik aurrera Onda Vascan astelehenero bi astetik behin. EGKren ikuspuntutik 2015a urte garrantzitsua izan da EGKren mezua zabaltzen eta gazteen egoera ikustarazten jarraitzeko.

4.7 BARNE KOMUNIKAZIO KUDEAKETA ETA BESTE BATZUK

Justifikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan komunikazioa errazteko ardua du Komunikazio Arloak, bai teknikarien artean, bai teknikarien eta Batzorde Iraunkorren artean, bai eta Batzarra osatzen duten elkarteekin komunikazioa ere. EGK-ren barne-komunikazioak EGK-ren funtzionamendua eta eraginkortasuna bera baldintzatzen du.

Helburuak

Helburu orokorrak:

EGK-ren baitako barne-komunikazioa hobetu.

Helburu zehatzak:

- EGK-ko arlo tekniko ezberdinen arteko komunikazioa erraztu.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorren arteko komunikazioa indartu.
- EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.
- EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorri komunikazio-laguntza eman.

Ekintzen jarraipena

Urte osoan zehar hainbat lan egin behar ditu komunikazio arloak EGK-ren barne komunikazioa ahalik eta emaitza onenak izteko:

- EGKren lanarekin zerikusia duten gaurkotasunezko albisteak bildu eta langileen artean banatu. Egunero EAE, Euskal Herriko eta Espainia mailako 12-15 egunkari eta aldizkari begiratzen ditugu eta, zerbait interesgarria aurkitzean, teknikari bakoitzari edo guztiei bidaltzen zaie.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak teknikariei bidali. Kanpaina bakoitza egiten denean, emaitzen berri ematen zaie.
- Batzorde Iraunkorrek eta Batzarreko elkarteek EGK-ren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGK-ren tresnen bitartez (buletin digitalak, e-maila...). Cristina administratiboarekin batera egiten den lana da hau.
- Teknikariei (eta Batzorde Iraunkorri hala eskatzen badu) komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Ebaluaketa orokorra

Teknikariekin eta Batzorde Iraunkorrekin komunikazio enlazeekin (Diana González eta Iker Montes) ekintza honen jarraipena egiten da. Komunikazioa perfektoa ez bada ere, guztien artean koordinazio nahiko ona lortzen da.



5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

5.1 BAKE&ARTE TAILERRAK

Justifikazioa

2014ko urrian martxan jarritako Bakeahots komunitate birtuala gazteen artean ezagutarazteko helburuarekin, hiru lurraldeetan Bake&Arte tailer bat antolatu da. Gazteei zuzendutako tailer hauetan, dinamika artistikoak burutu dira, artea eta kultura, eta bakea eta Giza Eskubideen defentsaren arteko loturari buruz hausnartzeko. Zehatz-mehatz hiru dinamika gauzatu dira: “Interpretazio anitzeko irakurketa” (literatura); “Giza Eskubideak irudikatuz” (antzerkia eta argazkilaritza); eta “Etorkizuna amesten” (teknika mistoa). Lortutakoak Bakeahots komunitate birtualera igo dira.

Helburuak

- Bakeahots komunitate birtualari jarraipena ematea eta EAEako gazteen artean ezagutaraztea.
- Gazte-bake lana eta kultura eta arte mundua lotzea.
- Gaztememoria artistiko bat sortu.

Ekintzen jarraipena

1. TAILERRAK ANTOLATU:

Lehenik eta behin dinamikak diseinatu eta hauen bideragarritasuna aztertu egin ziren. Materialak erosi eta prestatu ondoren, espazioak bilatu behar ziren tailerrak antolatu eta gauzatzeko. Horretarako lurralde bakoitzeko arte eta kultura mailako eragile garrantzitsuenak bilatzeko saiakera egin da. Bizkaian, Leioako Arte Ederretako Fakultatean (EHU) burutu zen tailerra. Beraz, Arte Ederretako idazkariarekin eta irakasle desberdinekin harremana egin zen tailerrak ikasleen artean zabaltzeko eta partaidetza motibatuz. Gipuzkoako hiriburuan aldiz, Donostia 2016ko egoitzan egin zen eta beraz, haien komunikabideak erabili ziren tailerren berri emateko. Azkenik, Gasteizen, GeroArte gazte-kultur elkartearekin antolatu zen.

Espazioak bilatu eta gorde ondoren, parte-hartzaile taldea sortu behar zen eta horretarako eragile desberdinekin elkar-lanari ekin zitzaion: EHUko Arte Ederretako irakasleekin harremana; EHU, Donostia 2016 eta GeroArte gazte-kultur elkartearen komunikabideak eta kontaktuak erabilia; EGKko erakundeak eta beste bake ekimenetara etorritako gazteak informatzea... Hemen EGKtik zabaldutako albisteari esteka: <http://www.egk.org/en/Last%20news/View/569>

Artearekin lotutako tailer bat izan arren, ez zen soilik EAEko gazte artistentzat zuzendutako ekimena, interesa izan zitekeen EAEko 18 eta 30 urte bitarteko gazte ororentzat baizik.

2. TAILERRAK BURUTU:

Tailerrak apirilean egin ziren, hirurak aste berean: apirilak 21ean Leioan, 23an Donostian eta 24an Gasteizen.



Hemen tailerretako datu orokorrak:

- Tailer bakoitzean teknikari bakarra zegoen dinamizatzaile moduan.
- Dinamizatzaileak tailer guztietan azalpenak elebitan eman zituen eta parte-hartzaile bakoitza erosen sentitzen zen hizkuntzan hitz egin zezakeela bermatu zuen, gero taldeari esandakoaren itzulpena eginez. Hala ere, tailerretan presentzia handien izandako hizkuntza gaztelania izan zen.
- Guztira 18 eta 32 urte bitarteko 15 gazte hurbildu ziren tailerretara (8 mutil eta 7 neska), bost hiriburu bakoitzean.
- Parte-hartzailearen gehiengoa tailerra gauzatu zen hiriburuan bizi zen, baina lurraldeko beste udalerrietatik ere gerturatu ziren.
- Parte-hartzaile gehienak ez ziren erakunde bateko kide, baina baziren elkarte baten barruan dauden hiru gazte. Gainera, gazte gehienak bakarrik etorri ziren, soilik bi kasutan lagun batekin gerturatu ziren tailerretara.



Tailerretan egindakoa gizaritari eta beste gazteei helarazteko, dinamiketan lortutakoak Bakeahots komunitate birtualera igo (www.bakeahots.org) eta bideo-laburpen bat zabaldu zen udaran. Bideoa ikusteko, hurrengo estekan: <https://www.youtube.com/watch?v=ZsIHQSbeD4E>

Ebaluaketa orokorra

Tailerren bitartez Bakeahots komunitate birtualari bultzada bat eman nahi izan da, baina ez tailerrek ez webguneak, ez dute gazteen artean esperotako harrera eduki. Gazte gutxi hurbildu ziren tailerretara eta egindakoak eduki gisa Bakeahotsera igotzeko eskatu arren, lan hori EGKtik egin behar izan da azkenean.

Parte-hartzaileen artean banatutako ebaluaketa orriari esker, ondorio hauek atera dira:

- Parte-hartzaileek tailerraren deialdiaren berri, batez ere, ahoz-ahoz bitarte izan dute. Beste informazio bideak erakunde edo unibertsitatearen bitartez izan dira.
- Parte-hartzaile gehienak artea gustuko dutelako etorri dira tailerretara, baita ekimenaren berritasuna bultzatuta edo interesgarria izan zitekeela iruditzen zitzaielako.
- Parte-hartzaile guztiek zeozer berria ikasi dutela azpimarratzen dute. Gainera, beste gazte batzuen errealitateak eta ikuspuntuak entzuteko eta ezagutzeko aukera aberasgarria izan dela esan dute.
- Askatasunez hitz egiteko aukera izan dute eta taldearen jarrera egokia izan denez, eroso sentitu dira.
- Dinamikak gustukoak izan dituzte, nahiz eta literaturarekin lotutakoa kostata aurrera atera. Teknikariak egindako lana ere baloratu dute. Horregatik guztiagatik, ezagun bati tailer hauetan parte-hartzea gomendatuko liokete.
- Tailerraren ordutegia eta iraupena egokia iruditu zaie, bati motza iruditu zaio.
- Bake&Arte tailerretan lortutako batz besteko nota bikainekoa da (9).
- "Beste iradokizun" en atalean hauxe ipini zuten:
 - *Hubiera alargado una media hora, me lo he pasado muy bien.*



- *¡Muchas gracias!*
- *Askatasun osoa egon da. Taldearen parte hartze maila pixkat mugatua edo baxua. Horrelako ekintza gehiago egon beharko lirateke. Gustoko izan det gogo handiz etorri naizelako eta dinamika ez delako mantxoia izan.*
- *Un grupo majo y agradable.*

Bakeahots komunitate birtualaren egoera:

- Oihartzun gutxien duen proiektua izaten jarraitzen du.
- Bultzada bat emateko helburuarekin, EGKko Bake eta Bizikidetzaren lan-arloaren webgunean bihurtu da. Era honetan, Bakeahotsen erreferentzia ematerakoan, komunitate birtuala bisitatzeko sustatzen da eta horrek eduki gehiago igotzea ekar dezake. Baina 2015ean ez da helburu hori lortu.
- Ez dira edukirik igo. Soilik, EGKk Bake&Arte tailerrak eta gero igo zituenak.
- Bisitak izan arren, ez dira eduki berrien gainean iruzkinik jaso.
- Instituzioetara lotutako webguneek denbora behar dute gazteen irudimenean berezko leku bat sortzeko, baina Bakeahots ez da helburu hori lortzen ari.
- Gai hauekin lotutako testigantza bat partekatzen lehenengoa izateak beti lotsa edo mesfidantza sortzen du. Gazteen artean joera hau mantendu egin da 2015ean ere.

5.2 GAZTE BAKEGINTZAREN DOKUMENTALA I

Justifikazioa

2014ko ekimenetan grabatutakoaren baliagarritasuna antzemanda, 2015eko ekimenak grabatu eta zabaldu egin dira. Hain zuzen ere, horietako bi ekimen: Bake&Arte tailerrak (apirilean grabatu eta uztailean zabaldu) eta Bakehizketen zati bat (bestea 2016ko lehenengo bi hilabetetan zabalduko da).

Helburuak

- Ikusentzunezko gazte-memoria bat sortu.
- Gazteen kezkek, beharrak, interesak eta proposamenak instituzio eta gizarteari helarazi.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragileztat aitortua izatea.

Ekintzen jarraipena

1. BIDEOEN DIFUSIOA:

Joan den urteko Bake Ibilbideen bideoa 2015eko otsailean zabaldu zen. Hemen albisteari esteka: <http://www.egk.org/en/Last%20news/View/551> Hiru hiriburuetan burututako topaketa honen baitan, ekimen berezi bat grabatu zen: "Etorkizuna oroitaraziz". Bertan, parte-hartzaileek bere etorkizuneko buruari gogorarazi behar zioten Bake Ibilbideetan zer



ikasi zuten eta zergatik ezin zuten ikasitakoa ahaztu. 2015eko azaroan, lekukotza horiek guztiak dituen bideoa, 2014an parte hartu zuten gazteei bidali egin zitzairen, orain dela urtebete beraien buruari esan ziotena oroitarazteko. Bestetik, uztailean, 2015eko apirilean egindako Bake&Arte tailerren bideoaren zabalpena egin zen. Hemen albisteari esteka: <http://www.egk.org/fr/EGK%20Derni%C3%A8res%20nouvelles/voir/595>

2. GRABAZIO TALDEAREKIN BILERAK:

Joan den urtean egindako Bake Ibilbideen bideoaren kalitatea ikusita, aurten ere grabazio talde berarekin lan egiten jarraitzea erabaki zen: REKKAM. Aurtengo proposamena aurkezteko helburuarekin, urtean zehar bilera desberdinak adostu ziren. Hauetan, alde batetik, grabatutako bi ekimenen sormen eta edizio saioak aurrera atera ziren. Eta bestetik, 2016ra begira dauden erronka azaldu zitzairen: gazteek bakegintzari buruz duten ikuspegia eta konpromisoa gizarte eta instituzioei dokumental baten bitartez helaraztea. Aurten, dokumental horren gidoia ere zehazten hasi da grabatu beharrezko errekurtsio gehigarriak zeintzuk diren zehazteko. Gainera, Giza Eskubideekin lotutako jaialdi desberdinetara aurkezteko ideia ere badago, beraz hori egiteko aukerak ere aztertu behar dira.

Ebaluaketa orokorra

Bakehizketetan lortutako erantzun bikaina ikusita (bai gonbidatu bai gazte taldearen partetik), hasieran izandako ideia alde batetara utzi (zortzi minutuko grabazioa) eta bideo luze bat egitea erabaki zen, ia dokumental baten iraupeneko, 25-30 bat minutuko, alegia. Gainera, zabaldu baino lehen jakin-mina sortzeko asmoarekin, bost bideo sortuko dira: horietako bakoitzean Bakehizketetan egindako saioetako batean esandakoak jasoko dira. Honen xedea Bakehizketen dokumentalarekiko interesa piztea da, aurrerago, otsailaren 12an, komunikabideen aurrean ofizialki aurkeztuko nahi delako.

Bestetik, esan beharra dago 2016ra begira, EGK eta EJren lan hitzarmenari esker egindako lan guztia dokumental luzeago baten bitartez plazaratzea pentsatu dela. Hartara, parte hartu duten gazte guztien ikuspuntuak eta itxaropenak, instituzio, gizarte eta eragileei helaraziko zaie, baita beste gazte batzuk kontzientziatzeko, sensibilizatzeko eta konprometitzeko erabili ere. Gainera, dokumentala Giza Eskubideen jaialdietan aurkeztea proposatu da.

5.3 ERREFERENTZIA-FUNTSA / MEMORIAREN PLAZA

Justifikazioa

2014an diseinatutako erreferentzia-funtza gauzatzea izan behar zuen 2015eko EGKren egitekoetako bat. Proiektu honen eta gazteen arteko lotura nahiko ahula iritzi zen, baina hitzarmenean adostu zenez aurrera eraman behar zen. Beraz, urte hasieran, diru-partida eta lanorduak zehaztu ziren eta webgunea egin zezakeen profesionalaren bilatu zen. Apirila bukaeran, EJko Bake eta Bizikidetzaz Idazkaritza Nagusiak beste proiektu bat proposatu zuen ordea: "Memoriaren Plaza". Ekimen berri honen xedea EGKko izaerara hobeto egokitzen zela iritzi zen: gazteek erreportari-boluntario gisa beraien inguruko nagusien lekukotzak mugikorrarekin grabatzea. Gero bideo horiek Memoriaren Plaza webgunean igoko ziren eta udazkenean, Memoriaren Institutora pasa. Hitz gutxitan: Memoriaren Plazaren webgunea bultzatzeko kanpaina-aurrea garatzea adostu zen.



Helburuak

- Gazteen artean memoria soziala eraikitzeko grina piztea.
- Erreportari-boluntarioak (eta ondorioz, bideoak) lortzeko gazteekin kontaktuan dauden eragile desberdinekin koordinatzea.
- Lekukotzak jaso eta Memoriaren Plazaren webgunera igotzea.

Ekintzen jarraipena

1. PROIEKTUA BIDERATU:

Apirila bukaeran Idazkaritzako arduradunekin elkartu eta EGKren eginbeharrekoak zehaztu ziren. Hurrengo egunetan, webgunea garatuko zuen erakundearekin bilera izan zen (QuodSail) eta bertan webgunean jasoko ziren datuak zehaztu ziren, baita kanpaina-aurrearen epeak finkatu ere (webgunea bukatu gabe baitzegoen). Maiatzaren hasieran kanpaina-aurrea garatzeko beharrezkoak ziren gauzak prestatu ziren: testigantzen bideoen lagina (Quodsailekoekin batera), eragileak identifikatu eta haien kontaktuak lortu, proiektua eragile ezberdinei aurkezteko testuak moldatu, bi puzleen diseinua egin (hau EGKk proiektua berea egiteko, parte-hartzaileentzako egindako detailea izan zen), pertsona esanguratsuen zerrenda egin eta kontaktuak lortu, aniztasuna bermatuko zuten gazteen profilak zehaztu, etab.

2. HARREMANETAN JARRI:

Erreportari-boluntarioak lortzeko helburuarekin, gazteekin harremanetan zeuden eragile anitzekin harremana egin zen, haiek beraien gazte-sareetan ekimenaren berri emango zutelakoan eta gazteak parte-hartzera motibatuko zituztelakoan. Hauek izan ziren kontaktatutako eragileak: hiru unibertsitateetako erreferentziazko irakasleak (EHU, Mondragon Unibertsitatea eta Deustoko Unibertsitatea); Giza Eskubideen Foroko koordinatzailearen idazkaria; Gasteizeko Elizbarrutiko Laikotza taldea eta Gazte taldearen arduraduna; hiru lurraldeetako pertsona nagusien zenbait elkarte; Euskadi mailan memoria historikoa lantzen duten zenbait elkarte eta fundazio; EGKko erakundeak; EGKko bake ekimenetan parte hartu zuten gazteak...

Bestetik, gazte-erreportariak lortzen saiatzeaz gain, gizartearentzat erreferenteak diren pertsona esanguratsuen lekukotzak lortzen saiatu behar zen; beraz, eta hauen diskurtsoan aniztasuna bermatzeko, 14 pertsona erreferenteen zerrenda bat egin zen (7 emakumezko eta 7 gizonezko) eta haien kontaktuak lortzeko ahalegina egin zen (batzuen kontaktuak EJko Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak erraztu zituen).

3. ZABALPENA:

Maiatzaren erdialdean zabalpenarekin hasteko aukera izan zen eta horretarako lehen aipatutako eragileen kontaktuak erabili ziren. Baina hamar egunetan ez zen bideo bakar bat ere jaso. Beraz, EGK zabalpen zuzenarekin hasi egin zen eta EGKko erakundeetara posta elektronikoak eta deiak egiten hasi zen. Baita bake ekimenetan parte hartu zuten gazteei ere. Baina bideoak ez ziren iristen. Arrazoi horrengatik, ekainean Euskadin dauden nagusien elkarteekin eta memoria historikoa lantzen duten elkarteekin harremana egin zen.



Eta proiektua azaldu eta gero, elkarte batzuk grabatzeko prest aurkeztu ziren. Horrez gain, gizartearentzat erreferentziatzekoak diren pertsoneri ere grabatzera joan zen, besteak beste: Miren Lourdes Oinederra, Arantxa Urretabizkaia, Kakux Mendizabal, Paco Etxeberria, Mariano Ferrer, Javier Elzo eta Garbiñe Biurrunen testigantzak lortu ziren. Jasotako bideo guztiak (30 bat) editatu eta webgunera igo ziren.

Ebaluaketa orokorra

Memoriaren Plazaren proiektua ez zuen espero zen harrera izan. Hau, arrazoi desberdinengatik izan daitekeela uste da, hona hemen hipotesiak:

- Maiatzean gazteak kurtsoa amaitzear daudelako eta azkeneko lanak bukatzen eta azterketak prestatzen hasiak direlako. Beraz, gazteak inplikatzeko orduan, denbora falta eta lan kargak ez zuten batere laguntzen.
- Joan den urteko memorian adierazi zen bezala, familietan belaunaldien arteko inkomunikazio handia egon da eta gai hauei buruz hitz egiterakoan isiluneak izan dira nagusi. Egoera horretan testigantza bat ematea ez da batere erraza, batez ere, grabatua izan behar badu. Lehenik eta behin familia barneko konfiantza eta komunikazioa berreskuratu behar duelako, gero normaltasun egoera batean murgildu eta azkenik, beharbada, testigantza grabatu.
- Jendeak kostata grabatu du haren testigantza. Bere bizitza pertsonaleko istorioak direlako, batzuetan oso ezkutatuak dituztenak bai beldurra, bai lotsa, bai mina sortzen dietelako; eta zabaldu egingo den bideo batean kontatzea deserosoa zaielako.

Honela, Memoriaren Plazaren proiektuko koordinazio lanez gain, bideo gehienak grabatu behar izan dira, editatu eta webgunera igo. Egiteko hauek erreferentzia-funtsarako finkatuta zeudenak baino lanordu gehiago suposatu dutenez (bi hilabete eman ziren proiektu honekin), adostutako beste proiektuen lanorduek murriztu ditu.

5.4 BAKEHIZKETAK

Justifikazioa

Bakea eta Bizikidetzarekin lotuta dauden gaien gainean gazteek daukaten ikuspuntua aberasgarriagoa eta anitzagoa izan dadin, EAEko errealitatearekin harreman zuzena duten pertsona aditu eta esanguratsuekin topaketa bat egin da: Bakehizketak. Esperientzia sakona izateko, asteburu bateko barnetegia antolatu da. Ondorioak errazago ateratzearren, Bakehizketak atal ezberdinetan banatuak egon dira eta bakoitzean gai nagusi bat jorratu da; horretarako aproposa den dinamika zehatza eginez eta gero, solasaldia sustatuz. Era honetan, esperientzia interesgarriagoa izatea espero zen, baita iritzi eta pentsaera ezberdinak hobeto barneratzeko aukera ematea ere.

Helburuak

- Gazteak bakegintzaren protagonistak direla sirestarazi.
- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.



- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragileztat aitortuta izatea.

Ekintzen jarraipena

1. SORRERA:

2014an burututako Bake Ibilbideetan ideia sortu zen. Orainaldiaren txokoan parte-hartzaileei galdetzen zitzairen zein pertsona esanguratsu gonbidatuko luketen afari batera. Haien erantzunen bitartez gazteek gaiari lotuta dituzten jakin-minak identifikatzeko aukera izan zen. Beraz, saio desberdinetan antolatutako barnetegi bat egitea erabaki zen. Saio bakoitzean gonbidatu esanguratsu ezberdinak egongo zirelarik. Gainera, ohikoa ez zen metodologia erabiliko zen horretarako: mahai ingurua *solasaldi-estrukturatu*agatik ordezkatu egingo zen. Elkarrekin hausnartzea izango zen bide eta helburu.

2. AZPIEGITURA:

Lehenik eta behin ekimenaren asteburua zehaztu beharra zegoen. Azaroan beste eragileek antolatutako ekimen pilaketa egon ohi denez, urriaren egitea erabaki zen. Urriaren 20an ETAREN su etenetik 4 urte iragan eta azaroaren 10ean Memoriaren Eguna zela kontutan hartuta, erdian geratzen zen asteburuan egitea egokiena iritzi zen. Lekua? Arrasate. Alde batetik, hiriburuetatik aldentzea suposatzen zuelako, baina haietatik abiatuta garraio bide publiko zuzenak egotea ere beharrezkoa ikusten zen. Eta bestetik, Arrasate Euskadiren bihotza delako, bizikidetzaren bidean zailtasunak izan dituen. Udala auzorantz doan errepidearen ondoan dagoen hotel txiki batean egin zen, 24 pertsonentzako lekua duena: Santa Ana. Azpiegitura lotuta zegoenean, programa itxi egin zen: asteburuaren antolaketa eta elkarbizitza arauak, saioen antolaketa eta ordena, dinamikak eta gonbidatuen zerranda.

3. GONBIDATUAK ETA PARTE-HARTZAILEAK:

Esan bezala, Bakehizketak bost saiotan egituratuta zeuden. Hau zehaztuta, saio bakoitzeko lau gonbidatu esanguratsu behar ziren. Dokumentazio lanekin hasi baino lehen, gonbidatuak hautatzeko irizpideak ezarri ziren: gaian adituak edota gizarte edo gazteentzako erreferenteak izatea; euskaraz aritzeko gaitasuna izatea, edo behintzat ulertzea; emakume eta gizonezko kopuru parekatua egotea; profil ideologiko ezberdinekoak izatea; adin aldetik gazteak diren erreferenteak ere gonbidatzea. Gonbidapenei erantzunak jaso eta deiak eta emailak gurutzatu ahala, esperientzia berri hau era zuhur eta diskretoan eraman behar zela ikusi zen (mediatikoki eta politikoki). Beraz, gazte taldea sortzeko deialdi xume bat egin zen EGKko elkarte eta beste bake ekimenetara etorritako gazteen artean.

4. BAKEHIZKETAK:

Urriaren 23a eta 25a bitartean Bakehizketak burutu ziren. 18 gaztez osatutako taldea Arrasaten asteburua pasa zuen, EGKko hiru teknikariek batera. Bertara 20 gonbidatu hurbildu egin ziren eta gazteekin gogoetak elkar-trukatzeak aukera izan zuten. Konfiantzazko giroa laster sortu eta hausnarketa aberasgarriak eman zituzten bai gonbidatuek eta bai gazteek. Hemen Bakehizketetako datu orokorrak:





- Bakehizketen talde dinamizatzailea hiru teknikariek osatuta zegoen: EGKko presidentea, Komunikazio teknikaria eta Bakea eta Bizikidetzako teknikaria.
- Dinamizatzaileek azalpenak elebitan ematen zituzten eta parte-hartzaile nahiz gonbidatu bakoitza eroso sentitzen zen hizkuntzan hitz egin zezakeela bermatu zen, itzulpena momentuan egiteko azpiegitura teknikoa zegoelako. Saioaren arabera hizkuntza bat edo beste zuen presentzia gehiago, baina gaztelania nagusitu zen.
- Guztira 20 eta 34 urte bitarteko 18 gazte hurbildu ziren (9 mutil eta 9 neska). Gehiengo Gipuzkoatik etorri zen, Bizkaiatik 6, Nafarroatik 2 eta Iparraldetik bakar bat.
- Guztira 20 gonbidatu etorri ziren (9 emakume eta 11 gizonezko), lau saio bakoitzeko. Nortzuk ziren jakiteko kontsultatu Bakehizketen eskuorria.

Ebaluaketa orokorra

Bakehizketak topaketa EGKk Bakea eta Bizikidetzako lan arloan egindako ekimen garrantzitsuena bilakatu da. Horregatik aurrera atera ez diren beste proiektuen errekurtsioak bere gain hartu ditu: bai lanordu aldetik, bai diru aldetik. Gainera, espero baino erantzun positiboagoak jaso dira gonbidatuen eta gazteen partetik. Eta hori jasotako ebaluaketetan islatu egin da.

- Parte-hartzaileen artean banatutako ebaluaketa orriari esker, ondorio hauek atera dira:
- Parte-hartzaileek topaketaren berri, batez ere, ahoz-ahoz eta EGKren email baten bitartez izan zuten.
- Parte-hartzaile gehienak gaiarekiko duten interesagatik etorri ziren (edo beraien egunerokotasunean honetaz hitz egiteko aukerarik ez dutelako), baita esperientzia bizitzeagatik, proposamen berritzailea zela uste zuten eta. Askok zehaztu egin zuten errealitate anitzak bizi izan dituzten gazteen hausnarketak ezagutzeko ere etorri zirela, hain zuzen, haietatik ikasteko.
- Denek topaketa era egokian antolatuta zegoela eta egitaraua interesgarria iruditu zaiela adierazi zuten.
- Saioen iraupenarekin ados egon ziren, nahiz batzuek adierazi zuten motzak izan zirela. Dinamikak ere gustuko izan zituzten eta gonbidatuen profilak ere oro har interesgarriak iruditu zitzaizkien.
- Topaketan parte hartu zuten hiru eragileen jarrera egokia iruditu zitzaien: gonbidatuen, dinamizatzaileen eta gazte taldearena. Ondorioz, guztiak zioten taldean eroso sentitu zirela eta askatasunarekin hitz egiteko aukera izan zutela.
- Parte-hartzaile guztiek zer edo zer berria ikasi zutela azpimarratzen zuten. Gainera, beste gazte batzuen errealitateak eta ikuspuntuak entzuteko eta ezagutzeko aukera aberasgarria izan zela esan zuten.
- Horregatik guztiagatik, ezagun bat topaketa honetan parte-hartzea gomendatuko lukete.
- Bakehizketekin lortutako batz besteko nota bikainekoa da (9,5).
- "Beste iradokizun"en atalean hauxe ipini zuten:
 - *Muy contento con la actividad, ¡enhorabuena!*
 - *Puntuazio pixkat negatiboaren azalpena. Saioak hain interesgarriak ziren, motzegiak iruditzen zitzaizkidala. Asko gustatzen zait horrelako ekimenetan parte hartzea baina sentitu dut batzuetan ez nuela astirik nahi nituen*



erreflexio ala kezka azaltzeko. Bestetik dudarik gabe gonbidatuak oso interesgarriak ziren. Salbuespena niretzat: komunikabideko sektorearekin lotutako gonbidatuak (ez zaizkit egokiak iruditu).

- *Eskerrik asko, hori da bakearen bidea!*
- *Primeran!*
- *Gracias por darme la oportunidad de vivir esta experiencia y poder ser un poco más consciente de la realidad en la que vivo. Felicidades.*
- *Creo que en todas las sesiones nos hemos quedado con ganas de más, de seguir preguntando. Aunque no tengo claro que alargarlo hasta el infinito fuese la solución. La sensación general muy buena y muy positiva.*
- *Eskerrik asko.*
- *Agradezco la oportunidad, ya que he aprendido un poco más sobre los acontecimientos que ocurrieron en Euskadi, las opiniones de los demás en relación al conflicto con ETA, y lo importante de reconstruir el pasado en hechos ocurridos.*
- *Profil batzuk oso anitzak gai batzuetan, baina are gehiago exijituko nuke nik. Ulertzen dut zailtasuna. Gonbidatu batzuk monopolizatzaera jo dute. Baina betikoa da formatu hau agian berria izango zaie, hizketaldi unibertsitarioekin alderatuz gero.*
- *Fue para mí valioso poder conocer los aportes de muchos jóvenes a cerca de la paz y de las expectativas de transformación. Agradezco la oportunidad de poder intercambiar experiencias y sentimientos respecto a nuestras esperanzas y deseos para el futuro de nuestras comunidades.*

Gonbidatuen artean banatutako ebaluaketa orriari esker, ondorio hauek atera dira:

- Gonbidatu gehienak ekimenaren berritasuna mugituta etorri ziren, baita gazteekin egoteko aukera aprobetxatzeko ere. Gainera askok azpimarratu zuten espazio hauek sortzearen balioa eta beharra.
- Gehienek topaketa era egokian antolatuta zegoela adierazi zuten eta saioen iraupenarekin ados egon ziren.
- Beste gonbidatuen profilak ere oro har interesgarriak iruditu zitzaizkien.
- Topaketan parte hartu zuten hiru eragileen jarrera egokia iruditu zitzaien: gonbidatuena, dinamizatzaileena eta gazte taldearena. Ondorioz, guztiak zioten eroso sentitu zirela eta askatasunarekin hitz egiteko aukera izan zutela.
- Gonbidatu guztiek beste batzuen errealitateak eta ikuspuntuak entzuteko eta ezagutzeko aukera aberasgarria izan zela esan zuten. Eta etorri baino lehen zeuzkaten espektatibak bete egin zirela balioan jarri zuten, horregatik esperientzia errepikatuko lukete.
- Bakehizketekin lortutako batz besteko nota bikainekoa da (9).
- “Beste iradokizun” en atalean haxe ipini zuten:
 - *Eskerrik asko!*
 - *Hurrengora arte!*
 - *Se me ha quedado corta.*
 - *Mila esker.*
 - *Gran satisfacción.*
 - *Muy bien.*
 - *Gracias por organizar encuentros con jóvenes.*
 - *Es necesario más tiempo para el diálogo.*



- *Dispuesto a volver en otra ocasión. Gracias y salud.*
- *Como siempre hemos hablado demasiado los invitados.*
- *Eskerdun sentiarazi nauzue, oso giro ona (eta ahalmen hobea) antzeman dut topaketan. Bake iraunkorra gauzatu artean oraindik ditugun eragozpenekin (gabezi demokratikoei) ekiteko gogo eta irrika. Ohore bat izan da zeuon artean egon izana.*

Esan beharra dago, topaketa eta gero EGKtik eskerrak emateko email bat idatzi zela bai gonbidatu eta bai parte-hartzailei, eta askok erantzun egin zuten esker zabalago bat emanaz.

5.5 NAZIOARTEKO EGUNAK

Justifikazioa

2014an burututako ekimenetan argi geratu zen gazteek bakea eta bizikidetzari buruz esateko asko dutela; horregatik, otsailean lan talde bat sortzeko deialdia zabaldu zen. Helburua bakea eta bizikidetzarekin lotura duten Nazioarteko Egunean gazteentzako ekimenak pentsatzea, prestatzea eta garatzea izan da. Era berean, gai hauei buruzko ikuspuntuak eta bizipenak partekatzeko gunea sortu nahi izan da. Eta gizarteari ikustarazi gazteek bakearekiko daukaten konpromisoa. Gainera, horrela EGKrekin sortutako lotura ez dute galduko eta beharbada lantzen diren beste arloen gaineko interesa piztuko zaie.

Helburuak

- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragiletzat. aitortua izatea.
- Gazteak bakegintzaren protagonistak direla sinestarazi.
- Gazteon kezkek, beharrak, interesak eta proposamenak helarazi instituzio eta gizarteari.
- Giza baloreetan oinarritutako harremanak sortu.

Ekintzen jarraipena

1. DOKUMENTAZIOA:

Urte hasieran Bake eta Bizikidetzaren lan arloarekin lotuta dauden Nazioarteko Egunekin egutegi bat prestatu eta haien gaineko dokumentazioa bilatu zen. Hauek izan ziren hautatutako egunak: Egiaren Eskubidearen Aldeko Eguna (Martxoak 24); Torturako Biktimen Aldeko Eguna (Ekainak 26); Demokrasiaren Eguna (Irailak 15); Bakearen Eguna (Irailak 21); Indarkeria Ezaren Eguna (Urriak 2); ETArekin su etenatik lau urte (Urriak 20); Memoriaren Eguna (Azaroak 10); Tolerantziaren Eguna (Azaroak 16); eta Giza Eskubideen Eguna (Abenduak 10).

2. TALDEA SORTU:

Taldea sortzeko deialdi bat egin zen. Gazteak motibatuzko deialdia EGKko webgune eta sare sozialetan (Bake Ibilbideen bideoarekin batera) zabaldu zen: <http://www.egk.org/en/Last%20news/View/551> EGKko erakunde eta bake ekimenetara etorritako parte-hartzaileen artean ere zabaldu zen.



3. TALDEA MANTENDU:

Sortutako gazte taldearen artean erabaki zen hilean behin elkartuko zirela, zehatz-mehatz, hileko astelehen batean izango zela, 18etatik 20etara. Baina bi arazo suertatu ziren. Alde batetik, saio bakoitza EAEko hiriburu desberdin batean egiten zenez, hiriburu horretan bizi ez ziren gazteentzako oztopo bat bilakatu zen (denbora falta, lan karga, beste ardurak batzuk...). Eta bestetik, metodologia: beraien prozesuaren protagonistak izatearekin galduta sentitzen ziren. Horrek saioetara etortzen zen gazte kopurua murriztea eragin zuen. Beraz, udara eta gero deialdi berri bat egin zen. Oraingoan Memoriaren Egunarekin lotutako ekimen bat prestatzea eta garatzea proposatu zitzairen. Eta skypeko bilerak gehitu ziren. Hemen taldeak izan dituen saioen datak:



- Martxoak 16 (Donostian): zazpi gazte.
- Apirilak 20 (Bilbon): bost gazte.
- Maiatzak 25 (Gasteizen): bertan behera utzita.
- Ekainak 29 (Gasteizen): bi gazte.
- Irailak 14 (Donostian): hiru gazte.
- Urriak 7 (Skypetik): bost gazte.
- Urriak 19 (Bilbon): bost gazte.
- Urriak 28 (Skypetik): lau gazte.
- Azaroan: ekimena koordinatzeko email-kateak eta facebookaren bitarteko taldea.
- Abenduak 4 (Donostian): bost gazte.

4. MEMORIAREN EGUNA:

Hauxe izan zen Memoriaren Egunerako lan taldeak proposatutakoa: Euskadin azken hamarkadetan bizi izan den terrorismoa eta biolentzia politikoaren ondorioz egon eta egun dauden biktimen profil orokorrak sare sozialetan partekatzea, informazio-kate baten bitartez. Horretarako azaroaren 5etik 15era, Euskadiko gizartearen iragana eta orainarekin lotura zuten 12 istorio zabaldu ziren egunero arratsaldeko 18.00etan, EGKren Facebook eta Twitter-rean. Honen bidez, memoriak (memoria ezberdinek) duen garrantzia azpimarratu eta beste gazteen interesa piztu nahi izan da, istorio hauek euren sare sozialetan elkarbanatzeko helburuarekin. Istorioak biktima ezberdinen profil orokorretan oinarritu ziren; hau da, lan taldeko kideek errealitatean oinarritutako kontakizunetatik sortutakoak istorioak dira. Hemen albisteari esteka: <http://www.egk.org/en/Last%20news/View/621>

5. BESTE NAZIOARTEKO EGUNETAN EGINDAKOA:

Ezinbestekoa da aipatzea, Memoriaren Egunean lan taldeak gauzatutako ekimenaz gain, EGKk bakea eta bizikidetzarekin lotutako beste Nazioarteko Egunetan ere bere ahotsa entzunarazi duela.

- Egiaren Eskubidearen Aldeko egunean sare sozialetan sarrera bat jarri zen.
- Udaran Bizkaian egondako neofaxista gazte talde batek beste gazte bati egindako erasoaren kontrako salaketa egin zen.
- Bakearen egunean sare sozialetan sarrera bat jarri zen.



- Urriaren 20an ETAre su etenaren 4.urteurrena oroitarazteko albiste bat prestatu zen, non azkeneko Batzar Orokorrean onartutako komunikatua zabaldu zen. Hemen esteka: <http://www.egk.org/en/Last%20news/View/614>
- Giza Eskubideen Egunean testu bat zabaldu zen.

Adierazpen hauek guztiak EGKko Batzorde Iraunkorraren baimenarekin burutu dira, horietako batzuk haien inizatibaz gainera.

Ebaluaketa orokorra

Taldearen konpromiso eta partaidetza maila aldakorra izan da. Arrazoi honengatik zaila egin zaie ekimen gehiago sortu eta garatzea. Gainera, hasieran, proiektu honetan haiek zeukaten protagonismoa kudeatzeko arazoak izan zituzten, haien interes eta irrika guztiak nola bideratu ez zekitelako. Parte-hartze maila murrizten hasi zela ikusita, irailean gazteak Memoriaren Egunearekin lotutako ekimen bat sortzera eta garatzera deitu ziren. Honek harrera bikaina izan zuen lan taldeko gazteen artean eta proposamena burutzea lortu zen. Lortutako oihartzuna handiegia ez izan arren, oso positiboa izan da, eta komunikabide batzuk honen berri eman zuten. Taldeko parte-hartzaileekin egin zen ebaluaketa, gazteek lan taldearekin jarraitzeko asmoa aurkeztu dute. Hala ere, oraindik ez dituzte zehaztu zeintzuk izango diren hurrengo urteko lan ildoak. Gainera, bilera egunez aldatu egin dute, astelehenetik ostiralera, alegia. Era honetan, hurrengo urtean egiten den deialdian gazte gehiago apuntatuko direlakoan.

Bestetik, gainontzeko egun berezietan zabalduetako eduki eta albisteek oihartzun positiboa izan dute EGKko sare sozialetan, eta beste eragileek ere partekatu egin dituzte. Honek esan nahi du EGK gai hauetan aintzakotzat hartzen dutela.

5.6 BAKEA UNIBERTSITATEETAN

Justifikazioa

Bakegintza eta Hezkuntza, lotura estua duten bi alor dira, eskutik joan beharrekoak. Denbora faltagatik, 2014an EAEko unibertsitateetara bakea eta bizikidetzarekin lotura zuen ekimenen bat eramatea ezinezkoa izan zen. Beraz, 2015ean EAEko hiru unibertsitateetan gai hau modu batean edo bestean lantzeko erronka hartu zen.

Helburuak

- Gazte-bake lana eta hezkuntzaren mundua lotzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragiletzat aitortua izatea.
- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.



Ekintzen jarraipena

1. HARREMANA SORTU:

Unibertsitateetan zein motatako ekimenak antolatzeko aukera zegoen jakiteko eta bertako gazteei iristeko bideak zeintzuk ziren identifikatzeko, EAEan dauden hiru unibertsitateetako profesional desberdinekin harremanak sortzeko saiakera egin zen. EHUko irakasle batekin (EJko Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak emandako kontaktua) eta Arte Ederretako Fakultateko idazkariarekin. Mondragon Unibertsitatean, Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak egiten ari den ikasle talde batekin, "Hitzartu" blogaren kudeatzaileak, alegia; eta Komunikazio Fakultateko koordinatzailearekin. Eta Deuston, Giza Zientzia Fakultateko irakasleekin.

2. ERANTZUNEN KUDEAKETA:

Izendatutako eragile hauekin harremanak sortzen saiatu arren, lortutako emaitzak anitzak izan dira. Unibertsitatez unibertsitate azalduko dira lortutakoak:

- **EHU**n bi ekimenen bitartez saiatu gara gazteengana iristen. Alde batetik, Arte Ederretako idazkariaren kontaktua erabili zen Bake&Arte tailerra fakultate honetan antolatzeko eta bertako irakasle konprometituetera iristeko. Era honetan, irakasle horiek beraien erreferentziazko ikasleak tailerrera gerturatzeko motibatuzera gonbidatu ziren. Baina lortutako erantzuna ez zen espero zena izan. EHUko ikasle bakarra agertu zen Bake&Arte tallerretara. Bestetik, Memoriaren Plazaren proiektuan gazteak parte-hartzera motibatuzeko asmoarekin, EJko Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak irakasle baten kontaktua erraztu zuen. Ekimenaren informazioa bidali zitzaion berak beste erreferentziazko irakasle eta ikasleen artean zabaltzeko, baina honetan ere ez zen aurreikusitako erantzuna jaso.
- **Mondragon Unibertsitateari** dagokionez, internet bitartez aukera desberdinak bilatu ziren. Hitzartu taldea aurkitu zen. Blog bat abian zutenez, beraiekin kontaktua egiten saiatu zen. Horretarako, Komunikazio Fakultatera deitu zen. Erreferentziazko ikasle baten posta elektronikoa erraztu zuten, baita Komunikazio Fakultatearen koordinatzailearena ere. Baina bidalitako emailek ez zuten erantzunik jaso.
- Azkenik, **Deusto Unibertsitatearekin** saiakera egin zen. Dekanorde ohiarekin bilera bat adostu zen eta haren bitartez irakasleek bakea eta bizikidetzeta gaiak lantzeko talde bat bazutela jakin zen. EGKko proposamena azaldu zitzaionean, beste irakasleekin hitz egin eta ahaleginak egingo zituela adierazi zuen, baita gazte erreferenteak identifikatu ere; baina oso zaila ikusten zuela adierazi zuen. Hala izan zen, ez baita lortu bertan ekimenik garatzea. Bestetik, irakasle baten kontaktua lortu zen Memoriaren Plazaren proiektuan haren ikasleak parte-hartzera motibatuzeko, baina batek bakarrik parte hartu zuen azkenean.

Ebaluaketa orokorra

Urteko lehenengo sei hilabetetan lortutako emaitzak ikusita eta kurtsoa bukatuta iraila arte berriz harremanak sortzeko aukera ez zela egongo ziurtatua, beste proiektuei lehentasuna ematea erabaki zen. Orduan, EHUko ikerlari baten deia jaso zen. Demagun Elkartek bakea eta bizikidetzarekin lotutako hiru eguneko topaketa bat antolatuko zuen azaro bukaeran, non estatu mailako unibertsitateko ikasleak gonbidatuko zituzten hemengo



errealitateari buruz hausnartzeko. EGKri aukera eman zioten koordinazio lanetan aritzeko eta Euskadiko ikasleen taldea sortzeko. Baina plangintzan aurreikusita ez zegoenez, eta Bakehizketen antolaketan buru-belarri sartua zegoenez, ezetza eman zitzaion. Hala ere, hurrengo urtera begira aukera egon daitekeela uste da.

5.7 GAZTE-BAKE MANIFESTUA

Justifikazioa

2014 eta 2015ean bake ekimenetan parte hartu zuten gazteak bake manifestu original bat adostera gonbidatu nahi ziren. EJ bideratu duen Gizalegez akordioa oinarri hartuta, etorkizunera begira adostasun puntuak lortzea bilatzen zen, iraganarekin lotuta dauden diskurtso anitzak sortzen dituzten gatazkak saihestuta. Halaber urteko azken ekintza bezala pentsatuta zegoen, urtean zehar gauzatu diren ekimenak partaideengan hausnarketa hondar bat utziko zutelakoan. Era horretan, errazagoa izango baitzen adostasunak bilatzea eta gizatasunetik elkar ulertzea. Bestetik, manifestua ez zen soilik idatziz egingo, beste lengoai artistikoak erabilita ere sortuko zen. Gainera, lortutako akordioak (lortzen baziren) ez ziren ekimenaren interesgarriena izango, akordioetara iristeko bizi izandako prozesua eta honek mugitutako emozioak baizik.

Helburuak

- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.
- Gazteak bakegintzaren protagonistak direla sinestarazi.
- Gazteon kezkak, beharrak, interesak eta proposamenak helarazi instituzio eta gizarteari.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragileztat aitortua izatea.

Ekintzen jarraipena

Urte osoan zehar kolokan egon den proiektua izan da hau. 2014an Peace Programeko topaketa eta gero, EJko Bakea eta Bizikidetzak Idazkaritza Nagusiak 2015erako euskal eta Ipar Irlandako gazteen arteko truke bat antolatzea proposatu zion EGKri; baina datarik ez zegoen, ez eta programa zehazturik; beraz, neurri batean honen zain egon da eta Bakehizketek aurreikusita baino lan gehiago suposatu diote, ondorioz manifestua alde batera gelditu da.

Ebaluaketa orokorra

Hurrengo urteko lehenengo sei hilabetetan manifestua aurrera ateratzeko asmoa mantentzen da. Parte-hartzea irekia izango denez, EGKko erakundeetako gazteak gonbidatzeaz aparte, 2014 eta 2015ean bake ekimenetan parte hartu duten gazteak ere gonbidatuko dira.



5.8 GALDETEGIA

Justifikazioa

2014an EGK eta EJren hitzarmenaren baitan egindako ekimen guztietan ateratako ondorio nabarmenena hau izan zen: Euskadin pairatutako terrorismoa eta indarkeria politikoa, Giza Eskubideen urraketen erreparazioa eta errekonozimendua, eta bizikidetzaren eraikuntza, besteak beste, gai interesgarriak izan daitezke gazteontzat, baina ez daude haien lehenetsuen artean. Ondorio honen arrazoa, gaur egun gazteek bizi duten egoera izan daiteke: langabezi tasa altua, hezkuntza sistemaren erreforma, emantzipatzeko edo norberaren bizitza proiektua garatzeko zailtasunak... Hala ere, gazteek duten ikuspuntua era zuzenago batean ezagutu eta aztertzeke eta ondorio propioak ateratzeko asmoz, bakea eta bizikidetzarekin lotutako galdetegi bat prestatu egin zen Gazteriaren Kontseiluko harreman sarean zabaltzeko. Hemen galdetegirako esteka: <http://goo.gl/forms/IV9bTBZ8TI>

Helburuak

- Gazteek Bakea eta Bizikidetzaren gainean duten interes, parte-hartzea eta konpromiso maila ezagutu eta aztertzea; baita dituzten hausnarketak eta ikuspuntuak ere.
- Gazteen ahotsa instituzio eta gizarteari helaraztea.
- Ateratako ondorioen bitartez, EGKk gazteentzako bake ekimen egokiagoak prestatzea.

Ekintzen jarraipena

1. SORTU:

EGKren bakea eta bizikidetzaren galdetegi diseinatzeko, lehenik eta behin, beste eragile batzuek aldeztu aurretik sortutako galdetegiak aztertu ziren eta soziologo batekin kontrastatu: zein zen galdetegiaren ardatz nagusia, nolakoa zen hauen estruktura tematikoa eta erantzunak jasotzeko ematen zituzten aukerak, nolakoak galderak eta hauek adierazteko erabiltzen zen lengoaia... Gero, galdetegiarekin lortu nahi ziren helburuak finkatu ziren, honen arabera dokumentazioa bilatu eta azkenik, galdetegi sortu bai euskaraz bai gaztelaniaz.

2. FROGATU:

Galdetegi zabaltze aurretik froga bat egitea komenigarria ikusi zen. Horretarako profil desberdineko bi gazte aukeratu ziren: batek gaiarekiko interes eta konpromiso handia zuen, besteak, aldiz, gaiarekiko desinteresa eta konpromiso eskasa adierazten zuen; bata euskaldun abertzaletzat hartzen zuen bere burua, besteak, aldiz, ez. Froga honekin aztertu nahi zen galdetegi betetzeko 15 minutu beharko zirela; bai galderak bai erantzunak era egokian ulertzen zirela; eta erantzunetan aukera posible guztiak jasota zeudela.

3. ZABALDU:

Lagin egokia (orekatua) mantentzeko helburuarekin, ez zen galdetegi era masiboan zabaltze, baizik eta EGKren sarean dauden gazteen artean soilik zabaltze. Horretarako, EGKren baitan dauden elkarte guztiekin telefonoz hitz egin zen eta galdetegiaren xedea azaldu zitzaizkien, erakunde bakoitzeko behintzat mutil eta neska gazte bana galdetegi



betetzeko eskatuz. Baita bake ekimenetara etorritako gazteen artean ere galdetegia zabaldu zen.

Ebaluaketa orokorra

62 erantzun lortu dira: 32 euskaraz (18 mutil eta 14 neska) eta 30 gaztelaniaz (19 mutil eta 11 neska). Espero zen harrera baino hobea izan du. Aurten erantzunak behar bezala aztertzeko denborarik ez dagoenez, 2016an kaleratu nahi den bakea eta bizikidetzarekin lotutako ondorio txostenaren baitan jasoko dira.

5.9 BAKE EKIMENAK UDALERRIETAN

Justifikazioa

2014an hiru hiriburuetan gauzatutako formakuntza saioak eta Bake Ibilbideak, baita 2015eko udaberrian burututako Bake&Arte tailerrak ere, EAEko beste udalerrri batzuetan garatu nahi izan dira. Helburua, hiriburuetatik urruntzea da, herri-guneetan bizitzen diren gazteak ere konpromiso honetan inplikatzeko. Beraz, proiektu hau aurrera atera ahal izateko, udalerrietako gazte teknikariei proiektua aurkeztu zaie. Era honetan, EGK eta interesatutako udalak elkarlanean aritu dira, ekimenak bertako errealitatera ahalik eta gehien moldatzeko.

Helburuak

- Elkartegintzan sartuta ez dagoen herriguneetako gazteriarengana iristea.
- Gazteak bakegintzaren protagonistak direla sinestarazi.
- Gazteek errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragileztat aitortua izatea.

Ekintzen jarraipena

1. DEIALDIA PRESTATU

Deialdia ireki baino lehen, EGKtik zehaztu beharra zegoen nolako baldintzak ezarriko zitzaizkien haien udalerrietan bake ekimenak gauzatzeko interesa aurkeztuko zuten udaletxeei. Deialdian zera zehaztu zitzairen: hiru proiektu egiteko aukera ematen zitzaizela (Bake Ibilbideak, formakuntza saioa eta Bake&Arte tailerrak) kostu ekonomikorik gabe, partida horretarako utzi zen dirua agortzen zen arte. Aldiz, udaletxeen ardura EGKrekin ekimena gauzatzeko koordinazio lanak egitea zen: espazioak bilatu eta utzi, eta haien baliabideen bitartez gazte taldea sortu.

2. DEIALDIA ZABALDU:

Deialdia zabaltzeko eta, ondorioz, udalerrri guztietako Gazteria teknikariei iristeko ezinbestekoa zen baliabide desberdinak erabiltzea. Alde batetik, lurralde bakoitzeko Gazteria teknikarien lan sareekin: Gaztebizz Bizkaian, Gaztematika Gipuzkoan. Araban sare hori ez dagoenez, Foru Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundeko Gazteria teknikariarekin harremana egin eta honek EGKren deialdia Arabako udalerrietara zabaldu



zuen. Beste alde batetik, Bakeola erakundeak aurkeztutako ikerketa batez baliatuz (*EAEko Bakea eta Bizikidetzaren Planak*), EAEko zein udalek duten gaiarekiko sentsibilitate maila altuagoa jakin zen (haien udalerrietan Bakea eta Bizikidetzaren Plana dagoelako edota ekimenak garatu dituztelako). Beraz, udaletxe hauei eskaintza dei baten bitartez egin zitzairen. Interesatuak aurkezten zirenei, deialdiaren informazioa idatziz helarazten zitzairen. Hauek izan ziren telefonoz kontaktatutako udalerrriak:

- **Araban:** Laudio, Amurrio eta Agurain.
- **Bizkaian:** Gernika, Etxabarri, Lekeitio, Leioa, Ermua, Amorebieta, Balmaseda, Erandio, Getxo, Mungia, Portugalete, Sopelana, Durango eta Barakaldo.
- **Gipuzkoan:** Hondarribia, Irun, Zarautz, Elgoibar, Azpeitia, Orio, Getaria, Urnieta eta Lasarte-Oria.

Deialdiaren zabalpen ofiziala irailean egin zen. Udalerriei urriaren 31 arte ematen zitzairen apuntatzeko aukera, eta azaroaren 30era arte, berriz, EGKko proiektuak gauzatzeko.

3. ESKAKIZUNEN KUDEAKETA:

Oso udalerririk gutxi erantzun zuten EGKtik egindako deialdira. Zehatz-mehatz bostek egin zuten: Durango, Txorierriko mankomunitatea, Erandio, Barakaldo eta Zarautz. Udalerririk bakoitzeko Gazteria eragileekin posta elektronikoz hartu-emanak eta bilerak egin arren (Zarautzen: urriak 22 eta azaroak 9; Txorierriko mankomunitatean: urriak 1 eta 13; Erandion: urriak 13; Barakaldon: irailak 15), guztiek aurkitutako zailtasun nagusia gazte taldea lortzea zen. Beraz, eta kontutan izanda erronka hau udalerririk bakoitzaren eskutan zegoela, Zarautzek soilik aurkeztu zuen aurrera ateratzeko konpromisoa eta Bake Ibilbideak burutzeko asmoa.

Ebaluaketa orokorra

EAEko herrietan bake ekimenak gauzatzea ez da lortu. Era zuzenean kontaktatutako udaletxe gehienek hasiera batean interesa aurkeztu arren, azkenean emailaz bidalitako deialdira ez zuten erantzun. Emandako arrazoiaren artean hauek dira nagusienak:

- Gazteria teknikariek zinegotzien onspena behar dute proiektuak aurrera ateratzeko eta beharbada EGKko bake ekimenek ez dute filtroa pasa.
- Proiektuak kudeatzeko denbora behar da eta beharbada udaletxeetan dagoen lan kargatik, EGKk irekitako epea murrizta zen.
- Gazteria teknikariak zailtasunak dituzte haien herrietako gazteei gerturatzeko eta antolatutako ekimenetan parte-hartzea sustatzeko (instituziotik etortzen diren proposamenak automatikoki deuseztatzen dituztelako, gaia motibatzen ez zaielako, astialdirako denbora gutxi dutelako...).

Hurrengo urteari begira eta egoera hau kontuan edukita, EGKtik egiten den proposamena deialdia berriz zabalzea da. Baina oraingoan bi aspektu kontuan izanik: alde batetik, eskariaren epea zabalagoa izan behar dela (otsailetik azarora) eta bestetik, Gazteria teknikariei zinegotziekin bilera bat adosteko eskatzea. Era honetan proiektuak aurrez-aurre aurkeztuko dira eta bideratzeko aukera gehiago edukiko direla uste da. Azken finean, EGKk EAEko herrietako gazteei iristeko erronka mantentzeko beharra ikusten du.



5.10 BAKEAREKIN LOTUTAKO BESTE EKIMENAK

Hitzartutako egitasmoez gain, urtarrila eta Abendua bitarte, EGKk beste bake ekimen batzuetan parte hartu du. Kasu batzuetan EJko Bake eta Bizikidetzak Idazkaritzak antolatutakoak izan direlako; eta besteetan beste eragile edo gazte batzuek ala eskatu diotelako EGKri:

- Ehunberri proiektua: Donostia 2016, Gune Irekiak eta EHUko Psikologia fakultateko Gatazkak gainditzeko katedrak antolatutako topaketara EGK gonbidatu zuten otsailaren 27 eta 28an. Bertan, EGK, bakea eta bizikidetzarekin lotutako beste erakunde eta eragile batzuekin egon zen. Topaketa honen xedea gatazkak iraun duen urteetan gizartearen baitan sortu ziren eta egun diharduten erakunde eta eragileen ikuspuntua aztertzea zen. Hausnarketa horren bitartez Euskadiko ehundura soziala berreraikitze aurretik dauden erronkak finkatzeko asmoz.
- Gasteizko laiotzari aholkularitza: Gasteizko laiotzak urtero burutzen duen topaketa antolatzeko laguntza eskatu zion EGKri. Horren arrazoiak, 2015eko topaketa bakea eta bizikidetzarekin lotuta egin nahi zutelako zen. Nahiz bilera bat burutu eta bertan zenbait aholku eskaini, azkenean elkarlana ez zen posiblea izan, laiotzaren batz besteko adina 50-60 bitartekoa zelako.
- Estatu mailako biktimen topaketa: Ekainaren 5ean, Donostian, EJko Bakea eta Bizikidetzak Idazkaritza Nagusiak antolatutako Estatu mailako biktima topaketa dinamizatzaile gisa parte hartu zen.
- Gogora Institutoaren aurkezpena: Azaroaren 10ean Bilbon zabaldu den Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutoaren aurkezpena EGK gonbidatu egin zen.
- Aholkularitza: 2015ean zehar bake ekimenetan parte hartu zuten zenbait gazte arrazoi desberdinengatik EGKrekin harremanetan jarri ziren: unibertsitateko lanak egiteko aholkuak edo dokumentazioa behar zutelako, parte-hartze ziurtagiriak eskatzeko, prestatzen diren ekimenei buruz zalantzak argitzeko, etab. Guztiei erantzuna eman egin zaie.
- Aliatu berrien aukerak: Etorkizunari begira, Bakea eta Bizikidetzak lan arloa EGKn mantentzeko eta sendotzeko helburuarekin, EAEko Aldundietako Bakea eta Bizikidetzak zuzendariarekin bilerak eskatu dira. Bai Araban bai Bizkaian (maiatzeko hauteskundeak eta gero) oraindik zehaztu gabe dago nortzuk izango diren kargu hori hartuko duten pertsonak. Aldiz, Gipuzkoan, Elkarbizitza eta Giza Eskubideentzako Zuzendariarekin bilerak egin zen irailaren 21ean egindako lana aurkeztu eta etorkizunean elkar-lana egiteko prestutasuna aurkeztu zen.
- Komunikabideetan gazte-bake mezua zabaldu: Aurten bakea eta bizikidetzarekin lotutako ekimenak eta gazteek dituzten ikuspuntuak eta hausnarketak EAEko komunikabide desberdinetara helarazteko aukera egon da. Besteak beste: Onda Vasca, ETB, Herri Irratia, Infocom, Euskadi Irratia, etab.



6. BERDINTASUNA

6.1 BERDINTASUN TXOSTENA

Justifikazioa

2014ean, Espainiako Gazteriaren Kontseilua eta SEPEren (Servicio Público de Empleo) arteko akordio bati esker, EGKk langile bat kontratatu ahal izan zuen 5 hilabetez jardunaldi osoan. 2014ko abendutik 2015eko maiatza arte luzatu zen kontratua eta langilearen egiteko nagusia, *Berdintasun Diagnostikoa* egitea izan zen.

Epe horretan, ordea, txostena idazteko astirik baino ez zuen izan, dokumentua berrikusi, zuzendu, maketatu eta argitaratzeko denborarik ez zen izan, alegia. Gauzak horrela, EGKko arduradunek, egiteko horiek guztiak beste bide batzuetatik lortzeko ahalegina egin dute urte osoan zehar.

Helburuak

- Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaren egoera, zein LGTB kolektiboaren egoeraren gaineko diagnostiko bat garatzea.
- Gazteek generoa eta LGTB kontuetan duten ikuspegia ezagutzea.
- Diagnostikoa argitaratu eta zabaltzea.

Ekintzen jarraipena

Aipatu moduan, lehenengo 5 hilabeteetan zehar, lehenengo hipotesiak jaso, diagnostikoaren oinarri izango zen galdetegia diseinatu eta EGKko elkarteetatik abiatuz, erantzunak jaso ziren. Ondoren, jasotako informazioa landu eta txostena idazteari ekin zitzaion.

Behin txostena eginda zegoenean, jada berdintasun teknikaririk gabe, txostena Emakunderi helarazi zitzaion. Kontrastea eskatzeaz gain, haren itzulpena egitea eskatu zitzaion erakundeari. Udaran zehar itzulpena egin da eta irailetik aurrera, EGKko teknikari batek maketazioa egin du.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker, txostenaren ale batzuk inprimatzeko aukera izan da. Maketazioaz arduratu den Enplegu eta etxebizitza Teknikaria, abenduaren 4ean elkartu zen inprentako arduradunekin dokumentuaren kolorearen gaineko azken zehaztapenak adosteko.

Ebaluaketa orokorra

Oso zaila da benetako baliabide eta aurrekonturik gabe lan-arlo bat aurrera eramatea, baina berebiziko garrantzia duen gaia denez, EGKko lan taldeko teknikariek ezohiko ahalegina egin dute urtean zehar txostena aurrera atera zedin.



6.2 EMAKUNDEREKIN LANKIDETZA

Justifikazioa

Berdintasunaren bidea gizarte osoaren ardura da eta, hortaz, gazteriak ere lan handia du oraindik egiteke. Lana, berdintasunean sustraitutako harremanak gauzatzeko; lana, berdintasunean oinarritutako jarrerak barneratzeko; lana, berdintasun legal eta efektiboa lortzeko; baina baita ere, lan handia berdintasuna aldarrikatzerakoan ahotsa ozen altxatzeko. Gazteok, ikasteko dugun beste dugu irakasteko, konpartitzeko, sortzeko, hausnartzeko eta aldarrikatzeko.

Horregatik guztiagatik, beharrezko ikusten da gazte elkarten plataforma den Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko lanari sutsuki ekitea eta, Emakunde, berdintasuna sustatzeko erakunde den heinean, gazteen errealitate anitza eta bereziarekin elkarlanean aritzea. Hortaz, EGK eta Emakunderen arteko elkarlanerako proposamen bat aurkezten da, bi erakundeentzako aberasgarri izango delakoan, eta bereziki, euskal gazteria eta gizartearentzako aberasgarri izango delakoan.

Helburuak

- EGKk berdintasun lan-arloa modu egonkorrean martxan jartzea.
- EGKk bere egunerokotasunean genero ikuspegia modu eraginkorrean txertatzeko baliabideak lortzea.
- EAEko erakundeen arteko lankidetzak sustatzea gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasunean gazteen ahotsa helarazteko.

Ekintzen jarraipena

2014ko abenduaren 18an, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Emakunderen aholkularitza jasotzea onartu zuen, berdintasun teknikari bat izateko aurrekontua esleitzea eskatzen zuen proposamenaren harira talde legebiltzarkideen artean eginiko akordio transakzional baten ondorioz.

<http://www.parlamento.euskadi.net/irud/10/00/024612.pdf>

2014. urtean eta soilik 5 hilabetez, EGK-k berdintasun teknikari bat kontratatzeke kanpo finantziazioa lortu zuen. Teknikari honek EGKren Berdintasun Diagnostikoa garatu zuen, bai genero arloan eta baita LGTB arloan ere. Honetarako, Emakunderen aholkularitza izan zuen.

Egindako lanaren ondorioz, lan arlo hau EGKren baitan mantentzea lehentasun bat bihurtu da. Alde batetik, gazteen artean berdintasuna sustatzeko eta, bestetik, gazteria eta berdintasuna arloan administrazioarekiko interpelazioa eta elkarlana bultzatzeko. Horrela helarazten zaio Emakunderi eta entitate honek lankidetzak marko bat zehaztea proposatzen du.



2015ean, EGK-k bere baitan genero eta LGTB arloetan berdintasun diagnostiko bat egin du. Horretarako, EGKren antolaketa eta funtzionamendua hausnartu du eta EGKren kide diren elkarteetako gazteen artean berdintasun ikerketa bat egin da.

Emakundek ondorioak jaso ditu, entitate horrek garatu dituen beste ikerketekin datuak kontrastatzerakoan gazteria orokorra eta gazte elkartuen arteko ezberdintasunak erkatu ahal izateko dokumentazioa eskuragarri izanik. Horrez gain, dokumentu horren itzulpena Emakundek bere gain hartu du.

LANKIDETZA HITZARMENA: 2016rako honako proiektu hauek adostu dira Emakunderekin:

FORMAZIOA.

EGK-ren lan arlo guztietan berdintasunaren ikuspuntua zeharka txertatu ahal izateko eta lankidetzaren hitzarmen honetan zehaztutako ekintzak arrakastaz garatu ahal izateko, EGKko ardura maila ezberdinak dituzten pertsonen artean formazioa jasotzea beharrezkoa ikusten da. Horregatik, elkarteetako kideei (EGKren oinarria), Batzorde Iraunkorreko kideei (EGKren erabaki organoa) eta lan Talde Teknikoko kideei (EGKren ekimenean gauzatze organoa) zuzenduriko formazioa bermatuko da.

EGK ETA GAZTERIAREN I.go BERDINTASUN PLANA.

2015ean burututako berdintasun diagnostikotik abiatuta, EGKren I.go BERDINTASUN PLANA gauzatu, entitate honetan, honen parte diren elkarteetan eta azken hauen kide diren gazteen artean berdintasuna sustatzeko helburuarekin. Plan honek egin hartu beharreko neurriak eta epeak zehaztuko ditu.

Berdintasun plan honetan Emakundek, alde batetik, gazteen artean antzemandako berdintasun hutsuneak betetzeko neurriak proposatu ahal izango ditu, elkarlanean gauzatzeko. Bestalde, gizartearekin erkatuta gazterian antzemandako indarguneak gizartearen eragina izan dezaten neurriak proposatu ahal izango ditu ere, edo eta, gauzatutako ekintzetatik lortutako ondorioak gizartearen plazaratzeko erabili ahal izango ditu, gazteak eredu bezala erabiliz.

EMAKUME GAZTEAK ETA ENPLEGUA IKERKETA ETA PROPOSAMENAK.

Azken urteetan emakume gazte eta gizon gazteen arteko enplegu adierazleek aldaketa sakonak jasan dituzte: emakume gazteek ikasketa maila altuagoa dute, aktibitate tasa altuagoa dute, okupazio tasa altuagoa dute... eta hala ere, soldata arrakala ikusterakoan kaltetuta irteten dira (urtean emakume gazteek gizon gazteek baino 2.400 bat euro gutxiago kobratzen dute) eta, honi, gazte eta helduen arteko arrakala gehitu behar zaio. Hortaz gain, egoera hau gainkualifikazioa eta praktika eta beken datuekin osatu beharra dago, beste hainbeste estatistika hausnartzeaz gain. Zer gertatu da? Zeintzuk dira emakume gazteen berezitasunak enpleguaren arloan? Zeintzuk haien beharrak? Zeintzuk haien interesak? Guzti hau ikertu eta hausnartzea da EGKren helburua, lortutako ondorioak Eusko Jaurlaritzaren plan ezberdinetara bideratutako neurri proposamenak egitera bideratzeko (Berdintasun plana, Enplegu plana, Gazte Plana, eta abar).

Gazteen arteko arrakala ekonomikoa murriztu eta ekiditeko neurriak martxan jarritz gero, nagusien arteko arrakala ekonomikoa ere kolokan jarriko da. Izan ere, gazteek soldata ezberdintasun txikiagoak baldin badituzte ere, gaztetasuneko ezberdintasun hauek



urteetan areagotzen baitira. Arazoak, bazterkeria eta indarkeria ekonomikoa sustratik konpontzeko, hasiera puntuari erreparatu beharra dago, gazteriari alegia.

BERDINTASUNA EGK-REN LAN ARLOETAN ZEHARKAKO LERRO BEZALA SUSTATZEA (PRAKTIKA EGOKIEN LIBURUA).

EGK-k bere ekimenak bideratu eta EGKren elkarteei aholkularitza emateko Praktika Egokien Liburua argitaratu zuen 2014ean. Bertan, berdintasunaren arloko hainbat iradokizun barneratu ziren, baina dagoeneko hauek berritu eta helburu altuagoak ezartzea komeni dela baloratzen da, bai genero arloari dagokionez eta baita LGTB arloari dagokionez ere.

Horrela ba, honen inguruko hausnarketa egin eta P.E.L.-aren eguneratzeari ekin beharra dago, honek, EGKren egunerokotasunean eragina izanda, goiz edo berandu euskal gazterian eragina izango duelakoan.

GAZTEEN ARTEKO INDARKERIA MATXISTAREN ETA LGTB-FOBIAN OINARRITUTAKO INDARKERIAREN AURKAKO PROTOKOLOAK.

Tamalez, gazteen artean genero indarkeria adibideak oraindik dira ugari bikoteetan. Urteetan lan handia egin izan da eta, gaur egun ere ere, indarkeria matxistari ematen zaizkion erantzunak ez dira gutxi. Hala ere, gazteek eragindako edo jasandako indarkeria kasuak ematen direnean gazteek beraiek erantzun publiko bat ematea beharrezko ikusten da. Gauza bera gertatzen da LGTB-fobiak sustatutako indarkeriarekin.

Horrela, EGK-ren baitan lan istripuekin salaketa protokolo bat dagoen moduan, indarkeria matxista eta LGTB-fobiak sustatutako indarkeria salatzeke beste bi protokolo jarri nahi dira martxan. Honek, indarkeria hau sortu edo pairatzen duten pertsonen kolektibotik bertatik, alegia, gazteriatik, irteerako ahots bateratu bat izateak beste gazteen kontzientzian ozenago entzunaraztea bideratu dezakeelakoan baikaude.

Normalean, protokolo hauek gazte bat parte den indarkeria kasu bat ematen denean aktibatzen dira, eta prentsa-ohar baten bidez salaketa publikoa eta aldarrikapena kaleratzen da. Dena den, beste elementu batzuk barneratzea baloratu daiteke, adibidez, kontsentrazioetara deialdia egitea.

Hau momentuan egin ahal izateko, EGKko batzar orokorrak onartutako testu bat izan behar da, eta horregatik da beharrezkoa protokoloa, azken finean, EGK-ren ardurak ondo zehaztu eta salaketa bideratu ahal izateko.

BELAUNALDI ARTEKO BERDINTASUN TOPAKETA.

Feminismoaren baitan belaunaldi arteko erreleboa falta dela somatu egin da azken urteetan (Emakunde). Emakume elkarteetan gazte gero eta gutxiagok parte hartzen dute eta ezin daiteke esan soilik pertsona gazteen kopuruaren jaitsieraren islada denik. Horregatik, interesgarri ikusten da adin ezberdineko feministen arteko topaketa bat egitea, emakume gazteen presentziari arreta jarriz, egoeraren diagnostiko bat egin eta mugimendu feministaren baitan identifikatzen diren errelebo-erronkei erantzuteko irtenbideak bilatzeko helburuarekin.

ADOSTUTAKO BESTE EKINTZAK (MASKULINITATE BERRIAK, TRATU ONAK...)



Beste ekintzaren bat gauzatzea apropos ikustekotan, hemen zehaztuko litzateke, adibidez, maskulinitate berrien edo tratu onen lanketa gazteen artean.

ELKARREKIKO AHOLKULARITZA ETA EKINTZA PUNTUALETAN PARTE-HARTZEA ETA INFORMAZIO TRUKAKETA ETA ZABALPENA.

Urtean zehar, entitate batek edo besteak garatutako ekimenetan hitzarmen honetako beste lankideak parte hartzea edo aholkularitza ematea egoki baderitzo, horrela egingo da. Hortaz gain, erakunde bakoitzak sortutako materiala, egindako ikerketak edo gauzatutako proiektuen inguruko informazioa elkar trukatu eta zabalpenean laguntza behar izatekotan hala egingo da.

Ebaluaketa orokorra

Urte honetan zehar, hainbat bilera egin dira Emakundeko teknikari eta arduradunekin. Biler horietara, EGKko berdintasun teknikaria (egon den bitartean), enplegu eta etxebizitza teknikaria, parte-hartze teknikaria eta presidentea joan dira kasuan kasu:

Urtarrilaren 9an

Ekainaren 2an

Irailaren 30ean

Horiez gain, emailez ere komunikazio jarraia mantendu da.

Harreman honek aldaketa handia ekarri dio Gazteriaren Kontseiluari emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunari dagokionez. Inolako laguntza edo baliabiderik ez izatetik, adituen aholkularitza eta laguntza izatera pasa da. Oraingoz lan-arloa guztiz martxan jarri ez bada ere, teknikari arduradunik gabe ere bultzada handia eman zaio 2015ean zehar hainbat ekintza txiki eginez.



7. PRESIDENTZIA

7.1 BATZORDE IRAUNKORRA

Justifikazioa

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGKko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkari osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2015ean, legeak ezartzen duen moduan, Batzorde Iraunkor berria osatu da. Batzorde Iraunkorreko kide berriek EGKren gainean daukaten ezagutzan sakondu beharko dute, Batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu.

Bestalde, Presidenteak zubi lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziatik Batzorde Iraunkorra gai guztietan jakinaren gainean mantentzeko lana egingo du baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

Orokorra:

EGKren gaineko erabaki nagusiak bideratu.

Zehatzak:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.
- Ardura banaketa errespetatu.
- B.I.eko kideen parte hartzea sustatu.

Ekintzen jarraipena

Batzorde Iraunkorra data hauetan elkartu da 2015ean zehar:

Urtarrilak 12 eta 26
Otsailak 9 eta 23
Martxoak 2 eta 23
Apirilak 13 eta 27
Maiatzak 11 eta 25
Ekainak 8 eta 29



Uztailak 20
Irailak 14 eta 28
Urriak 13
Azaroak 2, 16 eta 30
Abenduak 14

Ebaluaketa orokorra

Taldekideen inplikazioa eta konpromisoa oso ezberdina izan da. Bakoitzaren lan arloarekiko jarraipena eta egunerokoarekiko interesa, batetik bestera, erabat ezberdina izan da. Horrek desoreka handia ekarri du langileekiko. Batzordeko bileretan behin baino gehiagotan gogorarazi da kideen oinarritzko egitekoak zeintzuk diren, baina hala ere, ez da lortu konpromisoa orekatua izatea.

Presidentziatik ez da lortu iraunkorkideak ekintza, agerraldi, negoziazio bilera eta abarretan inplikatzetik. Baliteke koordinazio falta egon izana edo gutxi eskaini izana. Une oro taldeari informazio eta egunerokoaren berri emateko ahalegina egin da, bilerak, emailak, whatsapp-ak edo audioak bidalita.

Orokorrean taldekideak bileretara joan dira, baina guztietan jendea falta izan da. Batz bestekoa 6-7 pertsona bilera bakoitzeko hasieran. Urte amaiera aldera, gutxiago. Bilerak gehien bat informatiboak izan dira, baina erabaki behar izan denetan, hala egin da.

Erabakiak ez dira beti bileretan hartu, gertatu izan da inoiz whatsapp-a edo posta elektronikoa erabili behar izatea berehalako erabakiak hartzeko. Ez da honetarako protokolorik ezarri, aurreikusia bazegoen ere. Inoiz baino zailagoa izan da adostasunak lortzea; izan ere, gaztetxeen protokoloa bertan behera utzi zenetik, Batzorde Iraunkorraren esku gelditu zen adierazpenak egitea edo ez erabakitzea eta testuak adostea.

Elkarteen erantzuna ohikoa izan da, eta ez da Iraunkorreko taldeen parte hartzea ohi baino handiagoa izan.

Urtean zehar, BI-ko kide den elkarte bat desegin da; hori dela eta, 11 izatetik, 10 izatera igaro da taldea. Horrez gain, beste kideetako bat, arrazoi pertsonalak direla medio, BI-ko bileretara etortzeari utzi dio. Hurrengo Batzar Orokorrean erabakiak hartu beharko dira hutsunerik egon ez dadin.

7.2 LAN TALDE TEKNIKOAREN KOORDINAZIOA

Justifikazioa

Lan Talde Teknikoa EGKko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero, eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezkeen guztiak eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bilatzen dira eta zubi lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lan Talde Teknikoaren artean, aurrenekoan



hartutako erabakiak bigarrenora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lan Talde Teknikoa hilabetean behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearnak dira. Horrez gain, gutxienez bi astetik behin, SKYPE bidezko bilera teknikoak egiten dira.

Aurten, hainbat teknikariren erreleboa dela eta, 2 lan deialdi eta aukeraketa prozesu burutu dira. Prozesuak presidentziazatik koordinatu dira Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin.

Helburuak

Orokorrak:

Lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.

Zubi lana egin Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean

Ekintzen jarraipena

Ekintzak

Lan Talde Teknikoaren bilerak

Bilera hauek, hilean behin presentzialak izan dira, lurraldeak txandakatuz. Horrez gain, urte amaieran, skype bidezko bilerak martxan jarri dira. Honekin, koordinazioa hobetzeaz gain, eraginkortasuna eta denbora aurreztu dira.

Batzorde Iraunkorrek bilerak

Bilera bakoitzaren aurretik, talde teknikoak aurre prestaketa bat egin du.

Jarraipen bilerak

Egunerokoaren erritmoak ez du hainbat gai lantzeko aukerarik ematen. Bilera teknikoetan gai gehienak jorrazteko ahalegina egiten bada ere, zenbait gai bakarka eta aurrez-aurre landu daitezke soilik. Urtean behin gutxienez presidentea teknikari bakoitzarekin elkartzen da banan-bana. Bilera horretan, lan-arloaz, teknikariaren lanaz eta EGKren gainean hitz egiten da.

Aukeraketa prozesuak

Aurten 2 izan dira egin behar izan diren deialdiak.

Deialdirako irizpide batzuk ezartzen dira Batzorde Iraunkor eta teknikoaren artean. Ezarritako irizpideen arabera lehen aukeraketa bat egiten da; ondoren, idatzizko froga; eta azkenik, elkarrizketa egiten da.

Parte-hartze teknikaria: iraila.

Enplegu eta Etxebizitza teknikaria: azaroa.

Egunerokotasuna



3 egoitza ezberdinetan lan egiten dela kontuan hartuz, egunerokoan jarraipena egiteko baliabide ezberdinak erabiltzen dira: whatsapp talde teknikoa, skype talde teknikoa, “teknikoa” posta elektronikoko distribuzio taldea.

Horrez gain, lan taldearen giroa eta baldintzak zaintzeko ahalegina egin da. Koordinazioaz gain, giza baliabideak gizatasunetik landuz eta behar ezberdinak asetzeko ahaleginak eginez.

Ebaluaketa orokorra

Azken urteetan lan-taldea murriztu eta hazi da berriro ere. Hazkuntza hori asko nabaritu da proiektuen ugaritzean, egutegia data garrantzitsuz bete delako, besteak beste. Taldeak sendotasuna lortu du, gaitasun eta ezaugarri ugariak ekipoa da.

Oro har, egitasmo guztiak arrakastaz burutu dira eta plangintzan zegoena baino gehiago egin da denen artean.

Aurrerantzean, langileen arteko komunikazioan, kohesioan eta koordinazioan sakontzen jarraituko da EGKren egitekoari kalitatez eusteko.

7.1 BATZORDE EKONOMIKOA

Justifikazioa

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGKko administrariak, diruzainak eta presidentek osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarten kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-unekeo gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2015eko aurrekontuaren kudeaketa egin da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, erakundeekin hitzarmenak negoziatu dira. Horrez gain, beharrezkoak izan diren gastuak baloratu eta onartu dira.

Azkenik, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatu dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egin da.

Helburuak

Orokorrak:

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.
- Alor honetan unean-unekeo erabakiak hartu.

Zehatzak:

- 2015eko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa prestatu



Ekintzen jarraipena

Batzorde Ekonomikoaren bilerak

Jarraipena maiz egin da. Urtean 2-3 bilera besterik egin ez badira ere, koordinaziorako gainontzeko baliabideak erabili dira administraria, diruzaina eta presidentearen artean (posta elektronikoa eta telefono deiak batez ere).

Barne Auditoriak: otsailaren 18 eta 26an izan dira.
2016 aurrekonturako bilera: urriaren 6an.

Aldundiekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkariak.

Eusko Jaurlaritzarekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkariak.

Batzar Nagusietako alderdiekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkariak.

Ebaluaketa orokorra

Egoera ekonomikoa.

2015ean zehar, beti bezala, hainbat ezusteko ekonomiko gertatu dira, baina aurreko urtekoak baino arinagoak izan dira eta proiektu guztiak behar bezala gauzatu dira. Aurtengo egoera ekonomikoaren egonkortasunak ahalegin handiak eskatu ditu, hainbat bilera, negoziazio luzeak eta lankidetzak-hitzarmen ugari. Urtez-urtez esfortzu berdina errepikatu behar izateak zailtasunak ekar ditzake etorkizunean. Zentzu horretan, administrazio eta erakundeekin lankidetzak sendoagoak negoziatu beharko lirarteke, Kontseiluak egiten duen lanari jarraipena eta egonkortasuna emateko.

7.4 BATZAR OROKORRA

Justifikazioa

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan EGKko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria aurkezten zaie eta urte horretarako plangintza, onartu edota atzera bota daitezkeen. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzeko da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean, 2015ean kasu.

Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, presidentea da Batzarreko Mahaiko arduraduna eta Batzarra bera dinamizatzen duena.



Helburuak

Helburu Orokorra:

2015eko Batzar Orokorraren koordinaketa eta dinamizazioa.

Zehatzak:

Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatu.

Aldez aurretik elkarte proposamenak jaso eta aurkeztu.

Ekintzen jarraipena

Memoria eta plangintzaren prestaketa.

Honek izugarrizko lana suposatzen dio EGKko lan talde teknikoari eta nabarmen koordinazio lanak egiten dituen presidenteari; izan ere, dokumentu guztiak honen eskutik pasa behar izaten dira.

Bi dokumentu hauek fase ezberdinetan teknikari bakoitzak, talde tekniko osoak eta Batzorde Iraunkorrek aztertzen dituzte Batzar Orokorrari aurkeztu aurretik. Honekin, koherentzia, zuzentasuna eta egokitasuna bermatu nahi dira.

Batzarreko gai ordena eta antolaketa.

Oinarrizkoa mantentzen da eta urtean urteko beharren arabera gauzak gehitu. Batzarrera begira, memoria eta plangintzen aurkezpen lanak banatu egiten dira, pertsona ezberdinen artean egin dadin.

Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

Deialdia egin eta batzarra bitartean, elkarte ezberdinen proposamenak jasotzen dira. Horietako batzuk Batzorde Iraunkorrek aztertu behar izaten ditu aurretik.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

Batzorde Iraunkorrek aztertu behar ditu elkarte guztiei zabaldu aurretik.

Ebaluaketa orokorra

Batzarraren eraginkortasuna.

Erabaki garrantzitsu asko hartu ziren, 2015 osorako lan plangintza besteak beste, urte osoko proiektuak hain zuzen.

Elkarteek egindako proposamenak bozkatu ziren.

Batzorde Iraunkor berria osatu zen: Hezkide Eskola, Mujeres Jóvenes, Gaztetxoen Koordinakundea, JSE-Egaz, Uzturre, Kale Dor Kayiko, Iratzarri, Gazte Abertzaleak, EGI, FVJE, Gazte Kanpusa.

Elkarteen iritzia.

2015eko Batzar Orokorrak adostasun maila handia lortu zuen, baina ez aurrekoa bezain beste. Aurrekoan ez bezala, elkarte kopuru nahiko handia bertaratu zen. 61 elkartetik, 40ek gutxi gorabehera parte hartu zuten. Urtetik urtera kopurua handitzen joatea espero da.



7.5 LANKIDETZAK ETA ORDEZKARITZA

7.5.1 EUSKO JAURLARITZA

Justifikazioa

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik jasotzen da.

Urtean zehar, aurreko urtean lortutako harremana berriak, zein zaharrak, sendotu egin dira nabarmen: Gazteria Zuzendaritzarekin, Bake eta Bizikidetzaz Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Kanpo Harremanen Idazkaritzarekin, Lanbiderekin eta Hezkidetzaz Planaren Batzordearekin, besteak beste. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2016ean elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Azkenik, azpimarratu nahi da, mahai interinstituzionala elkartu ez bada ere, EGKk bere deialdi bati esker, administrazio guztietako gazteria arduradunak elkartzea lortu duela Gazte Label proiektuari esker.

Helburuak

Helburu Orokorrak:

- Elkarlanerako guneak identifikatu.
- Eragin politikoa izan.

Zehatzak:

Zuzendaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatu.
Mahai interinstituzionalean parte hartu.
EGKren aurrekontua egonkortzeko-handitzeko lana egin

Ekintzen jarraipena

Egindako bilerak

Gazteria Zuzendaritza:

- Otsailak 6 eta 19.
- Uztailak 10, 17, 20 eta 27.
- Urriak 8 eta 21.
- Azaroak 23

Gazteen Behatokia:

- Martxoak 23 eta urriak 22
- Parte-hartze ikastaroa Maiatzaren 25etik 28ra.

Enplegua - Xabier Ochandiano (Berrikuntza Zuzendaria):

- Martxoak 24

**Enplegua eta Lanbide - Xabier Ochandiano (Berrikuntza Zuzendaria), Gotzone Sagardui eta Juan Ibarretxe zuzendariak:**

Ekainak 4.

Enplegua – Angel Toña (Enplegu eta Gizarte Politika Sailburua), Jose Andres Blasco (Enplegu Sailburuordea), Amaia Arteaga (Berrikuntza Zuzendaria):

Uztailak 22 eta Urriak 24

Lanbide – Gotzone Sagardui:

Abenduaren 4a

BakeaKoordinazioa:

Apirilak 16, 22 eta 28. Irailak 25 eta abenduak 16

Peace Programe:

Otsailak 3.

B&B Planaren kanpo ebaluaketa:

Maiatzak 19

EGK-EJ Bake Hitzarmena:

Ekaniak 2

“Terrorismoaren biktimak eta gizartea” jardunaldiak

Ekainak 5

Kanpo Harremanen Zuzendaritza – Asier Vallejo:

Irailak 16 eta abenduak 2.

Iñigo Urkullu Lehendakariarekin topaketa:

Maiatzaren 13an.

Astialdia

Gazteria eta Lanbiderekin bilera eskola guztiekin: maiatzaren 21ean.

URA Agentziarekin: azaroaren 19an.

Hezkidetza batzordea:

urtarrilak 19

Esan beharrik ez dago, bilera presentzial hauez gain, email bidezko harremana eta informazio trukaketa ere egon dela.

Ebaluaketa orokorra

Atal honetan, esan daiteke helburuak zein ekintzak neurri handi batean bete direla. Elkarlanerako guneak identifikatu eta gauzatu dira, eta harreman berriak lortu.

Intzidentzia politikoa inoiz baino handiagoa izan da, enplegu planeko gazteei zuzendutako neurriek izan duten aldaketa nabarmenak horren adierazle dira.

2015 urtean, Eusko Jaurlaritzako atal ezberdinetatik eskari asko jaso dira. Kontseilua erreferente argi bat bihurtu da eta ahal den neurrian, arlo ezberdinetan aholkularitza



ematen eta proiektu ezberdinetan parte hartzen ahalegindu da ekipoa. EGKren presentzia eskatu denean, erantzuten saiatu da.

Informazio trukaketa bermatzeko ahaleginetan, inoiz baino koordinazio bilera gehiago egin dira Gazteria Zuzendaritzarekin, EGKren aurrekontua egonkortu eta neurri txiki batean handitu da 2015ean. Hortaz, bileren eraginkortasuna begi bistakoa da eta EGKren lana balioan jarri da.

7.5.2 ALDUNDIAK

Justifikazioa

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen gainean lan egiten da. Horretarako, 2015ean lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin hitzarmen bat sinatzeko ahalegina egin da, azkenik Gipuzkoa eta Bizkaian baino lortu ez bada ere.

Helburuak

Orokorra:

Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

Zehatzak:

Hitzarmenak adostu.

Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egin.

Ekintzen jarraipena

Bileren maiztasuna

ARABA:

Urtarrilak 15 eta urriak 19 (Zuzendari berria eta Ahaldun berriarekin).

BIZKAIA:

Koordinazioa zuzendariarekin: martxoak 23 eta urriak 9.

Diru laguntza tribunala: maiatzak 22.

Sustapen Ekonomikoa: urtarrilak 21 eta urriak 9.

GIPUZKOA:

Zuzendariarekin (Jokin Melida eta Goizane Alvarez): urtarrilak 13, uztailak 27 eta urriak 19.

Koordinazio teknikoa: Otsailak 12, apirilak 23, irailak 25.

Gaztematika Jardunaldiak: martxoak 16 eta 17.

Bakea Zuzendaria - Maribel Vaquero: urriak 21.

Sustapen Ekonomikoa – Antton Tomasena: urriak 25.

Komunikazio Ahalduna – Imanol Lasa: azaroak 5.



Ebaluaketa orokorra

Bileren eraginkortasuna

Negoiazio eta hartu eman ugari egon dira adostasunetara iritsi ahal izateko, baina ez da kasu guztietan lortu. Erakundeek ez dute EGKren egitekoa guztiz ulertzen eta neurri handi batean, hori da ulertzeko ezintasunaren arrazoia. Kontseiluaren helburua eta gaitasunak ulertzen dituzten heinean, lankidetzeta-hitzarmen eraginkorragoak adostu ahal izango direla uste da.

Lankidetzeta gunen sorrera

Hauteskundeek zuzendaritza guztietan eragina izan dute eta horrek harreman berriak eta planteamendu berriak egitera behartu du Kontseilua. Bizkaian esaterako, berregituraketa handi bat gertatu da; hori dela eta, urteko bigarren zatian harremana nolabait eten egin da, baina harremana mantentzeko borondatea helarazi zaio EGKri.

Arabian, urte hasieran egindako proiektu proposamenek kontrako jarrera eta ezezkoak jaso zituzten. Gauzak horrela, ez zen lankidetzeta-hitzarmenik adostea lortu. Hauteskundeen ondoren, arduradun berriein bilera bakarra egin da, oraingoz, ordea, ez da gauza handirik lortu.

Gipuzkoari dagokionez, zuzendari berriarekin 2 bilera egin dira, baina ez da hurrengo urtera begirako adostasunik lortu.

Hiru aldundietatik, bakar batean lortu da soilik Gazteriako ardura duen ahalduzarekin elkartzea, Araban hain zuzen ere.

Lankidetzaren eraginkortasuna

Zaila da neurtzea EGKren parte hartzeak eta egindako kontraste, txosten eta adierazpenek zenbaterainoko eraginkortasuna izan duten Aldundietako politika publikoetan. Aurten, susmoa da ez dela behar adina inzidentzia eduki.

EGKk inoiz baino proposamen zehatz gehiago egin ditu. Inoiz baino presentzia publiko gehiago izan du; baina hala ere, proposamen horiek ez ditugu plan estrategiko eta neurri zehatzetan islatuak ikusi. Gipuzkoak 4 urtetarako egin duen Plan Estrategikoak esaterako, ez du gazteria aipatu ere egiten.

Aurrekontuan eragina

2015ean, Bizkaia eta Gipuzkoak EGKrekin zuten akordioa mantentzea lortu da partida ekonomikoak ere bere horretan mantenduz. Araban berriz, ez da inolako akordiorik lortu.

7.5.3 EUSKO LEGEBILTZARRA

Justifikazioa

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGKk agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordean, Sustapen Ekonomikokoan edo dagokionarekin bilduz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.



Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gaineko erantzuna emateko, bertaratu eta hala egiten da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

Orokorrak:

Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

Zehatzak:

Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.
Gazteen egoeraren berri eman instituzio eta gizarteari.

Ekintzen jarraipena

2015ean, berriro ere, 4 agerraldi egin dira:

- Enplegu komisioan agerraldiak: urtarrilak 26 eta azaroak 16.
- Gazteria komisioan agerraldiak: urtarrilak 26 eta apirilak 29.

Gazteen enplegu proposamenak aurkezteko bilerak:

EAJ: ekainak 18.

PSOE: ekainak 30.

EH Bildu: uztailak 22.

Ebaluaketa orokorra

Agerraldien kalitatea eta eragina

Kalitateari dagokionez, informazio, datu eta material nahikoa ematen ahalegindu da EGK. Gainontzekoa, hizlariaren abileziaren araberakoa izan da. Eraginkortasun maila neurtzea zaila da. Alderdi gehienek galderak egin dituzte, baina ezin jakin zenbatean eragin duen diskurtsoak. Azken aldirian, inoiz baino gehiago aipatzen da Gazteriaren Kontseilua Eusko Legebiltzarrean. EGKk erabilitako argudioak eta proposamenak gehiagotan aipatzen dira lehen baino.

7.5.4 BATZAR NAGUSIAK

Justifikazioa

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken gaineko hausnarketa



eta gazteen egoerari buruzko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldi eta bileren bitartez.

Helburuak

Helburu Orokorra:

Elkarlana sustatu.

Zehatzak:

EGKren presentzia instituzioetan egonkortu.

EGKren egitekoaren berri eman.

Lurraldeko gazteriaren egoeraren berri eman.

Hitzarmenak negoziatu.

Ekintzen jarraipena

2015ean agerraldi bakarra egin da, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, urtarrilaren 28an. Presidentziatik hiru bilera egin dira Gipuzkoako Bildu eta Sozialista batzarkideekin, eta Arabako Bildu-rekin. Hala ere, hiru lurraldeetako talde batzarkideekin bilerak egin dira gazteen enplegu proposamenak aurkezteko: *ikus Enplegu eta Etxebizitza atala.

Ebaluaketa orokorra

Komunikabideen erantzuna

Ez du medioetan oihartzun handirik izan. Gehien bat EGKren sare sozialetan eman da honen berri.

Eraginkortasuna

Oraindik ere EGK oso ezezaguna da hiru lurraldeetako Batzar Nagusietan eta kide diren alderdien artean. Hori dela eta, egiten diren adierazpenek duten eragina, txikia dela uste da. Kontseiluaren presentzia areagotu behar da eta gazteen iritzia eta beharrak ahal den guztietan helarazi.

7.5.5 UDALAK

Justifikazioa

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Orokorrean EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Arduradunekin egiten diren bilerez gain, eratuta dauden esturketan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, elkarlana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.



Helburuak

Helburu orokorra:

Politika publikoetan eragitea.

Zehatzak:

EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
Gazteriaren egoeraren berri ematea.
Gazteria politikei ekarpenak egitea.

Ekintzen jarraipena

Donostia:

Urtarrilak 8, uztailak 17 eta irailak 8.

Bilbao:

Uztailak 20 eta urriak 13.

Udal Gaztedi, Santurtzi: Maiatzak 14.

Gasteiz:

Urtarrilak 15, martxoak 24, uztailak 21, irailak 12 eta 16, urriak 29,

Ebaluaketa orokorra

Politika publikoetan eragitea.

Huteskundeak direla eta, aldaketak izan dira Udal Nagusietan, baina kasu honetan, EGKri gutxiago eragin diote.

Gehien bat Gasteizen lan egin da, non lankidetzaren hitzarmen bat sinatu den. Bertako Gazte Planaren jarraipenena, ekarpenak, elkarrekin jardunaldi eta ekintzak antolatu eta Gasteizko gazteekin esku-hartu da; hortaz, esan daiteke, eragin politikoa benetakoa izan dela. Elkarlan hau, eten baino, egonkortu egin da, eta 2016ra begira, elkarlanarekin jarraitzeko asmoa dago.

Bilboko Udalarekin, urteko bigarren zatian harremanak areagotu dira. Gazteriako talde berriak EGKren aholkularitza eskatu du Udalak ezarri nahi duen eredu berria diseinatzeko. Hurrengo urterako, lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko da.

Donostian berriz, aspaldi egon ez diren harremanak berreskuratu dira. Oraindik ez da akordiorik sinatu, baina lankidetzaren dagoeneko martxan da.

7.5.6 BESTE ERAKUNDEAK

Justifikazioa

Urtean zehar Gazteria politikan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraia edukitzen da Presidentziaz, hala



nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Euskadiko Eskola Kontseilua, Drogomenpekotasunen Batzordea, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ...

Horiez gain, EGKk hainbat entitaterekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Horren guztiaren helburua, gazteen ahotsa eta EGKren diskurtsoa ahal bezain beste zabaltzea da, eta Kontseilutik egiten den lanak eragina izatea gazteen bizi-baldintzetan eta eskubideetan.

Helburuak

Helburu orokorrak:

- EGKren ordezkariak egin.
- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatu.
- EGKren hitza eta iritzia zabaldu.

Ekintzen jarraipena

Bileren maiztasuna.

Harreman/elkarlan kopurua.

2015ean, presidentea erakunde hauekin elkartu edo parte-hartu du:

- Nafarroako Gazteriaren Kontseilua:** urtarrilaren 9tik 11ra Iruñan.
- Euskadiko Eskola Kontseilua:** urtarrilak 21, martxoak 3.
- Gaztepolis:** urtarrilak 23.
- Gaztetxoak:** urtarrilak 26.
- Kale Dor kayiko:** urtarrilak 26.
- JSE-Egaz:** otsailak 8.
- Uzturre eta EGI:** otsailak 9.
- IKD Gazte:** otsailak 9, maiatzak 4.
- Artium:** otsailak 11.
- FVJE (Federación Vasca de junior Empresa):** otsailak 18
- SARE:** otsailak 19, azaroak 17.
- ERNAI:** otsailak 19.
- Gizalde:** otsailak 23, urriak 21.
- Ararteko:** otsailak 24, maiatzak 13, ekainak 19 (EHUko Udako Ikastaroak).
- Eskoziako Gazte Kontseilua:** otsailak 25.
- Europar Kontseiluko Gizarte Elkarrizketa:** otsailak 26.
- Hezkide Eskola:** otsailak 27.
- LGTB Liga:** martxoak 3.
- Building Bridges:** martxoak 10.
- EGKko Batzar Orokorra: martxoak 14
- Lokarri:** martxoak 18 eta 20.
- BAI Euskarari:** Martxoak 18
- Emakunde:** martxoak 24, ekainak 2 eta irailak 30.



- Eusko Ikaskuntza – Eurohiria**: apirilak 16.
- ONCE**: apirilak 20.
- EGKko Bake lan-taldea**: apirilak 20.
- EDE Fundazioa**: maiatzak 6.
- CJE** (Consejo de la Juventud de España)- Foro Juventud Necesaria: ekainak 9. Gira Juventud Necesaria: irailak 12.
- ELA**: uztailak 1.
- LAB**: uztailak 1.
- RASDen Lagunak Araba**: uztailak 7.
- Innobasque**: uztailak 14.
- UJ Sario** (Union de Juventudes Saharais): uztailak 21.
- EUDEL**: uztailak 23.
- Gipuzkoako Merkataritza Ganbara**: uztailak 23.
- SAREGINEZ** Feria: irailak 12
- Gazte Mundu** (Diasporako gazteak): urriak 3.
- Diasporaren Mundu Batzarra**: urriak 7.
- Confebask**: urriak 13.
- Gazte Label** aurkezpena bilera interinstituzionalean: urriak 28.
- Novia Salcedo**: azaroak 9.
- CES Vasco** (Consejo Económico Social): azaroak 9.
- LSB-USO**: azaroak 11.
- Astialdi Sarea**: azaroak 20.
- ALC Open Academy** (Agirre Lehendakaria Center): azaroak 27.
- Úbiqua**: abenduak 16.

Ebaluaketa orokorra

EGK barruko eta kanpoko erakundeekin hartu emana egon da, eta Kontseiluaren harreman sarea pixkanaka geroz eta zabalagoa bilakatzen ari dela esan daiteke.

EGKk izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hori dela eta, Kontseiluak hainbat hartu-eman izan ditu aipatutako 46 erakunde ezberdin horiekin. Azpimarragarrienak Arartekoa eta Emakunde izan dira, bi erakunde horiekin elkarlan arrakastatsua egin baita.

Aurrerantzean, eta 30. urteurrena gerturatzen ari delarik, EGKko elkarteekin dagoen lotura estutzea bilatu nahi da.

7.5.7 KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDI PUBLIKOA

Justifikazioa

EGKk izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGKk berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.



Hala, 2015ean zehar ere komunikabideetan, elkarrizketa eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartu da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

Helburuak

Orokorrak:

- EGK publikoki ordezkatu.
- EGKren hitza eta iritzia gizarteratu.

Zehatzak:

Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatu.
EGKren publikazioetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, elkarrizketak e.a. egin.

Ekintzen jarraipena

Jarraian zerrendatuko diren elkarrizketa eta agerraldiak, presidenteari dagozkionak dira soilik, beraz, horiez gain beste batzuk ere izan dira. *ikus komunikazio atala.

PRENTSAURREKOAK eta AURKEZPENAK:

- Prekarioka: urtarrilak 27.
- Parte Hartzearen inguruko ikerketaren txostenaren aurkezpena: urriak 22.
- Juventud Necesaria: irailak 14.

IRRATIA:

- Euskadi Irratia – Mezularia– Gazte Tertulia:** urtarrilak 8, otsailak 5, martxoak 5, apirilak 2 eta 30, maiatzak 28 eta ekainak 9.
- Radio Vitoria:** urtarrilak 26 eta maiatzak 4.
- Antxeta irratia:** urtarrilak 30.
- Bizkaia Irratia:** martxoak 12, maiatzak 14, irailak 1 eta urriak 22.
- Onda Vasca:** irailak 1, irailak 7, azaroak 2 eta abenduak 28.
- Onda Cero:** urriak 5.
- Info7 Irratia:** urriak 7.
- Euskadi Irratia – Mezularia – elkarrizketa:** urriak 7.
- Cadena Ser:** azaroak 10 eta abenduak 3.

EGUNKARIAK:

- Diario Vasco:** urtarrilak 27 eta azaroak 29.
- HITZA:** otsailak 27 eta urriak 9.
- BERRIA:** uztailak 17 eta abuztuak.
- DEIA:** urriak 1.
- GARA:** urriak 7.
- Noticias de Gipuzkoa:** urriak 7.

TELEBISTAK:



- EITB albistegiak:** urtarrilak 27.
- La Sexta Noticias:** maiatzak 13.
- 11 Telebista:** urriak 5.
- AZPIMARRA etb1:** otsailak 10 eta apirilak 28.
- EGUNON EUSKADI etb1:** martxoak 24.
- TELEDONOSTI:** otsailak 11 eta urriak 8.

Ebaluaketa orokorra

Arlo honetan ere, aurreko urteetan baino presentzia handiagoa izan da, sekula izan ez dena. Komunikabide mota eta maiztasuna orekatua eta zabala izan da. Oso ondo baloratu da medioetan presentzia edukitzea, izan ere, horri esker EGK ezagutzera ematen da eta instituzioen aurrean ahalduntzen da.



8. EGKko KUDEAKETA EKONOMIKOA

8.1. BATZARREAN ONARTUTAKO 2015RAKO AURREKONTUA

2015rako EGK-ko AURREKONTUA

DIRUSARRERAK		
EUSKO JAURLARITZA		263.000,00 €
Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoak	198.000,00 €	
Eusko Jaurlaritza Lehendakaritza (Bakea)	65.000,00 €	
ALDUNDIAK		69.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia. Gazteria	42.000,00 €	
Gipuzkoako Foru Aldundia. Gazteria	27.000,00 €	
BEREZKO DIRUSARRERAK		11.641,98 €
Finantziar ondasunak	1.141,98 €	
Foroetan, kurtsoetan partehatzeagatik dirusarrerak	2.500,00 €	
2014ko kontseilukideen kuotak	5.000,00 €	
Eusko Jaurlaritza (Gazte txartelako publizitatea)	3.000,00 €	
GUZTIRA		343.641,98 €

GASTUAK		
1.- OROKORRAK		117.181,27 €
1.1. LANGILE OROKORRAK		90.431,55 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)	38.092,44 €	
28.879,80 € Soldata gordina		
9.212,64 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantza		
Kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa	47.254,79 €	
36.099,93 € Soldata gordina		
11.154,86 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantza		
Garbiketa Zerbitzua Bizkaia	5.084,32 €	
3.799,95 € Soldata gordina		
1.284,37€ EGKk ordaindutako Gizarte Segurantza		
1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA		26.749,72 €
Garbiketa Zerbitzua Gipuzkoa	1.600,00 €	
Garbiketa Zerbitzua Araba	1.224,72 €	
Kopiagintzak	600,00 €	
Bidalketak	125,00 €	
Bulego materiala eta informatika	350,00 €	
Teléfonoa eta interneta	4.500,00 €	
Kononketak eta mantenua	4.600,00 €	
Horniketak (ura, argia...)	6.000,00 €	
Gestoretza	2.400,00 €	
Bestelakorik	200,00 €	
Langileen osasunaren zainketa	700,00 €	
Batzorde Iraunkorra	1.500,00 €	
Batzorde Teknikoa eta barne funtzionamendua	1.000,00 €	
Harpidetzak	125,00 €	
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak	400,00 €	
EGK-ko Batzarrak	200,00 €	
Batzorde Iraunkorreko aseguroa	1.000,00 €	
Inbertsioak	225,00 €	



2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK	226.460,71 €
2.1. KOMUNIKAZIOA	41.625,44 €
Komunikazio Teknikaria	27.125,44 €
18,418,17 € <i>Soldata gordina</i>	
8.707,27 € <i>EGKk ordaindutako Gizarte Segurantza</i>	
Proiektuak	14.500,00 €
Berriz berri	5.250,00 €
Web EGK	6.750,00 €
Twitter lehiaketa	200,00 €
Bideo Lehiaketa RECacciona: Hezkuntza	2.000,00 €
Komunikabideekin harremanak	300,00 €
2.2. ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA	42.098,58 €
Enplegu eta Etxebizitza Teknikaria	39.098,58 €
30.459,33 € <i>Soldata gordina</i>	
8.639,25 € <i>EGKk ordaindutako Gizarte Segurantza</i>	
Proiektuak	3.000,00 €
Gazteak eta Etxebizitza Emantzipa Zer?	500,00 €
Gazteen enplegurako politiken hausnarketa	100,00 €
Prekariatateare prebentzioa	2.300,00 €
SOS GAZTE II	50,00 €
Gazte Label Sello calidad políticas públicas	50,00 €
2.3. HEZKUNTZA	37.062,72 €
Hezkuntza Teknikaria	34.062,72 €
25,785,60 € <i>Soldata gordina</i>	
8.277,12 € <i>EGKk ordaindutako Gizarte Segurantza</i>	
Proiektuak	3.000,00 €
Astialdi Foroetako koordinazioa	300,00 €
Astialdietako ikastaroen kanpaina	350,00 €
Zabalpen ekintzak	600,00 €
Udako kanpaina	650,00 €
Astialdietako Eskolen geroa	100,00 €
Hezkuntza Formala	1.000,00 €



8.2 KONTROL EKONOMIKORAKO BATZORDEA

KONTROL EKONOMIKORAKO BATZORDEA

Bilbon 2016ko Otsailaren 19an Estibaliz Canto (Gazte Kanpusa) urteetarako EGK-ko barne auditorea, bilduta eta EGK-ko ekintzetako memoria, aurrekontua eta balantzea ikusi eta gero, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak aurkeztutako 2015 urteko balantze ekonomikoari onarpena ematen diote.

ESTIBALIZ CANTO



8.3 2015 URTEKO BALANTZE EKONOMIKOAREN IRUZKINAK

Hasteko, aipatu beharra dago EGK-ko Presidentea, diruzaina eta administraria EGK-ko aurtengo kontabilitatea aztertzeko, berrikusteko eta behar diren aldaketak egiteko maiztasunez bildu garela. Hauek Batzorde Iraunkorrean onartuak izan dira.

Azkenean, aurkeztu eta onartutako 2015rako aurrekontuan aldaketak egon dira.

Jarraian, EGK-ko azken Batzarrean onartutako aurrekontuari buruzko azalpen eta aldaketa garrantzitsuenak azaltzen dizkizuegu bai diru-sarreretan zein gastuetan.

SARRERAK:

Sarrerei dagokionean aipatu, **Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Sailak** funtzionamendurako dirulaguntza eta inbertsioetarako dirulaguntza batean batu zigula. Horrela inbertsioetan kopuru finko bat ez dugu gastatu behar. Kopurua 198.000,00€

2015ean **Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzarekin** sinatu genuen hitzarmena bukatu zen. Kasu honetan, hitzarmena lau urtekoa zen (2012-2015), urte bakoitzerako 42.000,00€ izanik.

Bestetik, **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** beste hitzarmen bat sinatu genuen. Hitzarmen hau 2015 urteko abenduaren 31an bukatu zen. 2015rako 27.000,00€ jaso genuen.

Erasmus+etik (Injuveren bitartez) dirulaguntza bat eman ziguten "Gazte Astea" proiektua garatzeko 3 Arloaren barruan "Gazte eta arduradun politikoen arteko topaketak". Proiektu hau otsailaren 28an bukatu zen. Oraindik aurkeztutako justifikazioaren erantzuna ez dugu jaso.

2014ko otsailean, **Gasteizko Udalarekin** sinatuta geneukan hitzarmena bukatu zen. Martxoan beste bat sinatu genuen (2014rako 17.016,87€ eta 97,24€ 2015rako) **Udaleko gazte politikan parte hartzeko prozesu bat** aurrera eramateko. Hitzarmen honen iraupena otsailaren 28an bukatu zen.

Eusko Jaurlaritzarekin (Lehendakaritza) berriro sinatu zen hitzarmen bat Euskadiko 2013-2016ko bake eta bizikidetzeta plana garatzeko gazteriaren lerro espezifikoak partekatu, diseinatu, garatu eta gauzatzeko (65.000,00€).

EGK-ko kide diren elkarten kuotei dagozkionean, azkenean jaso den diru kopurua aurrekontuan zehaztutakoa baino altuagoa izan da, elkarte batzuek ordaindu behar duten kuota ordaindu egin dutelako. 2015ean kobratutako kuotak 2.163,60 €koak izan dira eta aurreko urtekoak 2.884,80 €koak.

Finantza-interesen atala, finantza lurrunkortasunagatik negatiboa izan dela azpimarratu behar da.



Ikastaroen, foroen... bidez izandako diru sarrerek Gazte Behatokiak antolaturiko gazte parte-hartzearen gainean 2 ikastaro emateagatik eta EGK-ko Teknikariek ikastaroren batean parte hartu izanaren ondorioz jasoak izan dira.

Gazte Txartelako diru sarrerei buruz, Eusko Jaurlaritzak EGK-ko web orrian honen publizitatea sartzegatik ordaindu zigun.

GASTUAK:

Langilegoaren gastuei dagokionez, aldaketarik ez da izan.

Azpiegitura eta kudeaketa gastuak, atal batzuetan aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da. EGK-ko Gasteizeko bulegoan argien aldaketa dela eta, Konponketa eta mantenuan aurreikusitako gastua zerbait handiagoa izan da. Horniketan, kostua aurreikusita baino handiagoa izan da elektrizitatearen fakturaren igoerak direla eta. Era berean, inbertsio atalean izandako gastua aurreikusia baino handiagoa izan da apurtuta zeuden PC bi aldatzeko bi berriak eta talde guztirako sistema eragilearen lizentziak erosi ditugu eta, zeudenak zaharkitu geratu direlako. Aurten berriro Batzorde Iraunkorrerako erantzunbeharreko seguru bat kontratatu egin da.

Jardueren eta ildo estrategikoen gastuei dagokionez, memorian urtean zehar garatu diren aurrekontutik abiatutako ekintzen berri jasotzen da.

Komunikazio arloan, arlo honetako teknikariaren kostu zati bat Injuveko (Erasmus +) dirulaguntzarekin eta beste zati bat Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmanarekin ordaindu zen.

Enplegu eta Etxebizitza arloan, gastua aurreikusitakoa baino pixka bat handiagoa izan da kontratuaren amaitzeagatik kalte-ordainketak eta Gazteon Errezetak, gazteontzako enplegu planak sukaldatzeko txostenaren imprimaketa (aurreikusita ez zegoen) direla eta. Aitzitik, Hezkuntza, Parte-hartze eta Berdintasun arloetan izandako gastua aurreikusita baino txikiagoa izan da.

Amaitzeko, diru iturriak **345.228,71€**-koak eta gastuak **343.536,24€**-koak izanik, **1.692,47€tako** (%0,48) soberakina egon da. Diru kopuru hori, EGK-ko ornidura-funtsara pasako da (aurreko urteetako dirusarrera eta gastuen arteko desberdintasun positiboak).



8.4 2015 URTEko BALANTZE EKONOMIKOA

DIRUSARRERAK	
EUSKO JAURLARITZA:	263.000,00 €
Eusko Jaurlaritza. Gazteria. Zuzenekoak	198.000,00 €
Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza	65.000,00 €
ALDUNDIAK	69.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia. Gazteria	42.000,00 €
Gipuzkoako Foru Aldundia. Gazteria	27.000,00 €
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK	2.597,33 €
Injuve (Erasmus +) 2014ko iraila- 2015eko otsaila (2015koa)	2.500,09 €
Gasteizko udala (gazte politikak eta partehartzea (urtarrila-otsaila)	97,24 €
BEREZKO DIRUSARRERAK	10.631,38 €
Kontseilukide kuotak	5.048,40 €
Finantzar ondasunak	-1.922,57 €
Foroetan, kurtsoetan partehartzeagatik dirusarrerak	2.568,38 €
Eusko Jaurlaritza (Gazte txarelako publizitatea)	2.970,00 €
Generali Seguroseko itzultzea	1.967,17 €
GUZTIRA	345.228,71 €

GASTUAK	Gastuen zahaztapena	ERABILIA
1.- GASTU OROKORRAK		117.763,29 €
1.1. LANGILE OROKORRAK		90.483,91 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)		38.150,18 €
28.879,80 € Soldata gordina	28.879,82 €	
9.212,64 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	9.270,36 €	
Administrazioa eta Kudeaketa		47.260,96 €
36.099,93 € Soldata gordina	36.099,96 €	
11.154,86 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	11.161,00 €	
Garbiketa Zerbitzua Bizkaia		5.072,77 €
3.799,95 € Soldata gordina	3.799,94 €	
1.284,37€ EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	1.272,83 €	
1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA		27.279,38 €
Garbiketa zerbitzua Gipuzkoa		931,70 €
Garbiketa zerbitzua Araba		1.223,51 €
Kopiagintzak		227,71 €
Bidalketak		81,23 €
Bulego materiala eta informatika		305,23 €
Telefonoa eta interneta		4.577,59 €
Konponketak eta mantenua		5.106,01 €
Horniketak (argia....)		6.253,66 €
Gestoritzza		2.278,44 €
Bestelakorik		151,01 €
Inbertzioak		2.528,49 €
Langileen osasunaren zainketa		667,64 €
Batzorde Iraunkorra		1.591,94 €
Batzorde Teknikoa		131,15 €
Harpidetzak		105,00 €
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak		119,19 €
EGK-ko batzarrak		79,46 €
B.Irako Erantzukizun Zibilarako Aseguroa		920,42 €



2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK		225.772,95 €
2.1 KOMUNIKAZIOA		39.447,03 €
Komunikazio Teknikaria		24.876,12 €
18,418,17 € Soldata gordina	18.646,91 €	
8.707,27 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	6.229,21 €	
PROIEKTUAK		14.570,91 €
Berriz berri		4.899,10 €
EGK-ko web orria		7.153,38 €
Twitter Lehiaketa		298,00 €
Bideo lehiaketa "Reccaciona: gazteak eta enplegua"		2.126,93 €
Komunikabideekin harremanak		93,50 €
2.2 ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA		43.414,56 €
Etxebizitza eta Enlegua Teknikaria		39.460,92 €
30.459,33 € Soldata gordina	30.411,60 €	
8.639,25 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	9.049,32 €	
PROIEKTUAK		3.953,64 €
Gazteak eta etxebizitza. Emantzipa Zer?		12,60 €
Gazteen enplegurako politiko publikoen hausnarketa		981,99 €
Prekarietatearen prebentzioa		2.306,34 €
SOS GAZTE II		34,98 €
Gazte Label. Gazteria politika publikoen kalitate zigilua		617,73 €
2.3. HEZKUNTZA		36.331,43 €
Hezkuntza Teknikaria		34.062,70 €
25,785,60 € Soldata gordina	25.785,56 €	
8.277,12 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	8.277,14 €	
PROYECTOS:		2.268,73 €
Astaldi Foroetako koordinazioa		302,63 €
Astaldiko ikastaroen kanpaina		297,58 €
Zabalpen ekintzak		601,83 €
Udako kanpaina		641,88 €
Astaldiko Eskolen etorkizuna		- €
Hezkuntza proiektuak		424,81 €
2.4 PARTEHARTZEA		38.923,34 €
Partaidetzarako Teknikaria		36.127,67 €
27.396,85 € Soldata gordina	27.735,56 €	
8.277,12 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	8.392,11 €	
PROYECTOS:		2.795,67 €
Gazte olinpidadak		2.177,14 €
Eztabaida politikoa		131,40 €
Ikerketa kuantitatiboa		61,06 €
Prestakuntza (Behatokia)		254,07 €
Material eta legen lagapena		0,00 €
Elkarteei aholkularitza		52,58 €
Erakunde publikoekin elkarlana		119,42 €



2.5 BAKEA ETA BIZIKIDETZA		65.000,76 €
Bakea eta Bizikidetza Teknikaria		34.908,37 €
26.785,60€ Soldata gordina	26.633,31 €	
8.277,12 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	8.275,06 €	
Komunikazio Teknikaria		6.966,41 €
4.710,41 € Soldata gordina	5.586,87 €	
2.226,87 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	1.379,54 €	
PROYECTOS:		23.125,98 €
Koordinazio orokorra		1.377,96 €
Formazioa bake ibilibideak herrietan		487,71 €
Memoriaren plaza		1.361,10 €
BAKE&ARTE Tailerrak		1.815,44 €
Gazteak eta Bakea Dokumentala I		8.247,30 €
Bakeizketak		8.856,48 €
Nazioarteko egunak		979,99 €
Bakea unibertsitatean		0,00 €
Gazte Bake Manifestua		0,00 €
Beste eragileek proposatutako ekintzak		0,00 €
2.6 GASTEIZKO UDALAKO GAZTE POLITIKETAN PARTEHARTZEA		97,24 €
Gasteizko udalako gazte politiketan partehartze Teknikaria		
€ Soldata gordina		
€ EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza		
PROIEKTUAK		97,24 €
2.7 GAZTE ASTEA		2.500,09 €
Bidaiak		280,00 €
Antolakuntza		2.220,09 €
Aparteko beharrak		0,00 €
2.8 BERDINTASUNA		58,50 €
EGK-n berdintasun diagnostikoa		58,50 €
GUZTIRA		343.536,24 €

LABURPENEA	
DIRUSARRERAK	345.228,71 €
GASTUAK	343.536,24 €
SOBERAKINA	1.692,47 €